


## Euskal kultura 2004



ALBERTO BARANDIARAN  
 MIKEL BUJANDA  
 PANTXOA ETCHEGOIN  
 TERE IRASTORTZA  
 RITXI LIZARTZA  
 XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
 XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
 ALLANDE SOKARROS  
 ANDRES URRUTIA  
 JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL  
 IÑAKI ZABALETA URKIOLA

*Gaiak*

Immanuel Kant, gaur (1724-1804/2004)  
 IBON URIBARRI

# JAKiN

*145*

azaroa  
abendua  
2004



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



*Zenbaki honetan*

---

► 7

*Gai nagusia*

---

Euskal kultura 2004

ALBERTO BARANDIARAN ► 11

MIKEL BUJANDA

PANTXOA ETCHEGOIN

TERE IRASTORTZA

RITXI LIZARTZA

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

ALLANDE SOKARROS

ANDRES URRUTIA

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

IÑAKI ZABALETA URKIOLA

*Gaiak*

---

Immanuel Kant, gaur (1724-1804/2004) ► 87

IBON URIBARRI

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)


---

2004ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## Summary




## Basque Culture 2004

Eleven authors, professionals from the world of Basque culture, provide us with a critical comment of the cultural events that occurred during the year 2004. Almost all of them —each from their own viewpoint— refer to the event which has perhaps been the most important new feature in the area of cultural policy: the presentation of the Basque Plan of Culture. Furthermore, Alberto Barandiaran also reflects on Bernardo Atxaga and the awarding of the literary prizes; Mikel Bujanda focuses on criticism of cultural policy in Navarre; Pantxoia Etchegoin brings us closer to cultural activity in the North Basque Country during this year; Tere Irasortza comments on the activities carried out by EIE (Association of Basque Writers); Ritxi Lizartza comments on several aspects of current publishing, theatre and cinematography; Xabier Mendiguren Bereziartu focuses on the analysis of the 3rd Plan of Basque Language Learning in Administration and the place the Basque language occupies within the Ibarretxe Plan; Xabier Mendiguren Elizegi makes several notes about current literature; Allande Sokarros presents us with and analyses cultural events in Zuberoa; Andres Urrutia reminds us of the recent passing way of Augustin Zubikarai, Martin Ugalde and Andolin Eguzkitza; Josemari Velez de Mendizabal provides us with an overview of cultural current affairs in the Basque Country; and finally, Iñaki Zabaleta Urkiola warns us of the growing conservatism in Basque culture. ► *Various Authors*



## Immanuel Kant, today (1724-1804/2004)

The professor Ibon Urbarri, author of a doctorate and several monographs about Kant, as well as being the author of the Basque language edition of the *Critique of Pure Reason*, provides us with a brief biographical sketch of the great German philosopher, on the occasion of the two hundredth anniversary of his death. Urbarri brings us closer both to Kant's life and his complex and prolific philosophical system, and also provides us with several keys to considering the current situation as regards his ethical and political thought. ► IBON URIBARRI



*e*skuetan duzun hau bigarren aldiko 145. zenbakia da eta 2004. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatoz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatzea eta horiei buruz gogoeta eginenez artikulu arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Hamaikaren erantzuna jaso dugu. Mila esker, beraz, guztioi.

Iruzingile ia guztiek, bakoitzak bere ikuspuntutik, 2004an kultur politikaren alorrean gertakari nagusietakoa izan dena hartzen dute hizpide: Kulturaren Euskal Planaren aurkezpena, hain zuzen ere.


Gainera, Alberto Barandiaran kazetariak Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* eleberriari eta literatur sariei buruzko gogoeta eskaintzen du, besteak beste; Mikel Bujanda Euskalerrria Irratiko zuzendariak, Nafarroako kultur politikari begirada kritikoa botatzen dio; Pantxoia Etchegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak Ipar Euskal Herriko aurtengo hainbat kultur gertakizun aurkezten dizkigu; Tere Irastortzak, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak, EIEk urtean zehar sustatutako ekimenen inguruan hausnartzen du; Ritxi Lizartza hizkuntz teknikariak argitalgintza, antzerki eta zinema alorretako hainbat gertakari komentatzen ditu; Xabier Mendiguren Bereziartuk, Kontseiluko idazkari nagusiak, Administrazioa euskalduntzeko planean eta Estatutu politikoaren proposamen berrian

euskarak betetzen duen lekuaz dihardu; Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editoreak 2004ko literaturgintzaren inguruko hainbat ohar dakartza; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako euskalgintza eta kulturgintzan jartzen du arreta; Andres Urrutia notarioak hil berri diren Andolin Eguzkitza, Martin Ugalde eta Augustin Zubikarai dakartzkigu gogora; Josemari Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntzako kudeatzaileak Euskal Herriko egoera kulturalari buruzko gogoeta orokorra eskaintzen du; eta, azkenik, Iñaki Zabaleta Urkiolak euskal kulturaren esparruan ere hedatzen ari den kontserbadorismoaz ohartzen gaitu.

*Gaiak* sailean, bestaldetik, Immanuel Kant filosofoari buruzko artikulua dator. Izan ere, 2004an bete da bere heriotzaren bigarren mendeurrena. Hori dela eta, Kanti buruzko hainbat monografiaren egile eta *Arrazoimen hut-saren kritika*-ren euskaratzaile den Ibon Uribarrik filosofo aleman handiarengana hurbiltzen gaitu, Kanten biografiaren eta sistema filosofikoaren muina aurkeztuz eta bere pentsamendu etiko-politikoaren gaurkotasuna ulertzeko gako nagusiak azalduz. ¶



# Euskal kultura 2004



ALBERTO BARANDIARAN ▶ MIKEL BUJANDA  
PANTXOA ETCHEGOIN ▶ TERE IRASTORTZA  
RITXI LIZARTZA ▶ XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI ▶ ALLANDE SOKARROS  
ANDRES URRUTIA ▶ JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL  
▶ IÑAKI ZABALETA URKIOLA ▶ *11*



## Alberto Barandiaran

### Hondarribia: gizarte-kultura, hondoak jota

Oso adierazgarria izan da Jokin Zeberio Hondarribiko gaztearen heriotzaren inguruko informazioarekin egin dena. Zer egin den, eta nola erabili den. Ez naiz komunikabideez ari. Ez naiz bakarrik komunikabideez ari. Gehiago interesatzen zait herrian, Hondarribian bertan, zer egin den. Nola ezagutu, nola zabaldu, eta nola barneratu den tragedia.

Hondamibian urteak dira hainbat gazte jazarpen go-gaikamia jasaten ari direna. Hainbat familia, zehatz esanda, baina niri gazteak interesatzen zaizkit orain. Zorigaitzeko alardearen kariaz, jende askok ezin du bere herrian lasai ibili. Bertakoak dira denak. Bertan jaiotakoak, edo bertan bizitzea erabaki dutenak. Arrantzaleak, irakasleak, idazleak, tabernariak, langileak, berdin dio: bertakoak.

Ezin dute kale nagusian ohi bezala, *haiek* bezala paseatu; ezin dute betiko koadrilarekin betiko itzulia egin; ezin dute ohiko dendetara lehengo konfiantzarekin joan. Ez zaie debekatu, noski, ez dago pankartarik edo agindu idatzirik, baina begiradak, esamesak, oihuren bat edo beste nahikoak izan dira. Abisuak egon dira.

Beraz eta, urteetan, familia batzuek —helduek, baina gazteek ere bai— gehiengoak sustatu eta herriko erakundeek babestutako jazarpena pairatu dute. Eta hori ez da ondo azaldu. Ez da ondo azaldu Alardearen auzia, Hondarribian, ez dela —ez bakarrik— irailaren bigarren asteko kontua. Oso zauri sakona utzi duela herrian, eta zauri horrek, sukarrak nola, gauza asko gaixotu dituela. Hautsi direla familiak eta koadrilak, eta bi mailako hiritarrak sortu direla. *Betikoak*, hau da, Betiko Alardearen Aldekoak, eta besteak. Eta barne-barneko zikinak —zorne guztia— kanporatu direla.

Esan nahi dut hori gazteek ikusi dutela. Esan nahi dut baztertuta egon diren batzuk izan direla, eta bazterke-

ta horren lekuko zuzenak izan diren beste batzuk izan dira. Gazteek ikusi dutela —gurasoak ikusi dituzte— *putak!* oihuka daitekeela lasai-lasai, inpunitate osoz, eta jendea kanpora daitekeela giza taldeetatik inolako lotsarik gabe. Esan nahi dut gazteek ikusi eta entzun dutela pentsaera berekoak ez direnak baztertu daitezkeela. Iraindu eta jo ere bai. Beren adinekoekin gizarte arauak betetzeko unea egokitu zaienean, orduantxe, jarrera zeharo ezohiko eta arbuigarriren lekuko zuzenak izan direla. Zerbait gelditu dela.

Jokinek arazo handiak izango zituen. Korapilatsua da oso garai hori, baina, gertuenetatik hasita, askok huts egin behar izan dute hamalau urteko mutiko batek, egun-sentiarekin etxetik atera, eta harresietatik behera bere buroa botatzeko erabakia hartzeko.

Horregatik, erreakzioak kezkatu nau batez ere. Irakasleen erreakzioak, haien isiltasunak. Inputatuta daudenen gurasoen erreakzioak, komunikabide jakin bati «kanpaina» leporatuz, eta nabarmenduz «herria ren izena zikindu» nahia. Kezkatu nau hondarribitar askoren erreakzioak ere, «denok gara errudun», esanez. Esanez, hain zuzen ere, inor ez dela errudun. Horrek guztiak kezkatu nau, zorizaiztoko jaiaren erreakzio ezagunak, duela zortzi urtetik hona urtero errepikatzen direnak, sumatu ditudalako, azken finean, han eta hemen. Sumatu dudalako sukarra ez dela sendatu. Susmatzen hasia naizelako ez dutela sendatu nahi.

## Atxaga eta sariketak

Data berezia izan zen. Egun berean, Euskadi Literatura Saria eta Espainiako Narratiba Saria erabakitzen ari ziren. Bi sariketetan, liburu bat: Atxagaren *Soinujolearen semea*. Liburu horren eguna izan zitekeen, kritikaren behin betiko bultzada, eta aitorpena. Baina bietan, huts. Bietan, arrazoi politikoengatik. Lagun batek esan zuen bezala, txapeldunen ligako finala jokatu, eta bi zutoin jo ondoren, 0-2. Eta esku hutsik etxera.

Liburu bikaina da *Soinujolearen semea*. Nire uste apa-lean, euskal literaturaren historian mugarria. Atxagaren maisutasun guztiarekin idatzita dago, Euskal Herriko historia modernoaren pasarterik erabakigarrienetakoaren halako testamentua da, eta egileak berak esan du, behin baino gehiagotan esan ere, bere libururik onena dela. Eta idazleek, horrelakoetan, asmatu egin ohi dute.

*Soinujolearen semea* liburu garrantzitsuagoa da Jokin Muñozena baino. Eta bidegabea da, noski, bi liburuak elkarren ondoan jartzea, baina zer da sariketa bat, hori ez bada? *Bizia lo* lanari saria emanda, epaimahaikideek zer-bait hautsi nahi izan zutela iruditzen zait. Asier Gorrotxategik azaldu du, ondo azaldu ere: Atxagarena ezaguna dugu, jo dezagun irakurketa berriak eskaintzen dizkigunaren alde egitera. Erabaki zilegia da, eta ausarta, eta txalogarria iruditzen zait ausardia hori. Heldutasunaren zantzua izan daiteke, kritika pizten ari den seinale. Eta *Bizia lo*, sobera legoke esatea, liburu ederra da. Baina erabaki politikoa izan da. Gutxi gorabehera, Nobel sarietan erabiltzen denaren parekoa. Ez ditzagun behi sakratuak goraipa, bila ditzagun izen berriak. Ondo. Nago, ordea, beldurra diogula, beti izan diogula, nabarmentzeari. Hainbeste errepikatzen den txikitasunak maratoia tropelean egitera behartzen gaituela, harrotzeko baimenik gabe. Baten bat gehiegi nabarmentzen bada, susmoak jota gabiltzala, ez ote dituen gainontzekoak ikusezin bihurtuko...

Atxagarekin Madrilén egoteko aukera izan nuen, *Obaba*-ren filmaketaren aurkezpenean. Liburuaren gaztelaniazko bertsioaren argitaratzearekin batera, aste osoa eman zuen bertan. Han eta hemen elkarriketak eskainiz eta hitzaldiak emanez, eta Euskal Herriaz eta euskal kulturaz bere ikuspegia azalduz, benetako enbaxadore begitandu zitzaidan. Kultura baten enbaxadore, eta baita gure historia hurbilenaren azalpen oso baten enbaxadore ere. Iruditu zitzaidan edozein plan baino probetxugamiagoa izan zitekeela bere liburuak, su-eten baten osagarri kulturala gutxienez bai.

Eta, zenbaitek, protagonismo hori ezin eraman dute. Idazle bakarreko literatura garelako esanez, kritika minduak entzun dira azkenotan.

Laurehun liburu baino gehiago kaleratu dira aurten. Inoiz baino elkarrizketa gehiago ateratzen dira prentsan, eta inoiz baino promozio handiagoa eta zabalagoa egiten da liburuekin. Inoiz baino presenteago daude sortzaileak zutabeetan, manifestuetan, pankartetan.

Ez dakit inoiz baino gehiago saltzen ote den, edo Atxaga den saltzen duen bakarra, baina hau ez da idazle bakarreko literatura. Uler nitzake kritikak barne ezinegon batetik eginikoak balira —hala dela iruditzen zait—, baina inola ere ez irizpide literarioetatik abiatuta.

Fuera lotsak: idazle handia(k) d(it)ugu, eta literatura osasuntsua. Baditugu, gainera, kritikatzera animatzen diren gazteak, eta badugu talde itxurosoa, liburuz liburu sorpresak eskaintzen dituen. Hori ona da.

## **Kulturaren Euskal Plana: Zalloren doktrina**

Ramon Zallok eta bere taldeak doktrina ezarri du. Hiru urteko eztabaida eta gero onartu den Kulturaren Euskal Plana funtsezkoa izango da datozen urteetan, kulturarekin zer egingo den kontuan hartzeko. Ez baita beste plan bat izango. Plana izango da, letra larriz: dirua jarriko da, erakunde berriak sortuko dira diru hori kudeatzeko, eta administrazio guztiak gurdira igo daitezen ahaleginak egingo dira. Arretaz jarraitu beharra dago, beraz.

Zallok berak ondo azaldu du. Euskal kultura osoa hartu da aintzat, eta, hemendik aurrera, estrategikoa izango da arloa. Horrek esan nahi du diagnosia egin ondoren plangintzak erabakiko direla, jarraipen taldeak osatuko direla, eta ebaluaketak burutuko. Zallok esan du, era berean, erakundeen arteko eskuduntza arazoak gainditu behar direla, hori dela ardatzetako bat, eta kulturgintzan ari diren guztien esku-hartzea beharko dela. Honetan datzala euskal kulturaren izatea edo ez izatea.

Erantzunak izan ditu, batzuk. Bat, esanguratsua oso, unibertsitate arloko zenbaitek eman diote. Ondo dagoela kulturaren euskal plana, baina euskal kulturaren plana ere beharko litzatekeela. Hau da, euskaraz egiten eta ekoizten

den produkzioak behar duela, inork behar izatekotan, horrelako plangintza bat, edo, bestela, plangintza honen barruan toki aukeratua.

Beste kritika bat —eta akaso hor du planak ahuleziarik nabarmenena—, lurraldetasunari dagokio. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako kultura plana da. Hala behar duela azpimarratzen dute Jaurlaritzan, administrazio horren plana delako, baina euskal kultura ez da hori bakarrik. Planak aipatzen ditu beste lurraldeetan bizi diren sortzaileekiko harremanak, eta aipatzen ditu diru laguntzen aukera bereziak, baina arriskua dago Nafarroakoan eta Iparraldekoen periferia sentsazioa areagotzeko.

Beraz eta lanak izango ditu sinesgarritasuna arlo guztietan lortzeko, eta aurrera eramateko, baina ez litzateke gutxietsi behar. Akaso planak ez du erabakiko, Zallok dioen bezala, euskal kulturaren izatea edo ez izatea, baina bertan egon daiteke etorkizun oparagoaren edo pobregoaren arteko aldea.

## **Oteiza ez dago gustura Guggenheimen**

**N**iri ez zait Guggenheimeko Oteizaren atzera begirakoa gustatu. Uste dut Anjel Lertxundik esan zuela artelan gehienak tokirik gabe bezala ikusi zituela, estu, eta inpresio berdina jaso nuen nik. Eskultura gehiegi, akaso? Ez dakit. Tokia ez aproposa? Beharbada. Baina lan guztien artean, pareta txuri eta hotzen artean, gogora etorri zitzaidan Iruñeko Gazteluko Plazan jarrita dagoen eskultura. Garaje lotsagarri baten sotoan, markako autoen artean, botata egon zen hura; orain hainbeste porlan eta bankuen artean ezkutatuta dagoena, farola bat bezala inguru horretan tokia aurkitu ezinean.

Egia esanda, Oteizaren eskulturek gutxitan erakusten dute beren indar guztia naturatik bereizita. Ez badira, esaterako, Agiñan, edo Iruñeko Zitudadelan, edo Donostiako Santa Klara parean. Besteak farolak dira gehienetan. Bitxia da: eskultura garaikidea, eta naturaren konplizitatea bilatu behar, azkenean. Berdin gertatzen da Altzuzan. Lanen

gainean halako presioa dagoela iruditu zait beti. Oizaren pareta koloretsu eta indartsuekin oihuka ari direla eskulturak, eta klarionak.

Kursaalen duela lau bat urte jarri zuten erakusketa gogoan dut ordea. Erakusketa bera eskultura handia zen, eskulturak elkarren ondoan jarri ez ezik, artistaren sormen lana erakutsi nahi izan zutelako. Ez zegoen atentzioa desbideratzeko deus.

Guggenheimen ez nuen horrelakorik sentitu. Badakit Oteiza ez zela gustura egongo. ♪



## Mikel Bujanda

### Zentsuraren erakustaldia

Neguan izan zen, otsailean, liburugintza zuen gaia erakusketak. Helburu didaktikoarekin prestaturik, liburua nola egiten den, idazleak testua sortzen duen unetik irakurlearen eskuetara iristen den arterainoko prozesua agertuz, liburu kontuetarako interesa piztu nahi zuen. Iruñeko udal agintaritzak, kultur gaietako zinegotziak, debekatu zuen. Eskuizkribu zirriborratu batek izan zuen erruaren erdia. Sarrionandiarena zen. Beste erdia mapa batek: polikromia nola lantzen den, margoen tratamendua azaldu nahi zuten. Mapan Euskal Herria ageri zen. Bonaparteren mapa. Mamu handiak, herri proskritoak, idazlea ere berdin. Ezin izan zen Iruñean erakutsi.

Ez da deus gertatu. Kulturaren tresna nagusia izanik liburua; honen promoziorako lanabesa erakusketa hori. Eskola umeen liburuarekin harreman bat izateko bidea. Horixe zentsuratzeko ausardia eta ahalmena dute agintari politiko kulturalak. Erretrataturik gelditu dira. Zetarako Francoren garaietara jo zentsura eta intolerantzia ideologiko-obsesiboa zer den ezagutzeko? Ez du luzatzerik merezi. Kalifikatzaileak zuen kontura. Nota hartu dugu guk edozein huskeriarekin iskanbila eta alarma hain erraz jo ohi duten hedabideek nola bildu duten zentsuraren gordina isiltasunaren estalki goxoan. Galdera bat soilik: non eta zein preziotan erosten da immunitatearen bulda?

### Oihu mingotsa

*Gora Euskal herria!* oihu eginez adierazi zuen poza Xabier Silveirak txapela irabazi berritan Nafarroako bertsolarien



finalean. Merezimendu osoz irabazi zuen: gaiak gozo etorri zitzaizkion eta bizimoduaz duen bere ikusmoldea adierazten asmatu zuen. Txapeldunek ohi duten moduko suertea izan zuen nahi bada, baina hori ere kudeatzen jakin behar da. Garaile, beraz, horrenbeste urteren ondotik. Bakarra, arerioetako batzuk lehian hasi aurretik zituela mendean harturik. Mugaz bestaldeko bertsolariei atak itxi dizkie 2004ko Nafarroako bertso txapelketak. Urte askotxotako haria eten da. Haria baitzen, ez lokarri sendoa. Xalbadorren garaietatik heldu zena, gero 1983koan txapelketa urteroko eta ibiltari bihurtu zenetik, beti izan dira parte-hartzaile Baxenabarreko bertsolari batzuk, Lapurdikoak gero. Azken urteotan muga ertzekoak ziren. Hori moztu da. Ziurrenik errealitate baten konstatazioa besterik ez da. Hari mehea zen orain hautsi den mugen bi aldeetako harremana, baina luzea, aspalditik zetorrena. Soka sendotzeko modua ekar lezaketen garai hobeak etorri artean iraun ezin, hautsi egin da. Haustea erabaki da. Agian, onenean, mugaz bestaldeko bertsolaritzak berezko dinamika izateko akuilatzaile izanen da haustura. Bestela begiratuta, lurraldetasun printzipio irmoa era pragmatikoan ulertu behararen aitzin lekzioa izan da. Hemen ere bada galdera: Nafar Txapelketa honela antolatuz, ez ote zuen galdu Silveirak Arzallus eta Colina oholztan mendean hartzeko aukera.

Zapore gazi-gozoko oihu kontraesankorra izan zen Silveirarena.

## **Turismo kulturala eta ondarea**

**K**ulturaren Plangintzaren baten kontu batzuk aditu ditugu auzoko erkidegoan, EAEn. Gisa horretako saltsatan sartzeko nekerik ez da hartu Nafarroan. Eztabaidatu beharrik ez dago. Pentsamendu kritikoa? Utikan! Espiritu libreak? Uxa! Autoritatearen lana aisago da, jendea otzanagoa da halakorik ez bada. Hemen goitik —goi agintaritzatik— mugatua datorkigu kulturak hartu behar duen dimentsioaren luze-laburrera.

Kultura eta Turismoa senar-emazte bereiziezin bezala uztarturik dauzkagu Nafarroako Agintaritzaren organigra-

man, disimulurik gabe esanez, funtsean entretenimendua jartzeko eta turistak erakartzeko baliagai, dirubide dela Kultura. Denok ulertzeko moduan esateko, gastronomiaren edo zezenketen pare, edo azken asmazio berri handia, ardoaren bide turistiko, *La ruta del vino* edo antzeko zerbaiten neurrikoa. Upeldegitik arnotegira joan-etorriak antolatu nahian dabilzala.

Baina, ikuspegi murriz horretan jarrita ere, zergatik ez aprobetxatu Iruñeko lurpean agertu diren aztarna arkeologikoak, dauden tokian utzirik, hiriburu honen historiaren museo bihurtzeko? Ikusgarria litzateke, hiri nagusiaren bilakaera antzinako aro eta aldien joana antolatuta, turistak erakartzeko amu bikaina. Denbora joan da Gaztelu Plaza azpikoak bertatik erauzi zituztenetik. Non dira terma erromatarren arrastoak?

Ondarearen zainketa ez da kulturaren kudeatzaileen bertuterik handiena.

Ez lurpean ustekabeen aurkituarena, ez zolaginean eraikiarena. Hauek ez dute errespetu handiagorik merezi.

Euskal Jai pilotaleku zaharra suntsitu dute 2004ko udan. Gazte inkonfomista talde bat zuen erabiltzaile. Bizimodu alternatiboen hazirik ezin du eraman inongo autoritatek. Gaztetxea desegin beharrean zeuden. Hortik kupidarik gabe egotzi dituzte. Hala beharko zuen. Baina behartuak al zeuden Atilaren modura jokatuz dena lautzera? Hiri honen nortasun historikoaren parte zen pilotalekua bera, erremontearen sorlekua. *Zaharkeria* besterik ez, kulturaren kontzeptuak *modernizazio* azkar baten beharra duela sinetsita daudenentzat.

## **Borrokaleku sinbolikoa**

*Baluarte*, auditorio eta kongresuen jauregi arranditsua, *mamotretu beltza* izanagatik mihi gaizto beti gaizki esaka ibili beharra duten horien esanetan, ikuskizun liluragarri apain askoren biltoki bihurtu zaigu. Kultura espektakularra bai, baina nork ukatu behar die iuindarrei *Così fan tutte* moduko opera ederrak ikusteko eskubidea? Adibide

bat besterik ez da, hona intentzios ekarria, misoginiaren kutsua darion artelana emakumeenganako bortizkeriaren aurkako egunaren bezperan emana izan baita Iruñean. *Horrelakoa da bizitza.*

Baluarte horretan jokatu da Antso Handiaren ize-  
nean suertaturiko norgehiagoka, bataila nagusia, postumoa  
hein batean. 2005eko udaberrirako prestatua baitago mega-  
erakusketa ofiziala. Mila urtekoaren ospakizunetan atzera-  
turik ibili dira. Zenbaki borobila iragan berri den 2004 izan  
da. Erbia harrotu eta aurea hartu dutenak beste batzuk  
izan dira: Euskokultur Fundazioa eta beste euskal barrutiko  
erakunde batzuk. Lana gogotik egin dute. Errege horre n  
agindupeko lurak nondik noraino zabaldu ziren erakuste-  
ko ikerlariei langaiak prestatu eta gainerakooi dibulgazio  
tresnak eskaini dizkigute: liburuak, konposizio musikal bat  
eta beste. Irakaspenen artean bat izan da *euskaldunen jauna*  
deitu zuela bere garaikide batek. Ez hori bakarrik, deitura  
hori erabili zuen idazlea nor izan zen (Ibn Haiyan), eta ai-  
pua zein dokumentutan aurki daitekeen zehaztu dute.

Laido handiegia erantzunik gabe uzteko. Badator  
kontraprogramazioa. Hasteko, monumentu bat eraiki dio-  
te Iruñean errege horri Media Luna parkearen ertz batean.  
Txiki gelditu zaie, giza irudiño bat, baina *rex hispanicus*  
izan zela hortxe agerian jarritz. Hori deus gutxi da ordea  
prestatzen ari direnarekin alderatuz. Bi milioi t'erdi euro  
dauzkate moltsan erakusketa bikaina antolatzeke. *Magna  
exposición* bat iragarri dute. Zernahi delarik ere, handi.  
Bazter hauetan eta urrutietakoetan topa ditzaketen Erdi  
Aroko artelanak bildu nahi dituzte. Dauden tokitik hartu  
eta Baluartean erakutsi. Egitasmo faraonikoaren tankera  
hartu diote batzuek. Aralarko baselizatik bertako altxorra,  
erretaula, ateratzen ez uzteko lanerako gertu dago beste  
zenbait. Hortik eramanez gero, sekula itzuliko ez den bel-  
durrez. Badator norgehiagoka, gudu sinbolikoa.

## Lotsa, ahalketa eta beldurra

*Lotsa* hitzak, *ahalkea* adierazteaz gainera, bigarren adiera  
*beldurra* duela gogora ekarri digu 2004 urtean argitara

eman den liburu batek. *Me avergoncé de Diario de Navarra*, Ramon Lapeskera, Pamiela argitaletxean atera da.

Botere handiko egunkari horrek zabaldu dituen ideien azterlan kritiko zorrotza da. Ausardia behar zen, eta egilea ez da kokildu lanari heltzean; bai ordea ahalketu lanaren emaitzaz aurkitu duenarekin. Tabu ukiezinaren profanazioa da egin duena, egunkari horren ahalmena ezaguturik. Ahaltsua baita oso. Zabalkundearen aldetik kontuan hartzekoa da Nafarroa dela bere bizilagun kopuruarekiko egunkarien salmenta indizerik altuena duen herrialdea eta saltzen den hiru egunkaritik bi esandako periodiko horrenak dira. Gizartean eragin handikoa beraz, batetik, baina influentzia handikoa ere bestetik, eragile izan behar dutenengan eta hauen antolamenduetan: noiznahi aditzen dugu alderdi politikoek euren planteamendu, ekimen eta mezuak *Diario*-ren eskakizunetara egokitzeko ahaleginetan ibiltzen direla. *Diario*-k gustuko dituen parametroetan jokatu beharra dute, ea honen onespena lortzen duten, ea ongi tratatzen dituen. Bestela errukirik gabeko tratamendua hartuko dutela jakinik. Nafar zintzo nor den erabakitzeke adina indarra duenez, baldintzatzaile beldurgarria da. Hedabide horren beldurra baita egungo eta hemengo zeinuetako bat. Garesti ordaintzen da hemen gaizto etiketaren estigma. Handia egin du, beraz, Lapeskerak tabu horri helduz.

Egunkariaren ibilaldi historiko luzeari errepasso sistematikoa eman dio. Ezer asmatu gabe, zehatz, aipuz aipu, aurkitu duenarekin. Topatu duena, besteak beste, autoritarismoaren eta ordenaren defendatzaile handia, diktadurak demokrazia baino maiteago izan dituen; Errepublikaren aurka jokatu zuena ez bakarrik idatziz, baizik eta zuzendaritzatik konspirazioa antolatuz, buruzagi faxistekin harremanak eginez; altxamenduaren hasierako uneetan rol erabakigarria izateaz gainera, gero errepresio latzaren bultzatzailea; Francoren aldeko bakarrik ez, Mussoliniren miresle eta Hitler beraren goresle izan zena. Hori guztia eta gehiago. Iragana da, bai, baina periodiko horrek ez du damurik erakutsi, ez barkamenik eskatu, ez zorrik ordaindu Ramon Lapeskerak gogoratu duenez.

Jokatzeko modu bat ere, ezaugarri iraunkor moduan, erabili eta zabaldu duen ikuskera manikeoa da. Sailak aise bereizten ditu marra banatzaile batekin: nafar zintzoak, bere ildokoak noski; bestaldean bazter nahastaileak, partikularzki *euzkadianoak* harturik mamu beltz moduan.

Periodiko hori da Victor Praderak mamituriko paktismoaren doktrina eta mitoa propagatu, eta nabarrismo diferentziazionistaren asmazioa hedatu duena. Hein handi batean *Diario*-k hedaturikoaren ideien kume —eta gati— da egungo Nafarroa.

Honegatik guztiagatik, funtsezko liburua da hemen zer gertatzen den ulertzeko. Beharbada, aurtengo gertakari kultural garrantzitsuenetako bat. Inpaktu periodistikoa aldiz, diskretua izan da, hain zuzen hedabideak eta kazetariak lotsaren ekialdeko adieraren menpe baitaude. Tabu.

Lapeskera ez da gaur eguneraino iritsi bere azterketan. Egin izan balu, perla bitxi sintomatiko ederrak aurkituko zituen: adibidez, oinazearen laudorioa, nork bere burua mortifikatzeko zaletasunaren justifikazioa, zilizioaren erabileraren apologia bat, egunean ordubetez gorputza arantzaz hilduratzeko, edo bizkarrari zigor ukaldi batzuk ematea *norbanakotasunari uko egiteko jarduera* onetsiz (*Diario de Navarra*, 2004-11-17, 93. orrialdean). *Penitentia agite*, Lapeskera!

Kazetaritzaz ari garelarik, urtea joan da, eta hor gelditu da albistea: 2004an ez digute euskarazko egunkaria itxi. Esker on handi bat zuei, jaun epaile haserrekor baina aurten barkabera zain zareten horiei!☞



## Pantxoa Etchegoin

Gaingiroki aipatuko ditut iparraldean euskararen alde eta euskal kulturaren inguruan eramanak izan diren ekintza batzuk, nola elkarteen eskutik, hala Euskal kultur erakundeak bultzaturik.

### **Euskara bizi publikoan**

Iparaldean, euskararen biziberritzeko bi behar edo premia nagusi ikus daitezke: hizkuntza politika eta euskal gogo.

Alabaina, legeak finka ditzake arauak eta diru laguntzak, adibidez irakaskuntzari buruz, edo euskararen administrazioetan sarrarazteko. Halaber, hedabideen eta kultura gaien sostengatzeko. Baina bertze gauza anitz bada legeak arautzen ez duena, hala nola familia transmisioa, euskararen erabilera eguneroko bizian, nortasun kolektiboa, etabar.

Ondorioz, euskararen ofizialtasun baitezpadakoarekin batera, belaunaldiarteko jarraipenaren segutzeko, beti beharrezkoa izanen da euskalgintza, elkarteen eta artisten lan komuna.

Iparaldean, urratsez urrats goaz euskararen alorrean, urteetan daramazkigun gorabeherekin. Alde batetik, berri bozgarria, ofizialki botere publikoek euskararen aldeko politika eramanen duen egitura ofiziala sortu baitute uda amaieran ('Office Public Euskara' deitua), baina beste aldetik arazo larriak agertu dira ikasturte sartze honetan, hiru erakaskuntza sareetan —ikastolak, eskola pribatu eta publiko elebidunak— oroz gainetik erakasle postuak murriztu baitituzte.

Egitura publiko hori lanean hasia da, eta hemendik laster erabaki politikoak hartuko ditu euskararen alde, no-

la erakaskuntzan, hala bizi sozialean, eta araberako dirutza banatuko.

Erran gabe doa lan egin beharko duela partaidetzan, egunero euskalgintzaren sailetan diharduten elkarteekin. Haatik, orain, hitzatarik laster obretara pasatu beharko da, euskararen egoera ikusirik, behar gorriak baitira.

Gure aldetik, Euskal kultur erakundeko euskara zerbitzuak hiru alorretan lan egin du urte honetan: eskolatan edo eskolatik kanpo, euskarazko animazioak alhan ezarri ditu, toki publikoetan euskararen sarrarazteko ekintzak bultzatu, eta azkenik hainbat itzulpen tekniko egin ditu, oroz gainera herriko etxeentzat eta administrazioentzat.

Gertakari bat behar balitz lehenetsi, aipa nezake urte hastapenean izenpetu dugun hitzarmen garrantzitsua Baionako ospitalearekin. Bi mila langilez goiti duen erakunde honek obra handiak abiatuak ditu hiru urtera, eta barnean daukan «Ospitalean euskaraz» batzordearekin eskuz esku lan eginez, lortu dugu kanpoko iragarkiak euskaraz ere izan daitezen, eta horri datxikola, hainbat kultura ekintza (kantutak, musikak, mintzaldiak...) abian ezarriko ditugu ospitaleko artatze zerbitzu batzuetan, hala nola pediatrian.

Espero dugu horrelako bertze anitz ekintza bultzatuak izanen direla, ondoko urteetan, hain zuzen Euskara Erakunde Publiko horrek bere eginbeharretan baitu euskararen sustapena bizi sozialean.

## **Nondik gatoz, nora goaz?**

«Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik», dio JosAnton Artzek aspaldiko eleder batean. Hitz hauek harrointzat hartuz, Ezpeletako, Mauleko, Amikuzeko musika eskolek ikusgarri berezi bat aurkeztu dute azaro honetan, *Itumi zaharretik* izenekoa. Hogeita bat trikitilari gaztek muntatu dute obra hau, Patrick Larralde musikari erakasleak kudeaturik. Euskarak badu bere tokia taula gainean, Euskal Herriko eta kanpoko bertze hizkuntza eta musikek ere, baina ikusgarriaren funtsezko gogoeta da: zer bilakatzen eta zer bilaka-

tuko da euskara, munduko kulturen artean?

Horrelako galdera zerbait bada ere, dudarik gabe, Oztibarreko zortzi herrietako aktoreek antzeztu eta Mattin Irigoienek idatzi *West Ibarre Side Story* izeneko obran.

Badu zenbait urte orain, adierazpen artistiko desberdinak elkartuz (dantza, kantua, bertsoa, antzerkia, bideoa...), neuri bertsoa ikusgarriak antolatzen direla iparraldean, *Euskal Spiritu*, *Zamaltzain* edo *Matalas* bezalakoak heldu zaizkidalarik gogora.

Hemen ere, goretzi behar dira ibar horretako 140 dantzari, jokalaria, eta laguntzaile guztiak, nahikundez eta indarrez, gai izan baitira ikusgarri eder baten apailatzeko. Froga bat gehiago jendeek, bizikidetasunean, euskal kultura bizi nahi dutela hurbiletik, ikusgarrian parte hartuz.

Ikuskizuna Bunuztar Xoriak dantza taldearen 30. urteurrenaren kariatara pentsatu da baina ber denboran omore eta funts anitzekin; Mattin Irigoienek norberak bizitzen duen edo ez duen euskaltasuna du eztabaidan ezartzen, eta, oro har, euskal kulturak jasan eta jasaten duen folkloriazioa du salatzen, erdi-erdan ezarritik ikusliarra bera.

Azkenik, bi hitz erran nahi nituzke Antso Handia pastoralaz, urtero bezala udan aurkeztua izan dena Zuberoako hiri nagusian, Maulen, baina ere Irunen eta Amurion.

Jean Louis Davantek idatzi pastoral honek arrakasta handia ukan du, ikusgarrira hurbildu den jende ostean gain, oholtzaratu diren jokalaria molde ederrez aritu baitira. Gehitu nahi nuke ere esku-programa guziz aberatsa zela, 1004 eta 1035 urteen artean Nafarroako Errege izandakoaren biziaren joan-jinen hobeki ezagutzeko. Urhentzeko, pastoraletan nahiko berria den egitate bat azpimarratu nahi dut: antolatzaileek proposatu dute pastoral honen diru etekinak euskararen eta euskal kulturaren alde diharduten elkarteei banatzea. Biba xiberotarrak!

## **Iparra galdu gabe...**

**B**adu orain urte bat Euskal kultur erakundeak hitzarmen bat izenpetu duela Eusko Jaurlaritzarekin, hain zuzen kul-



tura trukaketak areagotzeko, elkartean, artisten eta erakundeen eskutik, eta nolazpait gure buruetan daukagun muga ezabatzeko, edo bederen ematzeko.

Kari horretara, hainbat ekitaldi desberdinen partaide izan gara, adibidez Donostiako Koldo Mitxelena zentroan, Debagoieneko zortzi herritan, Andoainen, Bermeon, ahantzi gabe Getxoko hiria, non ere iparraldeko kantari, musikari, dantzari, idazle, politikari eta sukaldaritzan ari direnentzat, bi aste antolatu dituzten, 'Iparra galdu gabe' izenburuarekin.

Halaber, iparraldeko artisten, eta konpainia profesional, edo erdi-profesionalen hobeki ezagutzeko asmoarekin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ekitaldiak alhan ezarri ditu hegoaldeko ikusgarri-gela batzuetan. Tokia, Traboules eta Petit Théâtre de Pain antzerki taldeek, Elirale dantza konpainiak eta Koldo Amestoy kontalariak parte hartu dute, eta zenbait Eusko Jaurlaritzak sostengatzen duen dantza, musika eta antzerki sare publikoan sartuko dira.

## **Euskal kantua ohoretan Parisen**

**E**uskal kantua entzungai izan da hilabete batez, urian, Parisko toki desberdinetan. Gertakari honek bozten gaitu eta, lehen-lehenik, Parisko Euskal Etxea eskertu nahi nuke. Alabaina, oso garrantzitsua da euskal kantuaren gozaraztea eta ezagutaraztea, nola Parisko euskaldunei hala mundu zabaletik hiri nagusira datorren publiko zabal bati.

«Kantuketan» erakusketa ibiltaria Saint Merri elizan ezarria izan da, baina horri datxikola, hainbat animazio desberdin antolatu dugu, hain zuzen erakusteko euskal kantuak eta musikak bizirik dirautela, eta berritzen direla, artistei esker.

Bertzalde, Euskal Herriko kantari eta musikariak, bertzeak bertze, Parisko ikusgarri-gela famatu zenbaitetan aritu dira, hala nola Glazart eta Le Divan du monde deitutakoetan, eta horrek ondorio onak ekar ditzake, lehenik partaidetza berriak indartzeko, eta geroari begira, euskal kulturaren hedapena Parisen hobeki finkatzeko.

Azkenik, iruditzen zait «Kantuketan» Parisen ezarriz, parada ezinago hobea dela euskal kulturaren hobeki ezagutarazteko eta Euskal Herriaren irudi baikor baten emateko. Gertakari hau izan dadila ere Parisko Euskal Etxearen onetan, geroan ere gure herritarrek babesleku goxo eta euskaldun bat ukan dezaten Frantziako hiri nagusira datozenean.

## **BatekMila egitasmo berria**

**E**uskal kulturaren bizitasuna erakutsi, bere dimentsio unibertsala agerian eman eta publiko berriak gurutzarazi: Euskal kultur erakundeak segitu nahi du Kantuketan programarekin hasi bidea, «BatekMila» deitu kultura kontzeptu berri bat abian ezarriz.

Bizpahiru urteko programa honen bitartez, alde batek euskal kultura eta oroz gainetik euskara baloratu nahi dugu, eta bestetik publiko berriengana hurbildu, bertzeak bertze sorkuntzaren bitartez. Halaber, frogatu nahi dugu unibertsala berezitasun guziez hazten dela, eta aitzitik.

Konkretuki, 2005 urte amaierarako, hitza, dantza eta musikaren inguruko ikusgarri berezi bat obratuko dugu artista profesionalekin, halaber euskara espazio publikoetan sarrarazteko ekintzak, edo haurrentzat eskolan edo eskolatik kanpoko euskarazko animazioak, ahantzi gabe orain bertan prestatzen ari garen internet atari berria, lau hizkuntzatan. Azkenik, Kantuketan bezalako erakusketa ibiltari berri bati buruz lanean hasiak gara.

Baina horrelako programa baten abiarazteko, garrantzitsua da ere iparraldeko egoera sozio-kulturalaren berri ukaitea. Alabaina, zer dakigu xuxen gaur Euskal Herri honetan gurutzatzen diren nortasun desberdinez? Euskaldunak direnek nola sentitzen dute beren burua, nola bizi dute beren euskaltasuna? Euskaldunak ez direnek zernolako kultura praktikak dituzte eta nolako pertzepzioa dute hemengo hizkuntzaz eta kulturaz? Euskal kultur erakundeak inkesta bat alhan ezarri du duela guti, galdera hauei buruz lehen iritzi batzuen eskuratzeko. Iparraldean, 1.600 jende galdetuak izanen dira. Gehitu behar dut Eus-

ko Ikaskuntzaren partaliertasunari esker, inkesta bera Euskal Herri osoan antolatua izan dela.

Emaitzak 2005eko larrazkenean zabalduak izanen dira. Hortik lekora, erakaspenak atera beharko ditugu geroari begira, bai erakundeek, bai elkarteek, ahal bezain politika eraginkor baten finkatzeko, euskal kulturak eremu zabalena ukan dezan toki guzietan. ¶



## Tere Irastortza

### Liburuaren alde

2003ko azaroan, Gernikan bildu ginen, «Memoria eta Historia» hizpide, Asociación d'Escriptors en Llengua Catalana (AELC), Asociación de Escritores en Língua Galega (AELG) eta Euskal Idazleen Elkarte (EIE).

Urtez urte gai berriak jorratuz eta garai berriak urratuz elkartzen da Galeusca, eta orduko hartan elkarte bakoitzetik 15 autore hautatzea erabaki zen, orain Pamiela-rekin argitaratu dugun antologia egiteko (*Antoloxia poética. Poesia antologia. Antologia poética (1990-2003)*, Iruñea, Pamiela, 2004).

Liburu honen alde esan dezadan, Galeusca hartan erabaki bezala, Elkarte bakoitzak Irakurle Batzorde bat eratu zuela —gure kasuan bost lagunez osatua— eta euskaldunak hamabost urteko epean argitaratutako 235 poesia liburuen artean hautatuak izan zirela.

Inolaz ere, antologia honetan bildutako euskal egile gehienek poesia landu dute, ia nagusiki. Horregatixe, hain zuzen ere, askotan idazle hauetako asko ez dira, poesia zaleen ezagun izanagatik, euskal literaturaren zaleak direnentzat oso ezagun.

Berdenboran, esan dezadan, antologia honetan dau den guztiak beharrezkoak direla 1990-2003 urteetan bere lana gauzatu dutenen eta gauzatzen jarraitzen dutenen panorama aurkezteko. Are eta gehiago, beste hainbat antologietan agertu ez den anitzek ere egina baitu bere bidea, isil-isila, ohiko kritiken artera iristen ez den liburu-mota landuz, poesia landuz; ohiko aldarrikapen pertsonaletatik urrun samar, askotan.

Eta liburu honen aurka, esan dezadan, hamabost urteko ibilbidea markatzeko hamabost izen hautatzeak beste

hamaika kanpoan uztea ekarri duela; horien artean, urte hauetan argitaratu arren, beraien lan gehienak 1990aren aurretik ibilbide luzea egin zeukatenenak, edo hamarkada hauetan hasi eta oraindik beraien ibilbidean urrats handiak emango dituzten gazteagoenak. Izan ere, poesia ere ez da, jada, gazteek euskal literaturan duten sarbide bakarra.

Antologia honetan sartutakoak eta sartu gabeak, batzuek eta besteek egin dute ibilbidea eta egiten ari dira ibilbide... eta inork jakin nahi badu zein den euskal poesiarren osasuna ondo harro esan dezakegu: oso ona da, eta hobe litzateke irakurle gehiagotara iritsiko bagina.

## Ekimen bat den liburu baten alde

*Poesia antologia (1900-2003)* liburua ekimen batean txertatua dator. Liburuaren aurkezpena Ourensen egin zen, baina baita, aurretik, Oñatin ere, *Gu eta gure hizkuntzak* kultura ekitaldien artean, zeinetan Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko poetak, musikariak, dantzariak eta gastronomia bildu zituen *Laixan* elkarteak, hainbat erakunde eta enpresen laguntzarekin.

Arrasto batean sortutako liburua da inolaz. Alde bate-tik, 2002. urtean «*Mugak hautsi*» leloarekin Mallorcan, Balear Uharteetako Gobernu-ko Kultura Sailak Balearretan katalaneraz sortutako literatura atzerriratzeko urratsak aztertuta ekin baitzion EIEk urte hauetako ibilbideari.

Harrez gero, Euskal Liburugintza Atzerriratzeko Plan-gintza bultzatzeko ibilbideari eutsi diogu, batzuetan gure gisara eta besteetan beste batzuekin elkarlanean. Hala, 2003 urteko Galeuscan, Unescoren bidez euskal liburuak atzerriratzeko ireki zitezkeen bideak aztertze-ko bilera antolatu zuen EIEk. 2004an EIEk sinatua du Unescorekin hitzarmena eta 2005erako hiru euskal liburu argitaratzeko esku artean dauzkan baliabideak jarriko ditu.

Bitarte horretan, Galeuscako antologia bezala, argita-ratu da Estatu Batuetan Euskal Idazleen Elkartearen la-guntzarekin, eta Reyes Lazarok koordinatuta, bost unibert-sitate artean argitara ematen den *Metamorphoses* aldizka-

rian euskal poesiari eskaini zaion monografikoa. *Words and Worlds. Hitzak eta Biz(H)itzak* izenbunpean apailatutako monografikoa, literatur itzulpenean diharduten bost fakultateren artean sortutako aldizkaria da (Massachussetseko Unibertsitatea, Smith College, Amherst College, Hampshire College eta Mt. Holyoke College). *Metamorphoses* aldizkariak ale bikoitza atera du, besteak beste, euskal kulturaren nortasuna ezagutarazteko. Monografiko horretan beste hainbat euskal poeten testuak agertzen dira euskara eta ingelesera itzulirik, eta CD batean, gainera, entzun daitezke horietako hainbat —esate batera Bernardo Atxagaren *Written in USA* poema bikaina eta Mikel Laboaren musika—.

Bitarte horretan, Euskal Herria eta Kataluniako idazleen arteko harremanak estutzen ari dira. 2003 urtean Barzelonan eta Tarragonan aritu dira lau poeta euskaldun eta lau poeta katalandar, eta aurten Euskal Herrian *Veus Paral.leles, Pirineoak-Pirineus, d'una riba a l'altra* izeneko poesia-emanaldiak. Gainera, poesia antologia elebiduna argitaratu da ekintza horren harira.

Euskal Herria eta Kataluniako idazleen artean ere izan zen Pirinioetan, oraingoan, beste elkarteratzerik. Hizkuntza bakoitzean diharduten hamarna idazle elkartu dira 2004ko udan, eta 2005ean ospatuko da *Hizpide: Idazleen topaketak Xaretan* berriro. Eta Xaretako herrietan, alegia, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdin ikusiaz eta biziaz beste liburu bat argitaratuko da, euskal idazle eta idazle katalandarren artean, iaz Vall de Bou-n egondakoen lanekin argitaratzeaz den beste baten segida, oraingoa.

Goian aipatutako ekintza horiekin, harremanek maila pertsonalean eskain dezaketen aberastasunaz gain, EIEk idatzizko euskarriaren aldeko eta iraupena bermatzen duten beste euskarrien aldeko apustu garbia egiten du. Euskal Herrian idazten denaren berri munduan zabaltzea euskal kulturaren lekukotasuna ematea baita. Euskaldunak mintzagai eta hizpide izatetik, sortzen ari garen kulturaren esatari izatera jauzi egin behar dugulakoan.

Ekintza horiek eta beste batzuk antolatzeko, EIEk elkarlanerako eta elkartukerako apustua berretsi du: herri erakunde, elkarte, enpresa eta norbanakoekin.

Alde horretatik, ezin ahaztu aurrera begira ere horrelako urratsak emateko abagune egokia eskaintzen duela Galeuscak. Izan ere, 2004an Ourensen elkartu gara, eta datorren urterako beste horrenbeste gauzatu nahi genuke ipuingintzarekin, Galeuscako nazioen kulturetan hama-bost urteotan osatu den ipuingintzarekin.

Ezin ahaztu, alde horretatik, baita ere, EIE bere webgunerako sortzen ari den euskal idazleen laginen bilduma, euskaraz eta ingelesez. Ezin ahaztu, aurtengo Galeuscan ere, *Poesia antologia*-ko testuak ingelesera itzuliko direla eta web orrian jarri, gutxienez.

## Galeuscaren alde

Liburuaren eta gure literatura atzeriratzearen alde arituz, Galeuscaren alde mintzatu nahi dut. Hainbeste aldiz entzun baitugu, izan ere, gure artean, Galeuscaren zergatiari buruzko galdera.

Atzera bideetan murgil egin gabe, 1933raino jo edota demokrazia garaiko urrats literario guztiez aritu gabe, etorkizunean, zertarakoan metatu nahi ditut Galeuscaren aldeko arrazoi gehienak. Goian, azken urteetan hartutako erabakien bidez gure elkarteak bere egitekoen artean Galeuscako hausnarketak nola txertatu dituen erakusten saiatu naiz, gutxi asko. Garbi dago, Galeuscar a biltzen garen elkarteok, urtean behin hitz egiteaz harantzago eramango gaituzten bideak jorratzeko abaguneak sortu nahi ditugula.

Eta hala ere, ekintza andana honekin batera —eta ziu-rrerarik aurretik— bada hurrengo Galeusca-etara joateko adinako beste arrazoirik.

1. *Elkar ez ezagutzera garamatzaten konplexu baztertzailerik apurtzera, aumen-aumena.* Elkarren berri izan eta elkar ez zapuztearena ez da gutxienekoa. Eta alde honetatik esan beharrean nago, Espainiako idazleen artean *Egunkaria*-ren itxierarekin elkartasuna eta laguntza Galeuscaren

bidetik bakarrik jaso genuela, ia-ia (Madrilgo hainbaten kasua salbuetsiz). Azpimarratu egin nahi dut Galeuscako elkarretako kideen laguntza behar-beharrezkoa izan zela eta dela mono-kulturaren hatzaparretan itota ez geratzeko. Eta Galeuscaren bidez egin genuela Kataluniako Pen Clubaren ezagutza, eta haiei esker bideratu dugula Euskal Herikoa, azken urteetan desagertuta zegoena.

Elkarrekiko interesak indartu egiten gaitu. Euskal literaturaren berri literatura galiziar eta katalandarrarekin batera ematea, orain alde guztietan eskatzen den sinergia bada jada gure artean, eta indartu egiten gaitu sinergia horrek, eta indartsuago egin gaitzake.

2. *Bakarka egin ezin duguna, elkarrekin egitera.* Jauzi egitekotan egin dezagun urrutiago, esaten dute askok. Itzultzekotan gartzelaniara, ingelesera... Askori entzun diot. Beti urrutiago eta beti zailagoa da, ia beti, besteentzat pentsatzen den eginkizuna. Eta neuri ez zait axola Marteraino egiten badugu ere. Baina ez dezagun ahaztu testuak itzultzen direnean ez direla hizkuntza batetik bestera bakarrik itzultzen, baizik eta kultura batetik bestera ere, eta, euskal testuak jasotzeko, beste kulturek euskal kulturarekiko mespretxua eta erdeinua ez den beste irrikirik ere behar dutela.

Ondo da maite ez gaituztenak ez gorrotatzea, baina ergelkeria galanta da maite gaituztenak gorrotatzea. Eta, hain zuzen ere, horixe dut, askotan, Galeusca bezala hainbat elkarteratzeen aurka. Beti besteen edo beste norbaiten aurka aritzeko aitzakia —bilgune aproposenak bilakatzen direla—.

Gai honetan uste dut, iaierik bada inon, Euskal Herrian aurki daitezkeela idazlerik iaioenak. Beti urrutiko intxaurrak abonatzen aurren-puntakoak: *lumero uno*, esaten duguna. Antza denez, euskal literaturan, norbere liburua edo norbere argitaletzekoren bat ez bada, onik aurkitzen ez dakiten idazleak izan daitezke punta-puntako bakarrak, alegia, erdal literaturak bakarrik ase ditzaketanak. Hori bai, beti euskal literaturan falta denaz, egiten ez denaz beste inor baino ozenkiago mintzatzeko prest. Horiek balira bezala idazle argiaren ezaugarri bipilenak!



Alde horretatik ez nau harritzen batere gutaz interesa duenari barrez eta burlaz erantzutea, eta gutaz interes izpirik ez duenaren atean, joka eta joka aritzeko dagoen joera aparta. Eta horixe da —bakarren bat jorratzera ez bada— zertara ez dakitela biltzen diren bilkura askoren amaiera. Monologatzaileek elkarrizketa dute amets, sarri, nahiz eta esnaeran beste monologatzaile gorrekin aritu ondoren, isolamendu handi goa baizik aurkitu ez.

Baina elkarte guztiek —eta EIEk ere bai, noski— badu bere estatutuetan agertzen ez den arren bizi arazten duen helburu bat: bakarka egin ezin dena elkarrekin egiteko ahaleginak bultzatzea. Elkarte batekin zerbaiten alde aritzeak badu bakarka egin ez daitekeen zerbait: besteen posizioak eta iritziak kontuan hartuta jardutea. Eta badut hori, printzipioz, elkarlan guztien alde.

Eta indar hori besteek sortzen eta eragiten dutenaz hitz egiteko baino gehiago norberak egin behar duenaz kezkatzeko, norbere egitekoetara ekartzeko erabili behar da. Beasaingo Ikastolan kilometroetan aldarrikatzen genuena elkarlanean mamitu baitaiteke: Izateko sortu, sortzeko izan.

Galeuscatik Massachussets-era, beraz, *Metamorphoses* aldizkariaren azken alearekin batera, eta, nola ez, Kulturaren Euskal Planetik Euskal Kulturaren Planera.

## **Kulturaren Euskal Planetik Euskal Kulturaren Planera**

**B**este hainbat planekin edo beste hainbat planen babesean, Euskal Erkidegoko Kultura Sailak Kulturaren euskal planaren berri eman du, eta komunikabideetan izan du, behintzat, oihartzunik.

Plan honek badu zerbait bere alde: Plan bat egiteko erabakia. Horrekin batera, plan hori adosteko borondatea. Horrekin batera, planarekin Kulturarako diru gehiago lortzeko nahia.

Baina bada zerbait, bere gisara, Euskal Erkidegoko Kultura Sailak egin ezin duena. Euskal Kulturaren Plana

planteatu behar dugunak euskal kulturari dihardugun elkarrekin gara, euskararen lurraldeetan, euskararen lurraldeen administrazioetan; Euskal Herrian dihardugun elkarrekin, bazkunak, kooperatibak, enpresak, hiritarrak. Kulturaren euskal plana euskal kulturaren plana izatera iritsi dadin, geuk ere erabaki egin behar dugu hogeita bost urte barru gaur ezinbestekoa dena eginda egon dadin zein urrats eman behar dugun. Kulturaren Euskal Plana Euskal Kulturaren Plana izan dadin, elkarrekin adostu behar dugu urrutira iristeko zer egin behar dugun eta zer egin behar ez dugun. Kulturaren Euskal Plana Euskal Kulturaren Plana izan dadin, diru gehiago lortu behar dugu, beti bezala, handik eta hemendik; eskean batzuetan eta gure irabazpideak gure kulturari berriz eskainiz, gehienetan; bermeak bilduz, arriskuak neurtuz, beldur eta konplexuak alboratuz.

Eta horretarako, entseiarrean, aspaldi proposatu zuen bidea Axularrek: utz dezagun ahal dugun lanik gutxiena Gerorako; *gero* esan zuenak, *bego* esan baitzuen. ♪



## Ritxi Lizartza

2004. urtean kulturaren sektorean, urtero izaten diren gorabeheretz gain, gertatzen denaren aurrean adi egoteko hainbat zantzu agertu dira. Badirudi gogoeta garaia dela, etorkizunean nola jokatu erabakitzeko unea. Eguneroko gurpilari bere kabuz biraka ibiltzen ez uzteko unea alegia. Ekimen publikoak eta kulturagintzak berak sortutako ekimenak bat etorri dira diagnosiari begiratzeko unean. Nola gauden jakin nahi dugu, gure kulturagintzaren osasuna zein egoeratan dagoen, euskararen beraren egoera zein den... Horren lekuko da Eusko Jaurlaritzak 2001etik bultzatuta amaitu berri duten Kulturaren Euskal Plana.

Ildo beretik, Euskararen Aholku Batzordeak egindako lana. Euskararen kalitatea izeneko proiektua landu dute hiru adituk, euskararen beraren egoera eta etorkizunerako ekimenak zehazteko.

Kulturagintzak ere proposatu ditu hainbat ekimen. Kazetariak ere beren lehen kongresua egin dute aurtan, eta, esandakoaren arabera, gaur egun kazetaritza zein egoeratan dagoen jakiteko balio izan du. Abiapuntu egokia hurrengo kongresuetan prentsa mailan sortzen diren ekimenak eta iritziak aztertu eta sektorearen kalitate kontrola urtero egiteko. Zuzentzaileek berek ere itzultzaileen itzaletik atera eta beren jardunaldiak antolatu zituzten lehendabiziko aldiz.

Denen ahotan helburu bera, nor bere sektoretik, nor bere arloan, euskal kultura eta euskararen egoera definitu eta normalizatzea. Eta horretarako, ezinbestekoa, nire us-tez, militantismoaren eta borondate onaren garaiari behin-goz amaiera eman eta kulturagintza profesional bihurtzea.

Batzuk eta besteak biltzen ditu nork bere alorrean espezialdu, sakondu eta trebatu beharrak, kulturaren eta euskararen alorrean orokortasunak utzi eta sektore bakoitza jo-

rratu beharrak. Alde horretatik, urrats kualitatibo handia da kulturaren diagnostia egin eta zeintzuk diren beharrak eta jarraitu beharreko bideak definitzea, diglosia egoerari aurre egiteko. Euskararen kasuan, normalizazioranzko urrats handia da euskararen erabilerak arloz arlo dituen beharrak lantzea: estandarerako proposamena, ikus-entzunezkoetarako euskara eredia, gazte-hizkera, erregistroak...

Gogoeta garaia, esan dugun moduan, eta, gogoetarekin batera, erakunde publikoak eta kulturagintzako sektoreak aspaldiko partez elkarlanean aritzeko aukera, goitik beharakoak ez diren planen bidez. Beraz, eta hutsuneak egongo badira ere, itxaropenerako garaia dela esan daiteke.

Baina, hala ere, indarguneen eta ahulguneen artean, pozen eta negarren artean, eguneroko errealitateak erakusten digu oso urrun gaudela oraindik euskalgintza eta kulturagintza egoera onean egotetik.

Hortxe *Euskaldunon Egunkaria*-ren bidegabekeriaren fruituak, 2004. urtea amaitu baino lehen epaiketarako deia jasotzera joan behar izan baitute euskarazko lehen egunkariaren zazpi ordezkariak. Kezkarako beste arrazoi bat *Asteon* aldizkariaren itxiera. Eta, bide beretik, euskarazko antzerkigintzaren eta ikus-entzunezkoen egoera.

Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, euskal kulturagintzaren egoeraren berri izateko lan mardula egin du hiru urtetan Kulturaren Euskal Kontseiluak. Emaitza Kulturaren Euskal Plana izan da.

Batetik, euskal kulturaren definizioa ematea izan da helburua. Zer den euskal kultura, zein harreman dagoen euskal kulturaren eta euskararen artean, hizkuntzaren ikuspegia kulturaren ikuspegiari sartu behar den...

Bestalde, Euskal Herrian egiten den kulturaren egoeraren eta aurrerantzean jarraitu beharreko ildoen berri eman da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, Kulturaren Euskal Kontseiluak hiru urtez landu du euskal kulturaren egoera eta 2015. urte bitarteko plangintza proposatu du, euskal kulturak sektorez sektore etorkizuna izan dezan. 300 adituk hartu dute parte eta 120 neurri zehaztu dira.

Badirodi bi ekimen horiei beste bat gehitu beharko litzaiekeela: euskal kulturaren kontsumitzailea bilduko duen multzoa definitu, hezi eta trebatzea, euskaraz ere kontsumi dezan, euskal kulturari inberti dezan.

Ekimen eta neurri ugari epe laburrean, urtez urte jorratu beharreko prozesuan. Eta, horrekin batera, erakunde publikoen konpromisoa elkarlanean aritu eta inbertitu beharreko diru-kopurua handituz joan dadin.

Esan bezala, hurrengo urtetik aurrera aztertu beharreko proiektu erraldoia da hau, eta urtez urte nola gauzatu den adi ikusi beharko dugu.

Azken egun hauetan jakin dugu epaileak *Euskaldunon Egunkaria*-ren arduradun izandako zortzi lagun auzipetuko dituela, eta zortzi eta hamalau urteko kartzela-zigorra jasotzeko arriskua dutela. *Egin* egunkaria ixtea erabaki zutenean, ez zuten batere frogarik behar izan horietarako, eta denborak erakutsi du inork ez duela froga bakarria erabaki hori hartzeko. Zazpi urteko kartzelaldi prebentiboa egin du *Egin*-ek, eta ez epaiketarik, ez ezer. Egin Irratia ere itxi zuten. *Kale Gorria* ere bai. Eta denak bide beretik.

*Euskaldunon Egunkaria*-ren kasuan, batere arazoirik gabe urte eta erdi kartzelan eman zuen Iñaki Uria zorionez (Xabier Alegriari egotzitakoak ere ezin ahaztuko ditugu, akusazio guztiek halako oinarria edukita) kalera atera, eta, handik oso denbora gutxira, ordea, Juan del Olmo epaileak egunkariari preso prebentiboaren etiketa kendu eta arduradunak auzipetzea erabaki du.

Zortzi lagun, horien artean Joxemi Zumalabe zena, orain hamaika urte hila. Eta Martin Ugalde epaitua izatek libre gelditu da. Epaileari lotsa emango zion, nonbait, hil berria izan eta haren heriotza arte bere kontu korronte guztiak blokeatuta izateak. Batez ere halako pertsona baten itzal luzea, gizatasuna eta inguruan sortu duen errespetua neurtzeko gai izan bada. Gaiztakeria horrek erakusten du epailearen eta epai honen alderik ilunena, Martin oraindik bizirik balego, bere egoera ez baitzen batere aldatuko. Egunkari bat preso prebentibo bihurtzeak komunikabidearen heriotza dakar. Eta oso larria da. Zuzenbide Es-

tatu batean onartezina. Baina larriagoa epaileak halako malizia eta gaiztakeria erakutsi izana. Martin Ugalde bezala, ordea, preso joateko arriskua duten zazpi lagunen gizatasuna ez da zalantzan jartzeko modukoa, eta egin duten bekatu bakarra euskal kulturaren aldeko lanean murgilduta bizitzea izan da.

Kartzela jasateko arriskua duten zazpi lagunen zorigaitzerako, epai justua izateko konfiantzarik batere ez izatea.

Haritzekoa, ordea, *Euskaldunon Egunkaria* egiten zuen taldeari berari beste egunkari bat *sortzen uztea*, eta bizi osoko debeku hori ez jartzea, talde politiko bati egin dioten moduan. Baina oraindik ere handienak ikusteko gaudelakoan nago.

Bere txarrean, ordea, pozgarriena ordura arte bakoitza bere bidetik ibilitako euskalgintzan dihardutenak eta euskal erakundeak halako erabakiaren aurrean bat egitea eta *Euskaldunon Egunkaria*-k euskal erakunde publiko guztien babesa jaso izana. Hala izan dadila batere eskubiderik gabe itxiak izan diren beste komunikabide guztien kasuan.

Iaz poz handia sentitu genuen *Asteon* bezalako proiektu bat kaleratu zutelako. Ordura arte euskarazko aldizkariarentzat arrotz zen mundu horretara jauzi egitea erronka handia zen, eta hasiera guztiek erakusten dituzten gorabeherekin, jarritako helburuak betetzen ari zela esan daiteke. Topagunearen eskutik sortua, tamalez *Asteon*-ek hilabete gutxiko ibilbidea egin zuen kalean, astekari izateko sortu zen proiektuaren hamar ale bakarrik kaleratuta. Gaizki egindako kalkuluak, diru laguntzak uste bezainbestekoak ez izatea, publizitate mailan eskas ibiltzea, harrera behar baino hotzagoa jasotzea... Arrazoi asko egongo dira itxiera horren azpian, eta, beste behin, aukera bikaina galdu da euskaraz egiten den kazetaritzak beste esparru garrantzitsu bat betetzeko. Arduradunek adierazi zuten, itxiera baino gehiago geldialdia proposatu zuten, eta zinez poztuko ginateke iazko Durangoko azokan lehendabizikoz argitaratu zen aldizkari honek berriz ere kalea ikusiko balu.

Errealitate gordin honen atzean, hainbat galdera datozkigu gogora. Lehenengo eta behin, proiektua bultzatu zutenei berei egiteko modukoak. Nola egin daiteke halako kalkulu eskasa? Nola pentsa daiteke halako aldizkari bat diru laguntzekin eta publizitatearekin bakarrik atera eta errentagarri izatea, batez ere ehun mila aleko tirada iragarri zenean?

Sakonean, ordea, itxiera honek beste mezu bat iradokitzen digu, eta kultur eragileen aldetik gogoeta pausatua goa merezi luke. Euskal kultura, oro har, tonbolan bezala banatu izan da kontsumitzaileen artean. Kontzertuak eta emanaldiak ikusteko sarrerak, milaka oparitu izan dira; herri aldizkariak eta bailarakako egunkariak doan banatzen dira; edozein aldizkariaren harpidedun eginez gero, kultur ekoizpenak sortu dituen hamaika opari jasotzen dira, merchandising guztia musu truk eman izan da urtetan eta urtetan. Ondorioa, euskal kulturaren kontsumitzaileak erosteko garaian alfertzea. Eta azken ondorioa, are larriagoa, honen atzean egiten den irakurketa konturatu gabea: euskaraz egiten diren gauzek ez dute baliorik, ez dute kalitate-rik, ez dute merezi. Egoera jasanezin bihurtu eta diruaren truke eskuratzeko garaia iritsi denean, esne mamitan ohitutako erosle potentzialek atzera egiten dute. Adagio krudela barneratuta daukagu. Ez du sosik balio kalitaterik ez daukalako. Horrexegatik oparitzen da. Eta orain, batere baliorik ez duen hori, zertarako ordainarazi nahi didate?

*Asteon* bezalako proiektu erraldoiak ezin dira musu truk banatu, salduko ez diren aitzakiatan. Euskal kontsumitzailea, beste alorretan (ikastolen aldeko jaietan, edozein arrazoigatik antolatzen diren mila eta bat zozketatan eta abarretan) ordaintzen oso ohitua, euskal kultura eskuratzeko ordaintzera ohitu beharra dago, egiten diren gauzak baloratuko baditu. Eta horrek bermatuko du *Asteon* bezalako proiektuen bideragarritasuna.

Publizitatea eta diru laguntzak beharrezkoak dira euskarazko edozein proiektu gauzatu ahal izateko, euskara defizitarioa den artean. Baina etorkizunerako itxaropena bi oinarri ekonomiko horietan jartzea kimera hutsa da.

Azken bolada honetan euskaraz egiten den antzerki-gintza alboratua geratzen ari da. Hori egiaztatu ahal izateko, nahikoa da azken hiruzpalau urteotan egin diren estreinaldiak modu zehatzean aztertzea. Eusko Jaurilaritzak laguntzak ematen ditu edozein antzezlan euskaraz estreinatzeko (antzezlanak prestatzeagatik ematen direnez aparte). Euskarazko sorkuntza babestea helburu duen asmo on hori, ordea, zapuzturik geratzen ari da urtetik urtera. Hasieran, taldeak gaztelaniaz estreinatzen hasi ziren, laguntza horri uko eginda. Baina gero eta antzerki talde gehiagok muntatzen dituzte gaur egun beren lanak gaztelaniaz bakarrik. Arrazoiak era askotakoak dira. Euskarazko estreinaldiarako laguntza horiek oso txikiak direlako, antzerki-gintzan jarduten duten konpainien etorkizuna gaztelaniaz antolatzeak bermatzen duelako (ikuskitzuna arakastatsua bada, bostehun, mila emanaldi egin daitezke gaztelaniaz Euskal Herrian, Espainian eta atzerriko biretan; euskaraz, ordea, berrogeita hamarretik gora iritsi direnak esku bateko atzamarrekin zenbatu daitezke), bi hilabetez gaztelaniazko bertsioa txukun prestatu eta azken bi astetan korrika eta presaka prestatzen zen euskarazko bertsioa traba galanta zelako, eta taldeek nahiago izan dutelako hipokrisiari muzin egin eta gaztelaniaz egindakoari bakarrik heltzea, eta beste hainbat arrazoi. Nahiz eta behin baino gehiagotan gertatzen ari den Euskal Herrian bertan emanaldi gehiago lortzea euskaraz gaztelaniaz baino.

Ezin ukatuko dugu oraindik ere hainbat talde euskaratik abiatzen direla beren muntaiak prestatzeko orduan, baina gero eta gutxiago dira. Eta, haur antzerkia eta arrazoi logikoengatik beste hizkuntza batean muntatu ez daitezkeen lanak alde batera utzita, desagertu arte murriztu dira euskaraz bakarrik estreinatu diren lanak.

Ahalegina, ordea, ez dute taldeek bakarrik egin behar. Programadoreek ere egin behar dute, orain arte kontratatutako egunetatik komertzialak ez direnetan jartzen baitituzte euskarazko *bertsioak*. Programadoreen lanak ere aparteko iruzkina merezi du, batere kontrolik gabe jarduten duten jauntxo hauetako batzuen erabakiak erabat arbitrarioak, kapritxosoak eta logikarik gabeak direlako. Batez ere



bere ardurapean areto bat baino gehiago dauzkatenen kasuan.

Baina hel diezaiogun berriro euskarazko antzerkigintzari. Eusko Jaurlaritza mezenas lana egiten hasi da, arte diziiplina gogor honetan hamar urtetik gora dituzten antzerki taldeei etorkizuna bermatzeko moduko diru laguntzak ematen. Antzezlanengatik baino gehiago, enpresa egiturari eutsi eta lanean jarraitu ahal izateko ematen dira laguntza hauek. Bazen garaia beti pobre eta arazoz beterik biziraun duen sektore hau babesteko, zoriontzeko modukoa da. Sektore osoari heltzeko itxaropena daukagu. Eta egiten diren lanen kopuruaren eta kalitatearen bidez erantzun beharko diote taldeek Eusko Jaurlaritzaren bi urteko bideragarritasun proiektu honi. Baina ez neurri hau eta ez aurreko laguntza guztiak ez dira nahikoak euskarazko antzerkigintza babesteko.

Txalogarria da *Artez* aldizkariaren itzalean euskarazko antzezlanak argitaratzeko egiten ari diren ahalegina. Batzuetan hainbat saritan irabazle suertatutako lanak eta beste batzuetan ikusle eta emanaldi aldetik arrakastatsuak izan diren lanak. Argitaletxeek ez dute bide luzerik egin esparru honetan, beharbada etekin komertzialik ez duela izango, baina hemen egiten den antzerkia irakurtzeko aukera ematen du eta euskal egileen lana ezagututa, eszenaratzeko beste urrats bat dira.

2004. urte honek berri pozgarria ekarri digu ikus-entzunezkoen haritik. Izan ere, film laburretan sari handi ugari jaso dituzten Asier Altunak eta Telmo Esnalek labean zortzi urtetan eduki duten gidoia atera, zinemagintzan euskaraz jarduteko sekula santan lortu ez den dirutza bildu eta euskaraz grabatutako fikziozko lehen lan luzea amaitu berri dute. *Aupa Etxebeste!* Sinestezina da halako produktua euskara hutsean grabatu ahal izatea. Dirua eta hizkuntza bata bestearen etsai izan dira orain arte, eta euskarazko filmagintzak urrats handia egin du halako lan zehatz bati esker. Film laburrez bakarrik osatuta zegoen kultur esparru honek halako ustekabeakoak ematea sekulakoa da, eta, egileen ibilbidea ezagututa, seguru gaude 2005ean


estrainatzekoa den lan honen kalitatea zinema artoetan lehiatzen diren kanpoko filmen parekoa izango dela.

Berri pozgarri hau osatzeko, 2005ean grabatuko den euskarazko bigarren film luzearen berri izatea. Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* lan arakastatsuaaren ildotik dator bigarren hau, liburu eta antzezlan moduan marka guztiak ondu eta gero (zein garrantzitsua den euskal munduan halako *best seller*-ak lortzea!). Eta, zurrumurruek arabera, badirudi bolada bikain hau ez dela horretan amaituko.

Hala eta guztiz ere, litekeena da zinemako produktu hauek orain sortzea kasualitatearen emaitza izatea, eta ez film luzeak egiteko erakundeen aldetik egindako apustu baten ondorio. Dударик egiterik ez dago, abiapuntuak ez du publiko izan behar. Gidoilarien eta produkzio-etxeen lana ezinbestekoa da inongo kultur politikarik antolatuko bada, baina Eusko Jaurlaritzak batere beldurrik edo mesfidantzarik gabe babesa eman beharko lieke halako produktuak aurkezten dituzten produkzio-etxeei. Eta ildo beretik doake Euskal Telebistak fikziorako urtero zehaztuta duen diru-kopurua ere inbertitzea. Bai filmak egiteko, bai tv-movieak egiteko eta bai telesailak egiteko. Horrek ekarri baitu orain arte sektorea osatzen duten arlo desberdinetako profesionalen prestakuntza eta biziraupena. ETBren aldetik apustu hori egitea sektorea egonkortzeko ezinbestekoa da.

Sektorearen etorkizuna bermatuko duen beste esparru bat, estreinatzen diren filmen euskarazko estreinaldi komertziala, nahikoa zokoratuta geratzen ari da gaur egun. Bikoizketaren sektoreak ez du loraldirik bizi aspaldi honetan. Eta Kataluniatik etorri berri zaigun informazioak inbidia beltza sortzen digu. Gaur egun erabat ezinezkoa da planteatzea Euskal Herrian egiten diren estreinaldietatik erdiak euskaraz eskaintzea, baina astero sikiera bakarra euskaraz estreinatzea litzateke helburua. Eta haurrentzako zinemagintzatik kanpo ere jorratu beharra dago esparru hau. Zulo hori betetzeko ezinbestekoa da erakundeen arteko konpromisoa, defizitarioa izango delako, ikusleen artean ohitura sortu arte behintzat, baina hori ezin da izan kultur politikagintza bat gauzatzeko edo ez gauzatzeko arra-

zoia. Orain arte egin den bideari etengabe heltzeko garaia dela frogatzen du Tinko Euskara Elkarteari Gipuzkoako Foru Aldundiak eman berri dion Abadia Sariak, azken hamar urteotan filmak euskaraz eskaintzeko egindako lanagatik, hain zuzen ere. Erakunde publikoen esku dago Marian Galarragak gidatzen duen taldeak eta sektoreko beste enpresek zinemagintza komertziala euskaratzeko bideak aurrera egin ahal izatea.¶



## Xabier Mendiguren Bereziartu

### 2003-2007 aldirako III. Plana

Jaurlaritzaren Kontseiluak uztailaren 27an onartu zuen 2003-2007 aldirako Plana. Planak hitzez hitz errepikatzen du maiatzean Kultura Sailak aurkeztutako zirriborroa, eta Kontseiluak hedabideen bitartez helarazitako irakurketak, iritziak, ez du inolako eraginik izan egitasmo ofizialean, aldakuntzarik izan ez den heinean. Espero dezagun planaren inplementazioan zorte hobea izango dutela egindako proposamen eta eskariek.

Gogora dezagun Plan hau eta aurrekoa ia berdinak direla eta aurrekoak gabezia nabarmenak zituela diseinuan eta huts handiak inplementazioan, eta ez dituela hizkuntza normalizatorako gutxiengoak diren emaitzak lortu.

Euskalgintzak beti egin dion kritika nagusia honako hau da: langile multzo batek hizkuntza eskakizuna betetzea duela ardatz, baina erabileraren inguruko neurriak ez direla aurreikusten Administrazioa euskalduntzeko planetan.

Planaren diseinua aztertuta, eta aurreko aldiak erakutsi digunari erreparatuz, hainbat ondorio atera daitezke. Plan honen helburu eta jarritako bitartekoen artean ez dago loturarik.

Baina ikus ditzagun plan honen hutsune nagusiak:

- 1996ko biztanleriaren erroldak emandako emaitzen arabera finkatuko ditu derrigortasun indizeak (alegia, %40,74) eta ez 2001ekoak emandakoen arabera (%44). Gizartean euskalduntzeak aurrera egin badu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez dio horri erantzuten.

- Funtsean plan hau eta aurrekoa (1998-2002 aldiari zegokiona) berdinak dira alderdi guztietan.

- Aldi hau amaitzen denerako langileen %81 inguru adinagatik salbuetsita egongo da. Hizkuntz Eskakizuna frogatzeko adin muga 45 urtetan jartzen jarraitzeak bete-betean oztopatzen du planaren garapena.

- Plan honetan, aurrekoan bezala, politikariek eta goi-karguek tokian tokiko planak dinamizatzeko ardura dute, baina ez da ezer zehazten lan horretan dagokien ait-zindaritzaz edo euskalduntzen nahiz euskaraz lan egiten dagokien arduraz.

- Dagokien hizkuntz eskakizuna eskuratu arren eguneroko lan jardunean erdara hutsean lanean diharduten langileek euskarazko trebetasuna galtzeko arriskua aipatzen da.

- Gizarte eragileak jarraipen eta kontrol organoetatik kanpo uzten dira. Gizartearen babes bilatzen ez duten egitasmoez oztopo nabarmena izaten dute bere helburua erdiesteko.

- Helburuak eta horietara iristeko urratsak ez datoz elkarrekin bat. Urratsak aitortutako helburuetara iristeko apalegiak dira alor guztietan.

- Ebaluazioak, neurketak, jarraipenak... aipatzen dira, baina ez da ezer aipatzen jarraipen lan horrek ekarritakoak prozesuan txertatzeko egin beharrekoaz.

- Osakidetza edo Ertzaintzak plan honetatik kanpo egoten jarraitzen dute, eta aurreko planetik honetara eragin eremuei dagokionez UTAP delakoa (Ertzaintza laguntzeko unitate teknikoa) kanpo utzi dute oraingoan inolako azalpenik eman gabe.

- Erakunde autonomoei eta kontzesiopean diharduten enpresei egiten zaien hizkuntz eskakizuna arindu egiten da, gutxieneko derrigortasun indizeari egiten zitzaion aipamena ezabatu baita.

## **Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoaren proposamenaz**

2003ko urriaren 25ean aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrean *Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politi-*

*koaren proposamena.* Testu hori une hauetan Legebiltzarrean eztabaidatu da eta Kontseiluak hari buruz duen iritzia jakinarazi du, bertan parte hartzen duten alderdiei eskari zehatza eginez: euskararen normalizazioaren mesedetan, aintzat har ditzatela hemen egiten diren proposamenak.

Kontseiluak euskarari dagozkion atalak arretaz aztertu ditu eta uste du euskararen normalizazioa lortzeko eta hizkuntz eskubideak babesteko testu horrek dioena baino proposamen ausart eta eraginkorragoa behar dela. Euskararen normalizazioa errealitate bilakatzeko hizkuntz politika definitu beharra dago.

Gainera, oinarrizko arau izateko sortuko litzatekeen estatutu batek hasieratik finkatu beharko lituzke oinarri berriak hizkuntzari dagokionez.

Testuinguru horretan esan behar da estatu espainiarreko marko juridiko politiko berean, beste leku batzuetan hizkuntzaren estatus legalean aurrerapen nabarmenak egin dituztela. Katalunian hizkuntz eskubideak betetzeari begirako neurriak onartu dituzte Katalanaren Lege berrian: he-dabideetan eta zinema aretoetan kuotak jarritz eta merkataritzan hizkuntz eskubideak errespetaatzeko neurriak arautuz, esate baterako.

Kontseiluaren kezka areago doa, ez baitago aurrerapauso nabarmenik 1978an onartu zen Gernikako Estatututik oraingo estatutu proposamenera, 25 urte pasatu diren arren. Hona hemen bien arteko alderaketa:

**Gernikako Estatutua (1978)**

*6. artikulua*

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Komunitate Autonomoko Erakunde komunek Euskal Herriko egoera sozio-linguistikoaren nabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregula-

**Estatutu proposamena (2003)**

*8. artikulua.- Euskara*

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute hizkuntza biok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Euskal instituzioek, aniztasun sozio-linguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute, bion ofizialtasuna arautuz, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak

tuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta metodoak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.

4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emaile.

5. Euskara beste euskal lurralde eta kulturakoak izan ditzaten ha-

bideratu eta arautuko dituzte.

3. Inor ere ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

4. Euskarari dagozkionetan Euskaltzaindia instituzio aholku-emaile ofizial da.

5. Euskara beste euskal lurralde eta giza talde batzuen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturakoak izan ditzaten ha-

rreremana eta loturez gain, Euskadiko Erkidegoak lurralde eta giza talde horiekin kulturazko harremanak bideratzeko itun hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

5. Euskara beste euskal lurralde eta kulturakoak izan ditzaten ha-

rreremana eta loturez gain, Euskadiko Erkidegoak lurralde eta giza talde horiekin kulturazko harremanak bideratzeko itun hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

35. artikulua

1. Magistratu, Epaikari eta Idazkari- en izendapena Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurreikusten den bezalaxe egingo da, Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehen- tasuna emanez, izatasuna eta auzotasuna dela eta, salbuespenik egin gabe.

3. Bere eremuan Komunitate Auto- nomoari dagokio Justizi Adminis- trazio zerbitzuko pertsonala eta bere funtzionamendurako behar diren medio materialak eta ekono- mikoak hornitzea. Botere Judizia- laren Lege Organikoak eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten duen hitz beretan, pertsonala hornitzeko sistemetan Euskal Zuzen- bide Forala eta euskara ezagutzen

27. artikulua.- *Aginte Judizialaren go- bernua. Euskal Kontseilu Judiziala*

2. Euskal Kontseilu Judizialak izen- datuko du Euskadiko Auzitegi Na- tusiko lehendakaria, eta kontseilu horri dagozkio, halaber, epaitegiak eta auzitegiak ikuskatzeko ahalak, baita Euskadiko Erkidegoan Aginte Judizialari eragiten dioten gaietan kontsulta eta txostenak egitea ere. Era berean, Euskal Kontseilu Judi- zialari dagokio Aginte Judizialaren Lege Organikoan finkatutako oina- rrizko eta funtsezko irizpideekin bat etorritik Eusko Legebiltzarreko legeetan xedatutakoa aplikatzea, Euskadiko idazkari, epaile, magis- tratu eta fiskalen hautaketa, horni- dura, karrera, prestakuntza, dizipli- na-araubide eta ordainketei dago- kienean, kontuan hartuta, ondorio horietarako, euskal zuzenbidea eta

dutenei lehentasuna emango zaielarik.

euskara jakiteak duen lehentasuna.

*47. artikulua.- Hezkuntza eta kultura arloko politikak*

1. Euskadiko Erkidegoaren eginkizuna izango da oinarritzko eskubide eta betebeharren garapen konstituzionala, ondorengo arlootako araubide juridikoaz ari garela: hizkuntzen erabilera, adierazpen- eta komunikazio-askatasuna, hezkuntza eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna.

*67. artikulua.- Kanpo-ordezkaritza*

3. Euskadiko Erkidegoak zuzeneko ordezkaritza eduki ahal izango du haien araubidearen arabera kide izateko eta parte hartzeko aukera ematen duten nazioarteko erakunde guztietan, eta bereziki hizkuntza, kultura, bake, giza eskubideen defentsa nahiz lankidetzatza, garapen iraunkor eta ingurumenarekin zerikusia dutenetan.

Bi testuak erkaturik, garbi ikusten da proposamen berrian ez dagoela aurrerapausorik eta lehengo testuko punturen bat edo beste lausoago gelditzen dela; horregatik, eta oinarritzko legeak gaur eguneko errealitatera egokitze-ko premian oinarriturik, honako proposamenak egin ditu Kontseiluak estatutuan jasoak izateko:

1. Euskara, hizkuntza europarra, Euskal Herriko berezko hizkuntza da. Euskararen erabilera gizarteko maila guztietara hedatuko da.

2. Euskara ofiziala izango da eta lehentasunezko estatusa izango du. Era berean, Europako hizkuntza den neurrian, European ere ofiziala izateko urratsak egingo dira.

3. Herritar guztiek dute euskara ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea. Hortaz, administrazioak be-  
launaldi berriak euskaldunak izango direla ziurtatuko duen hezkuntza sistema antolatuko du eta bitartekoak jarriko ditu herritarrek euskara lehenbailehen eta doan ezagutu



dezaten. Era berean, etorkinei ere, iritsi ahala, euskara ikasteko bidea emango zaie.

4. Gaur egungo egoera diglosikoak sortzen duen desoreka soziala gainditzeko epe eta helburu zehatzak izango dituen hizkuntz politika eta corpus juridikoa ezarriko dira.

5. Hizkuntz politika osoa aplikatuko da: sektore artekoa, eta Administrazio nagusitik hasi —autonomikoa nahiz estatuarena— eta Toki Administrazioerainokoa.

6. Administrazioa eta haren zerbitzuak —baita estatus pribatua duten baina zerbitzu publikoa ematen duten enpresak ere— lehentasunez euskaldunduko dira, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko. Bide horretatik, kontratazio berri guztietan euskara ezagutzea beharrezkoa izango da.

7. Euskararen gizarte erakundeak instituzio aholku emaileak izango dira.

8. Hizkuntzari buruzko erabakiak burujabetza osoz hartuko dira.

Kontseiluaren ustez, hizkuntz politikari dagokionez, funtsezkoa da epeak finkatzea. Izan ere, orain indarrean dauden Gernikako Estatutuak eta Euskararen Legeak araututako hainbat puntu ez dira bete legeek beharkizun horiek «arian-arian» betetzea arautzen dutelako, «progresiboki» eta epe zehatzik gabe alegia.

Horregatik, gehienezko epeak finkatu behar dira administrazio publikoen eta erakunde pribatuen betekizunetarako; era berean, bermatu beharra dago legea betetzen hastea berehalakoa izatea.

Azkenik, legea betetzen ez duten botere publikoetako arduradunentzat ardura zibilak eta erantzukizunak eskatzeko oinarri juridikoak finkatzea beharrezkoa da.

## **Eskubideen egoera Euskal Herrian 2003an**

**H**izkuntz Eskubideen Behatokiak, ohi duenez, aurten ere aurkeztu digu aurreko urteari, hots, 2003ari dagokion txostena. Material mamitsu horretan nik neuk hemen be-

reziki kontuan hartu nahi ditudan ondorio nagusiak honako hauexek dira:

1. 2003 urteko txosten honek aurreko bi urteetako txostenek eman zituzten ondorio nagusiak guztiz berretsi ditu.

2. Euskal Herriko herrialde guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak.

3. Euskal Herriko administrazio maila guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak: Espainiako eta Frantziako estatu-administrazioetan, Eusko Jaurlaritzan, Nafarroako Foru Komunitatean, Herrialdeko Agintaritzan eta toki-administrazioetan.

4. Hizkuntz eskubideak urratzea ez da soilik, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala oinarri duen eta Behatokiak bere egin duen, gizakien eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasun printzipio nagusia urratzea. Kasu gehien-gehienetan, administrazioek, beraiek onartutako eta beraien lurraldeetan indarrean dagoen hizkuntz legedia ere ez dute betetzen.

5. Kasu batzuetan, hizkuntz eskubideez gain oinarriko eskubide batzuk ere urratzen zaizkie herritarrei: berdintasunez hartua izateko eskubidea, informazioa hartzeko eskubidea, etab.

6. Estatu gairik arauak ere urratzen dira, adibidez, Europako Kontseiluari eta Nazio Batuen Erakundeari dagozkienak.

7. Nafarroa Europako kontra-eredua da eta gutxiagotze instituzionalaren bideari jarraitzen dio.

8. Frantziako Errepublikak euskal hiztun komunitateari eskubideen subjektu izaera aitortu behar dio, bai eta eskubide kolektiboak ere.

9. Hizkuntz eskubideen bermerako mekanismo juridiko administratibo berezitu eta azkarra ezarri beharra dago, gertatutako lege urraketei aurre egin eta haiek zuzentzeko.


10. Hizkuntz eskubideen urraketa zabal eta sistemati-koak euskal hiztunek beren hizkuntz eskubideez duten hautemate subjektiboan du eragina.

Ondorio horiek osoan hartuta agertzen duten panorama larria bezain kezagarria da eta zer pentsatua eta zer

egina ugari ematen dute, ez euskalgintzarentzat soilik, baita gizarte osoarentzat, eta instituzio, alderdi eta orotariko gizarte eragileentzat ere. Espero izatekoa da, orain arte ez bezala, datozen urteetan gero eta kontzientzia argiagoa izango dela gure artean bidegabekeria horiei erremedioa ezartzen hasteko.

Azkenik, beharrezko deritzot Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren ekarpen garrantzitsuaren balioespen orokorraz zerbait esateari. «Auditoria» moduko bat da Behatokiak erakunde publikoei egiten diena eta halakotzat hartu beharko lukete, beren zerbitzu ematearen kalitatea hobetzeko aukera bezala, eta inola ere ez mindu edo kalte egin nahi duen erakunde baten jarduera bezala. Bestalde, «euskararen telefonoa» (902 194 332) ia zabalkunderik gabe arrakastatsu bihurtu da eta horrek argi eta garbi erakusten du horrelako tresna baten zeinen premia handia zegoen. Horrez gain, txalogarria da berriki Behatokiak aurkeztu duen hizkuntz eskubideei buruzko ikastunitatea.

Eta bukatzeko —*last but not least*—, Behatokiaren ekarpenak balio aparta du hizkuntz eskubideen urratzeak dituen alboko kalteen ondorioak —askotan gogorrak— agerian jartzeko, zeren sarritan hizkuntz eskubide soila dirudienaren urraketa beste eskubide batzuen bortxaketaren adierazgarri bihurtzen baita, Administrazioek bitarteko guztiak erabiliz eragotzi beharko luketenarena. Esandako guztiak ezinbesteko zerbitzu bihurtzen du Behatokiarena eta gu guztioi dagokigu tresna indartsu eta eraginkor bihurtzea.¶



## Xabier Mendiguren Elizegi

### Gurasoei gorazarre

Izugarri gustatzen zaigu herri honetan katea eten ez dela esatea. Kontrakoaren beldur garen seinale, seguru asko. Baina niri, aurten behintzat, errementari lana tokatu zait, kateak egin eta egin, belaunaldien arteko lokarriak sendotzeko edo. Hainbat artikulu, hitzaldi, mahai-inguru eta edizio-lan egin ditut joan den mendeko idazle handienetako batzuen omenez eta oroimenez. Adinaren arabera sailkatuta: Telesforo Monzon (1904-1981), aurten jaiotza-  
ren mendeurrena zuena; Salvatore Mitxelena (1919-1965), urteurren jakinik ez izan arren gogora ekartzea komeni izaten dena; Martin Ugalde (1921-2004), aurten joan zaiguna; Bitoriano Gandiaga (1928-2001), argitara gabe utzitako lanak ateratzen aurten hasi zaizkiona; eta Txillardegia (1929), 75 urte bete berria, sasoiari dagoela omendua eta lanean segitzeko asmoz dabilena.

Ez dira omendu bakarrak, ezta laudorio eta esker ona zor zaien bakarrak ere. Urrutira gabe, gogora datorkit Andolin Eguzkitza, askoz gazteago zela utzi gaituena. Bego hemen gure aitortza.

### Gazteei ohore

Jarraipenaren ondareak alde biko txanpona eskatzen du, dena dela, transmisiorik egongo bada: batetik, lehengoan lanaren ezagutza, eta, bestetik, berrien sorrera. (Eta tartean, tarteka, zahar eta gazteen arteko kalapita, hemen halakorik ia ez dugun arren, edo gutxiegi garelako edo zibilizatu-tuegi edo auskalo.)

Egile berriak ere plazaratu dira aurten gure letretan, eta oso maila polita erakutsiz: narratiban, esaterako, Ber-

tol Arrietaren *Txikira beti hordago*, Iñaki Iñurrietaren *Kuskue tanden* (idazlea kulturgintzan eskarmentuduna izan arren), Lander Garroren *Orain galdera berriak ditut*, Xabier Etxaberen *Lurtarra da begiratu*, Mikel Zubeldiaren *Manikien galeria*, Ramuntxo Etxeberriren *Skymoon* (azken hamar urtean, Eneko Bidegainez gain Ipar Euskal Herrian plazaratu den idazle ia bakarra); poesian, berriz, Luis Garderen *Oihan nabarra*, Jon Aiastuiren *Biolinaren jatorria*, Xabi Bordaren *Birika puskak*, Gotzon Barandiaranen *Arrakalak*; saiakera eta kronikan, Fermin Etxegoienen *Neurona eta zeurona*, Filipe Bidarten (hau ere beteranoa beste alor batzuetan) *Bakartasunaz bi hitz*. Barka nazatela ahaztu ditudanek, buruz ari naiz eta.

Badira bi izen, hala ere, ahaztu ez baina nabarmendu egin nahi ditudanak: Eider Rodriguez eta Karmele Jaio, aurten ipuin-liburu bana kaleratu dutenak, beren estreinaldiko lana baina heldutasun-zantzu guztiak dituztenak: *Eta handik gutxira gaur* du izena Rodriguezenak, *Hamabost zauri* Jaiorenak. Esperimentalagoa lehena eta klasikoagoa bigarrena, biak ere giza harremanen gai korapilatsu bezain labainean igerian eta biak ere bikainak.

Hau ez da diskriminazio positibo, ez kuota, ez bozgorailua, ez «il futuro è donna» tankerako lelo leloa: literatura ezagupen eta plazer iturri gisa gozarazi didaten liburu parebaten aldarrikapena da, eta irakurtzeko gonbita.

## Egolatriaren deitore

Ez dut segituko urteko literatur produkzioarekin: nire editore izaerak itsusi egingo lituzke etxeako loreak, eta are itsusiago auzokoentzako arantzak, halakorik balego. Beraz, konplimendu epeletan ibiltzekotan, hobe dut isilik egon.

Hala ere, badut idazle-giroari buruzko komentario bat kolkoan. Aurreko batean, konpainia on batean, euskaldunik baizen ez zen lekuan (cantina mariachi batean lagun artean afaltzen geundela), ekarri zuen solasak, izan zen perpausa, azken hamar-hamabost urteotan euskal li-

teraturan gertatu den aldaketa sakonena, beharbada, idazle bakoitzak bere karrera eta promozioa zaintzea izan dela, euskal komunikabideek idazlearen irudiari eman dioten bultzadarekin batean. Horrek baditu dudarik gabe bere alderdi onak, eta ezinbestekoa izango zen seguru asko, bizi garen munduan bizi garenez gero. Ez nabil inoren joesira egolatrarik salatzen, garai hauen ezaugarri bat seinalatzeko baizik.

Ez da beti horrela izan ordea. Eta lehengo kontuak goresten hastea zaharkeri zantzu eta gainbeheraren erakusle izaten den arren, akordatzeko naiz aspaldi ez dela auzolanerako sentimendu zabaldu bat zegoela euskal letren baratze koxkorra lantzen genuenon artean (sektarismo gehiago ere bai, egia osoa esan behar bada). Akordatzeko naiz, baita ere, horrelakoak idatzi zituela poetak, «kritika konplizea» proposatuz:

(...) Gure herrian gehien ematen den kritika mota lagunkoia da. Onespenezkoa, azalezkoa, «ondo dago eta ea hurrengorako hobetzen den» formula litekeena. Kritika konplizea ez da hori.

Konplizitatea honela formulatzen da: euskal literatura delitua da; euskal nazioa eta euskal literatura eraikitzearen delituan partaideak garenez gero asumitu behar dugu gure errealitate politiko-kultural berezia, dramatikoa, gure marginazioa, gure arteko elkartasun derrigorrezkoa.

Guk ezin dugu pentsamendu unibertsaleko metodo eta sistemak moda legez asumitzen dituen kritika mota proposatu, gure errealitate estuaren baldintza objektiboak aintzat hartzen ez dituelako. Gure hizkuntza minorizaturik dagoelarik, herri independentziarik ez dugularik, ezin dugu etnozentrismoan errefuxiatu, baina kritika unibertsarioaren epigono paper hartu ere ez.

Kritika konplizea proposatzean kritikaren kontestualizazioa egiten dugu. Zein herritan, zein hizkuntzatan, zein literaturatan ematen den. Kritika eraikitze nazional eta herrikoian situatzen da, euskal proiektuaren aldeko konplizitatean, eta ernegarria eta bizigarria izatearen eginbidea du.

Konplizitatea autorearen eta kritikaren artean ematen da. Kritikoa ez da loriak eta anatemak banatzen dituen inkisidorea, funtzionarioa, profesionala. Kritikaren

helburua ez da objektu literario eman bat, kritika bera ere ofizio kreatiboa bihurturik kritikoak delitua gehitu eta osotu behar du.

Konplizitatea kritikoaren eta irakurlearen artean ematen da. Kritikaren xedea kriterio estetiko eta ideologikoak berriztatzea eta iraultzea da, gustua formatzea, adierazpen forma konplexu eta egokiagoei bidea irekitzea.

Azken batean guk ez dugu unibertsitate handietan omenduak izateko anbizioirik. Miguel de Unamuno eta Pio Parojak proposaturiko asimilazio bidea ez dugu hartuko. Unibertsalitateari egin diezaiokegun aportazioa geure hizkuntzaren bidez egingen diogu. Euskal literatura-ren instituzionalizazioaren aldekoa ere ez da gure jarduna, gauzak dauden legez normalizazio faltsu bat litzatekeelako, halako eskaparate huts bat hornitzea (...)

1988koa da testua —*Marginalia* deritzan liburu batean a rgitaratua— baina Harri Arokoa dirudi ia-ia. Niri ez zait ahaztu ordea. Eta nahi nuke beste asko ere gogoratzea.

## Nola gaude, señor doktore?

Aspaldi ikusi gabeko laguna kalean topatu eta «zer moduz?» galdetzen digun moduan, lerrook idazten ari naitzen sasoian (Durangoko Azokaren bezperan) antzeko galdera erritual bat egiten zaigu kulturari gabiltzan profesionaloi: «Zer moduz euskal literatura?», «Zelan euskal musika?». Durangorik gabe, galdera bera plazara dezakegu alorrez alor: antzerkian, dantzan, pinturan, zineman, bertso-laritzan...

Zer erantzun? «Ondo esan beharko» litzateke agian sanoena, baina galdetzaileek ez lukete txistea ulertuko; «Txarto» erantzungo bagenu, arra ro begiratuko ligukete, eta azalpen luzeak eman behar ondotik; «Primeran» esatea triumfalismo barren-ustela litzateke. Geuk ere ba ote dugu diagnostiko zehatza ordea?

Adibidez, esan nezake euskal kultura sekula baino sendoago dagoela: euskal liburugintza inoiz baino aberatsago dabilela, euskal idazleen nazioarteratzea lehen ez bezalakoa dela, musika-panoraman estiloen eta belaunal-

dien aniztasun txalogarria ikusten dugula, teatroan publiko gero eta ohituagoa eta talde gero eta profesionalagoak dauzkagula, beren produkzioak gure mugetatik kanpo ere erakusten dituztenak; zineman ere zuzendari, aktore eta teknikari trebe mordoa, han eta hemen lanean...

Esan nezake, halaber, euskal kultura guztiz pobre eta makal sumatzen dudala, euskal literatura inertiak joa, eskolako irakurketen menpeko, egiazko publiko irakurzale-rik gabe; euskal musikan sormena lurraren pare eta industria beste horrenbeste; teatroan ere *stand up* moldeko umorismoaren minbiziak jota, denbora-pasako komedia txoroen mailatik igaro ezinik, funtzionatzeko moduan eta erreferentzietan botijoa baino espainolago; eta zineman ere negargarri, euskarazko film bat egiteko hamar urte eta Ama Birjinaren mirariak behar direla.

Aurreko bi paragrafoetan zein zen egiazkoa? Ba, nire ustez, biak. Eta, fokua non jartzen dugun, era batekoa edo bestekoa izango da ikusiko dugun panorama. Nahikoa izan daiteke norbaitek «krisi» hitza aipatzea denak horren inguruan dantzan hasteko; hurrena, berriz, instituziotik egundoko balantze baikorrak iritsi eta inor ez da gauza, diru laguntzen eskari betikotik harago, ikuspegi alternati-  
bo bat proposatzeko.¶





## Allande Sokarros

### **Pastorala, euskal gizartean eragile**

Zu beroan, euskal kulturaren sendotasuna pastoralak daukan arakastarekin neurtuko balitz, erabat osasuntsua da-goela ondorioztatuko litzateke. Pentsa... Maule hiriburu erdaldunduak 2004. urte honetan aurkeztu duen *Antso Handiatragedia*ren lehen agerraldian —uztailaren 25ean— 4.500 ikuslek lepo bete zuten antzezlekua, beste 500 baino gehiago sartu ezinean geratu zirelarik. Eta 3.000tik gora izan ziren aste bat beranduago, bigarren agerraldian! Gure antzerki zaharra, beraz, bere ibilbide luzean inoiz baino gaztetasunez eta bizitasunez beteagoa agertzen da. Jokalariak biltzeko ez da inolako nekerik... arazoa delarik, aitzitik ere, tauladara igo nahi duten guztiei karguren bat aurkitzea. Ikusgarriarentzat berarentzat egin beharreko trebakuntza zeregin handiaz gain, pastoral baten antolaketak eskatzen duen alimaleko talde lanak ez dio beldurra ematen jendeari. Pastorala gizarte oso baten konpromisoa da, jendarte hau bere aniztasunean islatzen duelarik.

Hala, beraz, pastoralaren garrantzia ez da handietsi behar... baina ez gutxietsi ere, ordea. Hori dela-eta, adiskidetzat jotzen dudan Mattin Irigoien garaztar kultur sortaileak, *Berria* egunkarian argitara eman zen elkarizketa batean, pastoralaz adierazitakoak oker zirela iritzi diot. Barkatuko dit erraiten badiot plazaratu zituen ikusmoldeek eta egin zituen ondorioztatzeek pastorala ulertzen eta are gutxiago bizitzen ez duen norbaitenak zirela, besterik gabe. Pastorala giro bat da eta euskal giro bat, zalantza izpirik gabe. Erdaldunak daudenek ere —eta ados nago asko izan daitezkeela— halaxe hartzen eta eurenganutzen dute. Euskal kulturaren altxor bat bezala hautematen dute, baina ez museo batean gordeta litzatekeen altxor bat bezala,

bai, ordea, egunerokotzen eta eraldatzen jakin izan duen kultur adierazpen bat bezala. Pastoralak elkarlan bat da ere, ziur aski euskal kulturako beste sail edo sorkuntzetan inon topatzen ez den maila batekoa. Erran daiteke, ez bai gutxienik gabe, parte-hartzaile bakoitzak, bere zeregina edo ekarpena xumeena izanda ere, guztien arteko obra bat bezala bizitzen duela. Pastoralak da elkar ezagutze eta begirunez hartze bat, ororen arteko ahalegin horretan konprometituta sentitzen baita jatorri, ibilbide, iritzi eta joera ezberdin eta kontrajarritako jendea. Gizarte loturak sendotzen eta harremanak sortzen dituen gertakaria da pastoralak. Ez da gutxi...

## Ezagutzatik hazten da begirunea

Euskaltasunari ere —nola ez?— eragin onuragarriak dakarkio pastoralak. Ez da uste izan behar, hamar bat hila-betez euskarako obra baten bertsetak aldarrikatzeak edo gutxien-gutxienik aldarrikatzen entzuteak, kantoreak ikasten jarduteak, dantzak ikusteak edo emateak, taula-jokoek moldakuntzan parte hartzeak ez duela ondoriorik eragiten, gutienez euskal kulturarekiko begirunean. Ezaxola, are gehiago areriotasuna, ezagutza ezak hazten du. Pastoral batean parte hartzeak hausten ditu antzeko jarrerak. Eragin zehatzagoak ere dakartza pastoralak eta *Antso Handia* tragedian aritutako lagun andana AEKn hasi da euskara ikasten. Zenbat diren, xuxen ez dakit, baina honek ez du hainbesteko garrantzirik; izan ere, pastoralaren eraginez euskara ikastera animatuko litzatekeen bakar bat ere egonda, onuragarria izango litzateke. Euskararen ikastera konprometituko edo ausartuko ez direnen artean ere, euskal hiztunekiko ikuskera begirunezkoa izango da honezkero. Euren eguneroko bizian euskaraz hitz egingo ez badute ere, pastorallean ikasitako kantuak, esaterako, abestuko dituzte eta euskarazko beste hainbat kantoreen hitzak ikasiko ere. Pastoral batean aritu direnen artean, jatordu baten edo beste edozein jai egite baten kari, ez da «la, la, la...» tamalgarririk entzuten, kantu baten lehen hitzen ondoren.

Maulek eman duen *Antso Handia* pastoralean, gainera, gutxitan sumatu dudan giro ona nabaritu da. Honetan parte hartzera etorri dira euskal kulturarekin aurretik inolako harremanik izan ez zuten asko eta asko, hauen artean gazte ugari. Bihotz altxagarri eta itxaropen emaile zen 15 eta 25 urte bitarteko gazte mordo hau —neskak zirela gehiengo handian— pastoral batean jo eta su jarduten ikustea... Maulen, beste edonon bezala, *Star Académie* edo antzeko sasi-kulturako tentelkerietara aihertuak ikus zitezkeelarik. Gazte hauen koadrila lagunak ere ikusi izan ditugu behin eta berriro mustraken ikustera etorriak, eta pastorealean ez baziren partaide ere, euren kultur erreferentzietatik segurraz ere oso urruti izanagatik, ez genuen sumatu gauza zaharkitu bat bezala ikusten zutenik. Atxikimendu berezirik ezean, ikusmina eta jakin-mina sortzen zizkien, behinik behin, pastoralak.

*Antso Handia* pastoralak agerian utzi du, halaber, Zuberoko euskal kulturaren adierazpen arrakastatsu honek beste kultur sailekiko eragin onuragarriak izan dezakeela, hots, beste gisaz esanda, pastoralak deragitzan diru mailako ondorioak euskaltasunaren onurarako izan daitezkeela. Ezen, pastoraletako arduradunek, partaide guztien iritzia hartu eta gero, etekinak euskal kulturako egituren alde ematea erabaki dute. Bidezkoa dela pentsa dezakegu, baina ez da beti hala jokatu aurretik izandako pastoraletan. Mauleko pastoralak, behintzat, euskal kulturatik sortutako etekinak euskal kulturari bihurtu dizkio. Ez naiz seguru hainbeste direnik horrelako jokabideak.

## Euskarazko irakurgaien ondikoa

Orain dela hiru urte sortu zen *Pika* haurrentzako euskarazko hilabetekaria egoera larrian dago gaur egun. Bere argitaratzea behin-behinean etetera behartua izan da, aurrera jarraitzeko ahalak aurkitu arte. Umetxoei zuzendutakoa zen *Nanai* hilabetekariak ere argitaratzea utzi egin du, orainokoa segurrik. Duela zenbait urte, berriz, *Xirrista* aldizkaria gelditzera behartua izan zen. Horiek guztiak horrela, ba-

dirudi halako zorigaitz batek eragozten duela Ipar Euskal Herrian haurrentzako euskarazko irakurgaien egonkortasuna. Zorigaitza? Bai zera... Egoera honen, gertakizun hauen azalpen biderik badago eta nik behintzat bi ikusten ditut: alde batetik, euskaraz irakurtzeko ohiturarik, joerarik, motibaziorik ez izatea eta, bestetik, euskararen bizi-esparru hauen bizirik irauten laguntzeko nahikunde eta baliabide publikorik ez egotea edo behintzat oso ahulak agertzea.

Harria besteari botatzea beti errazena baita, hasiko nintzateke erraiten *Pika* eta besteak egonkorrak ez izatea, euskaraz ez irakurtzeko edo gutxi irakurtzeko arazoari lotuta dagoela, lehenik eta behin. *Pika*-k, esaterako, 350 harpidedun baino gehiago lortzerik ez du izan, eta hori kopuru oso murrizta da, euskaraz gutxi edo aski ikasten duten haurren zenbatekoa kontuan hartuta. Ez da baztertzekoa, jakina, produktua haurren gaur egungo interes zentroei ez egokituta izatea, eta pentsatzen dut aldizkariaren arduradunek egon daitekeen kontu hau gogoan erabili izan dutela. Hala ere, zio hau bera ez da nahikoa euskarazko irakurlegoaren murriztasuna ulertzeko orduan. Euskarazko prentsaren alorrean aspalditxo nabilelarik, ohar-tua naiz euskaraz irakurtzen duten euskal hiztunak —euskaltzale edota abertzaleak izanda ala ez— oso-oso gutxi daudela. Gehienek ez dute ia ezer irakurtzen eta zertxobait egiten dutenek... frantsesez egiten dute. Orain errango dudan honek ez du ongi neurtutako balio zientifikorik, ez da iritzi ikerketentzat ustez baliatzen diren irizpide zehatzetan bermatzen, baina probaz ohartu naiz, behin eta berriro, lekuren batean eskuko izango delarik frantsezko aldizkariaren bat eta beste bat euskarazkoa... ustez euskaltzale edo abertzale peto-peto batek erdarazkoa begiratzeari joko diola lehenik! Euskarazkoa eskuetan hartzen badu ere, oso azkar egingo du eta antzeko zerbait erranen: «ez da erraza honen ulertzea, ez dut ohiturarik-eta...».

Erraztasuna... Bai horixe! Hortan da bai, hain zuzen ere, koska. Ipar Euskal Herrian —baina pentsatzen dut Hego Euskal Herrian ere antzeko zerbait izango den— pairatzen dugun erdararen nagusitasun oso honetan, sekulako tema eta tinkotasuna behar da euskaldun bezala jokat-

zeko. Erdara delarik jaun eta jabe, administrazioan, gizarte zerbitzuetan, saltokietan, ingurumenean, hedabideetan eta ez dakit beste non eta non oraino, nola egon liteke euskaraz irakurtzeko joera handirik? Hain da erraza alde orotara zabaldua dagoen erdaraz mintzatzea, entzutea edo apurtxo bat irakurtzea... eta hain zaila zokoratuta dagoen euskaraz egitea! Oro har, beraz, *Pika-k*, *Nanai-k*, *Xirrista-k*, baita *Berria-k*, *Argiak*, *Herriak* edo gainontzeko gutxi hauek ere, egoera diglosikoaren ondorioak daukate oztopo nagusi euren bizi esparrua bermatzeko eta egonkortzeko.


Gauzak horrela, eta bigarren azalduerari heltzen natzaio, aginte publikoen sustapena ezinbestekoa dute hedabide hauek guztiak. Zehazki mintzatzeko, diru publikoaren behar gorria daukate, irakurleko murriz batek eragiten dizkien arazo handiei aurre egiten laguntzeko. Jakin badakit botere publikoen men ez izatea beti hobe dela, baina egoera oso neketsu batean irauteko lehenik eta sendotzeko gero, babes hauez kanpoko beste aukerarik ez da, non ez den sos laguntzaile pribatuak egotea, eta, egia esan, neuk jardule publikoak hobesten ditut beti ere. Euskaraz dauden idatzizko hedabideentzat oso diru laguntza murrizak daude Ipar Euskal Herrian eta, hauen eskurtzeko, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia edo Akitaniako Eskualde Kontseilua bezala gehiengoz arrotzak diren instituzio politikoaren «eskuzabaltasunaren» men jarri behar da. Gainera, Frantziaren politika eta administrazio egitura edirakoia dela-eta, instituzio hauek —autonomia egituraketa bati alderatuta— eskumen politiko eta baliabide fiskal oso-oso txikiak daukate... eta euskararen sustatzea ez da sekula izan beraien lehentasunetatik. Ipar Euskal Herria benetako autonomia batez jabetuta balitz, euskaltzale/abertzaleek esparru horretan izango genukeen eraginak, zalantza izpirik gabe, euskararen eta euskarazko baliabide eta lan esparruen aldeko jokabideak indartzera behartuko lituzke agintariak, hauek abertzaleak ez izan arren. Horretaratu ez garen bitartean, menpekotasunaren eta itxurakeriaren bide txarretatik ibiltzera behartuta gaude sarritan, oztopo itzelak gairak ezinezko erortzen garelarik.

## Maskaradak: kulturatik folklorera?

2005. urteko maskaradak Altzürüküko herriaren eskutik beharko genituzke bizitu, ez baldin badira behintzat bertan behera utziak, joan zaigun urte honen amaieran gertatutako altzürükutar gazte baten heriotzagatik. Egunkariak eta gainontzeko hedabideek emango digute, dena den, gertakizunaren berri, asko baitira, zuberotarrez gain, maskaraden ikustera etortzeko gutzian daudenak. Espero dezagun, haatik, Altzürükükoek ez dituztela maskaraden agerraldiak maiatz erdiraino luzatuko... 2004. urte honetan, Iruri eta Zalgize-Donztebek egin duten bezala! Ezen, hau izan da maskaradek, denboraren luzeran, nozitu duten okerkeria eta desbideratzeetatik azkena. Zuberoako inauteriak diren maskaradak gaur egun egiten eta ikusten dituztenen artean nor bada ohartuta dago kultur eta gizarte gertaera honen esanahiez? Ia inor ez, esan daiteke hanka sartzeko arriskurik gabe. Maskaradak, jatorriz, eguzki eta ilargi egutegiaren artean falta diren hogeitau egun eta piko horietan egiten ziren. Hauek «zotal egünak» deitzen ziren, tarte horretan zilegitzat emaiten baitzen gizartearen eguneroko oreka eta ibilera hankaz gora ezartzea: txikia handiari oldartzen ahal zitzaion eta gutxietsita zeuden gizataldeek —maskaradetako *beltzeria*, hots, *kautere* eta *buhameak*— handi-mandi eta tente-potenten menpekotasuna arbuiazen ahal zuten.

Haatik, hau da maskaraden aurpegi bat soilik, beste bat delarik, ordea, gure sineste zaharren lekukoak daudela... edo halaxe behar luketela izan behintzat. Biribilean egiten diren antzez-jokoek eta dantzek islatzen dituzte gure arbasoek eguzkia gurtzen zuten antzinako garai haiek. Sinbolismo hau ahaztuta baldin badute gutiz gehienek, nor gogoratuko da, bada, *Pitxu*-ren hiltzearen eta berpiztearen esanahia dela negu beltzaren amaitzea eta udaberri biziberritzailearen etortzea? Tamalez, baina, maskarada gutxitan agertzen den hartzairen puzker egiteak ere erranahi berdina dauka. Horiek guztiak gogorazita ere, argi esan dezadan ez naizela izanaren miresle edo idealizatzailea. Kultura ez da behin betikotz finkatuta dagoen eta bi-

lakatu ez daitekeen zerbait. Gizartearekin batera eraberritzen da kultura, eta pastoralak, esaterako, hau ezin hobeto egiten jakin izan du. Hargatik, nire iritzia da nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar dugula, gutxien batez behintzat. Ezagutza edo oharpen honek ditu —eraberritzearekin batera— kultura eta folklorea bereizten. Horiek horrela, zinez tamalgarri irudituko litzaidake maskaradak dantza trebetasun eta burlazko ikusgai agerraldi bilakatuko balira erabat... kultura izatetik folklore bihurtuko bailirateke. ¶



## Andres Urrutia

### **Bart Akarregiren bisita izan dut**

Goizaldeko ordu txikietan idazteko ohitura dugunontzat, begien bistakoak izaten dira gauak sor ditzakeen ezusteko eta harridurak. Halakoxea suertatu zait niri bart, *Jakin* aldizkarirako kronika hau idazteko neke-lorretan ari nintzela, zer nola jarri jakin gabe.

Euri-barbotadak nabarmen zirela kanpoaldean, esku baten hezurtxoek atean eginiko karraska samurra, hots egitearen itxurakoa sumatu dut etxaldearen atarian. Bertaratu ahala, atea itxi-ireki batean ezarri, eta, horra hor, nire aurrean tente paraturik, aspaldiko Akarregi.

Aspaldiko diot, denbora dexente igaro baita azkene-koz elkarrekin egon, eta *Jakin*-en orrietara gure intziriak eta kezka ekarri genituenetik.

Nor Akarregi? Behatu batean laburbiltzeko, gizakume arrunta; gorpuzteaz luzetxoa; adinez zerbait aurreratua, zahar-zaharra izan gabe. Izenik ere ez galdetu niri, ez dakit eta. Eszeptiko samarra da bera, gertaera eta gertalixki asko ikusi eta bizi izan baititu. Ez du aspalditik sinesten izen handi-mandietan, ezta astero-astero zelofan gardenaz egunkariak eskaintzen dituzten kultura-orrialde eta gehigarri horietan ere, ez baitaki bereizten autopropagandaren eta merkaliteraturaren artean. Egintzak eta ekintzak ditu gustuko, eta halakoxeak egiten ditu, sarri-askotan egunkarietan horien berri agertu ez arren. *Huntaz eta hartaz* ongi informatua dabilela ere agerian du berak, igarri-igarian. Horrek nahiz berez duen halako puntu mingots kritikoak erakartzen naute berarengana, ohiko losintxa merkeetatik ihes eginda.

Etxe barrura sartzeko keinua egin diot eta zizpuru batean izan dut mahaiaren beste aldean. Isilik ari gara. Ni,



kezkatu, ordenagailuari eragin ezinik. Berari, gogoetatsu, zigarro baten kea dario ezpainetatik.

Halako batean, *zelan?* galdetzailea hark esanda, gure arteko hitzik eza hautsi da. Arrapaladan etorri zaizkio hitzak, eta, luze jardun ondoren, bera esatari eta ni entzule, ausartu naiz, arnasa hartzeko une bitartean, zerbait azaltzera. Autuak Akarregi piztu du, beste behin ere, eta berehala izan dut zer idatzi eta nondik moldatu kronika labur hau.

## Espainiako Konstituzioak 25 urte

**E**z du Akarregik arrangura handirik Espainiako Konstituzioaren 25 urte horiengatik. Kezka du, ostera, orain dela hogeita bost urte erabilitako formula hura etengabe errepikatzean, euskara ere gaztelaniarekin batera ofiziala dela adierazteko.

Haritzen da, halaber, Akarregi, munduan ibilita, nola ez den aldaketarik antzematen ofizialtasun horren bidean, nola ez den asmatzen bestelako sentsibilitaterik hizkuntzen araubidean, eta, hurrean ere, erabilera asmotsuan.

Dio Akarregik ez ote den izan egingarri, besterik gabe, hogeita bost urte luze horietan Espainiako estatuak ere aurrerapausoak ematea, gaztelaniaz besteko hizkuntzak sustatu, bultzatu eta plazaratzeko. Ezkutuan bizi zaizkigu gaztelaniaz besteko hizkuntzak, gutxietsiak eta behe-ratuak, Espainiak duen kultura-ondarearen alde esanguratsuak ez balira bezalaxe.

Akarregik, edozein modutan ere, osterantzeko ikuspegia azaldu dit, baiezkor baitago Zapatero gobernuburu espainiarrak agindutako giro berriaren aurrean. Nik horiek edergarri hutsak ez ote diren galdetu bezain azkar, bera, ihardesle zuhur, ezezkoan, aldi berriari emaile eta fruitudun baiteritza.

Eztabaida bizian jardun arren, adiskidantzaren zeinua egin diot, eta kafetxea hartzeko gonbita ere luzatu. Sukaldera goaz, gauaren isilpean. Zarata-egile bakarrak geu gara, eta, jakina, autu pisuzkoak daramatzagu esku artean.

## Europaren bahitura

**K**afea berotu bitartean, hitzen norabidea bestera dator. Nolanahi ere, berba atzeratu diot Akarregiri, galdera arazotsua azaleratu baitut: *Eta Europa zer?* Mitologiak dihardu Akarregik, Europaren bahitura dela eta ez dela.

Nik, berriro, itaunaren gunea bilatu eta zer-nolako bahitura zen hura jakin nahian, ea Europak berak ez ote gaituen bahituko adierazi dut, inori ezer esan ez eta baka-rrik banengo legez. Bistan da halakoak sarri-sarri gerta daitezkeela, batik bat norberak gauzak noiz eta nola azaldu jakin gabe diharduenean.

Haria gora, haria behera, Akarregik dio Europako horrek baduela esanahi handia, Europa bera baita gure bihar-etziko xede eta helmuga. Gaurkoa ere badela erantzuten diodanean, Akarregik berak, kafearen kikara esku batez hartuta, zera diost: Europakoa konpontzeko, lehenengo eta behin, etxekoa konpondu behar dugu euskaldunok, alfer-alferrik joango garelako kanpora etxea hankaz gora dugula. *Etxekalte*, *kanpoeder* ote gabiltzan euskaldunok galdetu izan diodanean, Akarregiren gogoia ostendu da, itzali, ariman aspaldiko min-zauria duenaren antzera.

Min-sorra bada ere, egunero bizi behar, dugunarekin eta ez dugunarekin. *Egunean eguneangoa* dio Akarregik, filosofia pragmatiko batez, eta, hortaz, inkesa berria etorri zaio, European euskarak zer izan behar duen jakiteko.

Erantzuna, hala ere, ez du erraz izango Akarregik. Euskara ofizial izan beharrak kezkatzen du Akarregi. Noraino izango den komunikazio-hizkuntza, noraino lan-hizkuntza, hil ala biziko dema begitantzen zaio berari.

Belamira esan diot, ia isilean, menturaz irtenbidea bestetik etorriko dela, alegia, euskara bera estatu espainiarrean ofiziala izatetik, zin-zinez eta alor esanguratsuetan. Labur-zurean esanda, Espainiako estatuak bereak egitea, oso-osorik, gaztelania, euskara, galiziera eta katalana. Enparauak ere ezin zokondoan utz, demokraziaren izenean eta onurabidean.

## Ohore idazleei!

Aka regik, baserri ta ren usantzara, kolkotik atera du jarraian halako paper horixka, denboraren ajeaz ia-ia berdetuta. Erakutsi ahala, bizpahiru aurpegi ezagun nabarmendu ditut letren artean ziren argazkietan. Besteak beste, aurten zendu diren bi euskal idazle jator. Bata, ondarrutarra, Augustin Zubikarai; bestea, andoaindarra, Martin Ugalde, itsasaldeko Hondarribian bizi zena. Bitzuok ari dira argazkietan, euskaltzainburuaren eskutik euskaltzain ohorezko gisa euren agiriak jasotzen. Urtea 1993.a da, eta, lekua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Berehalakoan bota diot harrikada Akarregiri: *Zein er-kide eta bateratsu, eta zein desberdin bi horiek!* Lehen so batez, Hondarribia eta Ondarroa begi-bistara ekarri dizkit Akarregik eta bi herrion itsasotasuna eta mugatasuna azpimarratu. Izan ere, itsasoz, lurraldez, euskalkiz... biak dira herri irekiak, euren barruari begira, eta, aldi berean, kanpokoari begira bizi direnak. Horrek ere nortasun handia ematen die, jende ala ingurumen, bi-bioi.

Belaunaldi bertsukoak, eta, hala ere, euskalgintzan norabide desberdinekoak. Martin Ugalde andoaindarra, euskaraz zein gaztelaniaz, idazle sendoa, egundoko ahalegina egin zuena euskara menderatzeko eta erabiltzeko, euskaldunen hizkuntza nazionala den aldetik. Unamunori zer esan eta zer idatzi izan zuen hark. Euskadiren historia ere guztion gogoan jarri eta euskara mailu malgu erabili zuen, literaturaren alorrean moldaketa ederrak egiteko. Hitz gutxitan esanda, goi mailako intelektuala, eta ez dezagun ahantz, herriaren zerbitzari ere, beharrezkoa izan zenean, administrazio, politika zein euskalgintzako ardurak hartuta. Akarregik, aurrekoak entzun arren, beti zirtolari eta mesfidati: *bai, eta horrexegatik, hain zuzen ere, bide-gabe zikindu nahi izan zuten haren izena.*

Arinduta moduan igarri ditut gogoia eta eskua, Zubikarairi buruz dihardugula Akarregi eta biok. Hitzak azkar doaz eskutik pantailara, gogotik harakoak, idazle ondarrutarraren nondik norakoak zirriborratzerakoan: Bizkaiko muga-mugan jaioa, Ondarroan bertan, kresalaz zipriztin-

dutako idazlea, gerra aurreko giro itxaropentsuan jada euskalgintzan ibilia, eta gerra bitartean euskal kazetaritzaren sortzailetarikoa. Urte hits eta luzeetan, euskararen suspertzaile eta eragilea, hamaikatxo sail eta gaietan ibilia, betiere euskararen bizitasunari muzin egin gabe. Hori genuen Zubikarai. Hori eta beste gauza asko ere bai, berori izan baitzen, bizitzaren azken urteak arte, hainbat euskal ekintzen bultzatzaile eta hats-emaile.

Horietan guztietan, zer esanik ez, euskara bera zuen gidari, euskara herritarra, endaz bor-bor zetorkiona. Maiz aipatzen dira oraingoetan euskalkiak eta azpieuskalkiak, euren estandarizazio beharra eta premia... inoiz ezagutu ere ez diren gehiegikerietan modurik errazenean jausteko. Ahaztu dira, zokoratu ditugu, gure sartaldeko klasikoak. Gaiak ez omen dituzte erakargarriak. Gaindituta omen daude. Bego. Hizkera, aldiz, aberasgarri zaie, eta, esan dezagun argi, anitzentzat eredugarri, batez ere, euskara bera ekarpen desberdinez hornitu behar dugunean.

Bi biografia, bi adibide. Hala nahi izanez gero, gipuzkoarrarena abstrakzio-maila goragokoa; bizkaitarrarena bi-ziagoa, herriaren berbetari atxikiagoa. Bi-biok, bistan da, elkarren osagarri, eta, paradoxaz bada ere, egun euskarak bizi duen egoeraren adierazgarri.

Izatez, horixe da euskararen erronka latza, jatorrizko iturriak alboratu gabe, egunotako jakinbideak behar dituen lanabesak sortzea, hizkuntzaren sena eta hiztunen jarduna aintzakotzat hartuta.

Akarregik, erretolika luze hau entzun ondoren, marmarrean edo, *hala bedi* sotil batez itxi du kontua.

## **Agur, Andolin adixkidea!**

Hutsak eta hutsarteak, alabaina, laburrak izaten dira, eta mundua, mundu deino, beti jirabiran eta dantza eroan ibiltzen da. Hala gertatu da aurten ere, Andolin Eguzkitza euskaltzainkide eta adiskidearen heriotza jakin izan dugunean. Tristezia eta sumindura izan dira lehen une latz horietako sentimenduak. Gero, orduak aurrera joan ahala,

sinestezina, eta, azkenean etsipena, joan zaigunaren presentzia ezaz jabetu arte.


Akarregi ere, pasarte hau aditu diodanean, uzkur eta pentsakor jarri da. Ea Andolin ezagutu zuen galdetu diodanean, berehala erantzun dit baiezko biribil batekin, Andolinnek ohiko zituen kostaldeko egotaldi haietatik batean eza-gutzeko aukera izan baitzuen. Ez daki Ondarroan edo Lekeitio izango zen. Badaki, ziur asko, Franco bizirik zegoela —halaxe dio Akarregik—. Edozein modutan ere —gehitzen du berak—, luze eta aspergabe hitz egin zuten neguko gau euritsu batean, itsasoko portu baten uretan kandelen ipurtargiek diz-diz motelak egiten zituzten bitartean.

Zertaz? Areagotu diot Akarregi kostaldekoari, adiskide joanaren akordua piztu nahian. Haren ihardespena: zuk esan bezala, *huntaz eta hartaz*, beraren kezka, bizitzaz, kristau sentimenduaz, minberatasunaz, lagun hurkoarekiko arduraz, literaturaz, poesiaz, euskaraz... Denak izan genituen solasgai.

Akarregiren azken berba horiek, une labur batez, Andolinen irudia zirriboratu dute nire gomutan. Ez da, ez, izango gure ekintza-tankera molde berekoa, Andolin gabe. Omenak eta aipamenak egingo zaizkio; biografiak eta laudorioak edonora barreiatuko dira. Baina hori, barruan utzi digun irudi sentibera eta maitagarri hori, zail samar izango zaigu berriro ere lortzea, eskuratzea. Hori da gale-raren samina, eta, aldi berean ere, oroitzapenaren indarra.

Isilak, berriro ere, oharkabean asaldatu gaitu.

Gero, Akarregik berba hartuta eta gauaren mantupean, datorren urteko gai eta kontu puntarengoetara itzuli gara, bera zigarro erretzaile eta ni idazle, izatearen beraren misterioetan murgildu arte...¶



## Josemari Velez de Mendizabal

### Ta ruim mas ta bom

Lagunei esaten diet, konbentzituta eta ezelako apaltasun faltsurik gabe, gero eta gutxiago dakidala. Eta une haue-tan jakintza arloan eduki dezakedan balio bakarra adina dela eta horrek eskainitako perspektiba. Zientzia uretan erraztasuna galdu dut eta hutsuneak antzematen ditut ni-re baitan, eta —agian zahartzaroaren sintomarik argiene-takoa— prestasuna galdu dut gai berriak ikasteko. Bizit-zan hartutako kozkorrekoak esperientziaren mailarekin zuzenean erlazionatuta badaude, badakit zer saldu behar dudan aurrerantzean. Gainerako jantziak koloregabetu egin zaizkidala ohartu naiz.

Urteen joan-etorriekin jasotako talaiak diost lehengo nire baikortasunean jarraitzeko arrazoirik ez dagoela. Bai-na horrek tolosar lagun handi bati sarri entzundakoa baiez-tatzen dit: zaharrek ezin dute promesik egin. Eta horrela da, gazteek baitute agintzarako ahalmena eta, halaber, baikorrek izateko beharra ere. Nire adinekooi poliki-poliki hoberen egokitzen ari zaiguna kontrapuntu jarraikiari zintzotasunez eustea da. Horretan jar dezakegu ahalegina, okertzeko beldur handirik gabe.

Euskaldunek Brasilgo garapen historikoan izandako ekarpen txikia biltzen duen liburuaren Sao Pauloko aurkez-penaren ondoren, ikerketa interesgariaren egileetariko ba-tek —Estebe Ormazabal gazte beasaindarrak, hain zuzen— «*Ta ruim mas ta bom*» idatzi zidan, euskal kulturari buruz eta, oro har, eguneko munduaren betarteari begira nire bai-tan sorturiko eszeptizismoa dela eta. Petral dago baina ongi dago. Gutxi gorabehera, inoiz nik ere —begi gazteagoekin aztertzen nitueneko garaiak ziren, nonbait— erabili dudan «egoera itxarogabea da, baina ez larria» hilari-esaera.

Aurtengo kultura otarrean hizki larriz idatzitako alea Kulturaren Euskal Plana (KEP) dugu. Irailaren 28ko aurkezpenean Ibarretxe Lehendakariak, Euskalduna Jauregira bildutako laurhun pertsona baino gehiagoren aurrean, «euskaldun guztiontzako nortasuna eraikitzeko lanabestzat» hartu zuen KEPa. Onartu behar dut gutxitan sortu duela horrenbeste arreta Eusko Jaurlaritzatik plazaratutako beste edozein gaik. Eta begi bistan dago planaren gauzaketan kolektibo zabal eta jori batek hartu duela esku. Baina, Ibarretxek eraiki hitza beharrean indartu erabili beharko ote zuen alde batera utzita, diodan nire baitan zailantzak ditudala, eta ez txikiak, gainera.

KEPak geure nortasuna indartzeko balio badu, ongi etomia izan dadila. Galderak sortzen dira, dena den, EAEko erakunde publikoetatik bultzatu nahi den egitasmo honen zein-nolako ahalmena izango ote duen planteatzen denean. «Ta ruim» edo horren hurrena aplika geniezaioke abiapuntuari, gure nortasunaren elementurik garrantzitsuenak —batez ere euskararen ingurukoak— nola dauden ikusita. Gernikako Estatutuak ez du ekarri, ezta urrutitik ere, gure hizkuntzaren kontsolidazioa bizimodu arruntean. Eta beldur nago klase politikoa ez dagoela gertu alderantzizko planteamenduetan.

Urri oso elkarriketa interesgarri bat izan genuen Eusko Ikaskuntzako kide batzuek Buenos Airesen SAAPeko (Sociedad Argentina de Analistas Políticos) presidentearekin, eta ni behintzat txundituta utzi ninduen hark gure egoera linguistikoaz zuen ideia okerrak. Urtetako espainiar publizitate mota batek euskara-espainiera binomioari buruz eskainitako irudi desitxuratuan oinarritzen zen argentinarraren politologia bere planteamenduan. Inperioko hizkuntza mehatxatuta balego bezala! Lortu dute —bai, ongi lortu ere— ispiluaren bestaldetik erretratua zeharo bestelakoa proiektatzea.

Baina, egia aitortzera, ez nau argentinarraren lagunaren iritziak geure gizarteko axolagabekeriak adina kezkatzen. Askoz larriagoa da euskaldunok eguneroko bizitza-moldean euskarari erakusten diogun aurpegia. Aurpegi zurbila, odol gabea, ia-ia hilda. Horrexek jartzen nau dardaran. Ez

garela gai zulo ilunetik behar bezalako indarrarekin ateratzeko. Ordenamendu juridikoak ez digu laguntzen, eta KEPa horretan kokatu behar da. Beraz, euskarari lagungarri gerta lekiokoen pausorik ez da eman.

Hogeita bost urte inguru daramazkit gauza berdinak idazten. Eta tarte horretan ez zaizkit argudioak eman baimkorrago bizitzeko. Euskara ez da salbatuko, soilik, egitura politikoa zeharoko babesa ematearekin. Ez, hori garbi dago. Baina euskaldunok ahalegin guztiak egingo bagenitu ere —estamentu publikoek laguntza ekonomikoak luzatuz—, berdintasunezko egitura politiko hori gabe porrot egingo genuke zalantzarik gabe. Eta gure Estatutuak —Gernikakoari nagokio, bestea hobe baita ez aipatzea— bigarren mailako hiritartzat hartzen gaitu euskaldunok, espainieraren morroi. Europar Konstituzioak areagotu egiten du gure etorkizunaren belztasuna eta oraindik abiatu ez deanean ere iragarpenik txarrenak eskaintzen dizkigu.

Alde horretatik, positiboa iruditu zait katalanen eskaera berria euren hizkuntzari buruz, negoziazio politikoaren barruan, «katalanera ezagutzeko beharra, erabiltzeko orduan borondatezkoa izan arren» planteatu dutenean. Aurrrera egiteko ezinbesteko erabakia da. Tamalez, gure politikariak ez lirateke halako zerbait eskatzeko gertu egongo, euretako gehienentzat egundoko «sakrifizioa» izango baidizateke euskararen maldetatik gora abiatzea. Euskal alderdietako ordezkari politikoak —25 urte eman ondoren!— euskaraz hitz egiteko gai ez direnean... «ta ruim», ezta?

Katastrofe giro horretan murgil, euskaldunok militantziako jardun neketsu eta zamatsuan segitu behar du... leher eginda erori arte. Bibliar zigor ezezagunen bat egokitu izan balitzaigu bezala ari gara, Ibarretxek aipatutako nortasun horren adierazlerik garbienaren aldeko apustuan. Apustu bitxia, bai jauna, geu bakarrik baikara jokoan interesatuta. Jardun etsigarria egokitu zaiguna, alafede!

Aurreko urteren bateko oraingoaren gisako nire ekarpen txikian nioen, kulturaren balantzeak ordenako kontu edo partidaz beteta daudela. Eurekin ariketa aritmetikorik burutzeko ezintasuna darakustenak direlako, balantzeko eskema orokorrari halako itxura ukigabea ematen diote.



Ez dira batugarri ezta kengarriak ere. Batez ere tesoreriako txostenetan islapenik ez dutelako, merkatal enpresetako balantzeetan gutxitan agertzen zaizkigun partida horiek behin eta berriz ematen dira kultura kudeatzen duten elkartean. Bitxia bada ere, kezko ekaiak saltzen dituzten erakundeetako balantzeetan, normalean, ordenako partidak dira nagusi. Noski, balantze horiek ez dira burtsan kottizatzen.

Euskal kulturaren aurtengo balantzean —ez dakit Jaurlaritzako Sailarenean honez gero irakurri ahal izango den— Kulturaren Euskal Planak toki bat izango du, zailtzarik gabe. Eta baita eragile askorenetan ere, nork gehiago nork gutxiago, denok baitute plangintza horretan interesa azaldu. Eta hementxe dator, hain zuzen, Estebe adiskideak oroitarazten zidan «mas ta bom» aldea, Planak halako astindu txiki bat eman baitio kontzientziari, itxaropentsu izan daitekeela adierazi nahi izan baligu bezala.

Heldutasun luzeko produktua dugu Plana eta, beraz, gutxienez 2015era arte itxaron beharko dugu iragarpenek asmatu ote duten jakiteko. Ziurrenik, ni ez naiz data horretan gogoarekin egongo gaurko nire balantze partikular honen ordenako kontuak zeinu positibo edo negatiboz baliotatu beharko ote ditudan errepasatzeko. Baina, agian, baten bati otu lekiok historiako erregistroak errebisatzea eta orduan nire testu honekin egin lezake topo. Iragarpenarako nire abilezien neurriaz jabetzeko aukera badu, on egin diezaiola.

Aspaldiko partez, Planak, ene iritziz, hutsune bati egin dio aurre, hots, eragileen arteko inkomunikazioari. Batzuetan elkarri bizkar emanda bizi izan dira, egozentrismo merke batek jota. Beste batzuetan, gaizki ulertutako lehiakorasunari atxikita, esfortzuak alferrik xahutu dira, ezertarako ez erabiliak. Gutxitan asmatu da, eragileen euren aldetik zein erakunde publikoenetik, estrategietan. Eta, zoritxarrez, urte luzeak eman dira noraezeko zurrumbiloan, bidea non zegoen igarri gabe.

Orain, badirudi diagnostikoarekin ados samar jarri garela eta gure ekoizpena (barka, purista maiteok!) non-

dik bidera genezakeen ikusteko prest gaudela. Zerk ekarri du jarrera-aldaketa hori? Nik esango nuke premiak bildu gaituela. Azken hogeita bost urteotako tratamenduak ez du gure kultura osasunbidean ipini. Eta, alde batetik, horren porrotaz ohartu egin garela aitortzera ausartuko nintzateke. Beste alde batetik, baliabide ekonomikoak gero eta murriztagoak ditugu eta gauza jakina da behar gorritasunean gehiago ikasten dela unibertsitatean baino. Garaiak dira aldaketarako, eta badirudi euskal kulturako eragileek erronkarako txartela eskuratu dutela.

Dena den, nik ez dut uste euskal kulturaren izatea edo ez izatea plan horretan datzanik. Planaren arduradun baten ahotik entzundako hitz horiek potoloegiak inuditzen zaizkit, ardurak berak eta —batek daki!— haren zabalera neurtezinak eraginda. Ezer ez da definitiboa gure bizitza honetan, gauza bat ezik, eta hori hain zuzen hura amaitzen den puntuan ematen da. Plan honek ez du ekarriko euskal kulturaren betiereko salbamendua ezta desagerpena ere. Plan hau, aurrena dela kontuan izanda ere, plan bat da, eta samur asko ordezkia liteke beste batengatik, bideko zaintzaileek puntu ahulak ikusiko balizkiote, eta ordezkapenerako ordua iritsi zaiola ikusi bezain pronto.

Beraz, KEParen garapen eta bilakaera naturalak espazio berriak ahalbide litzake, gure kulturaren hain beharrezkoak ditugunak. Horrezaz jabetzen bagara askoz hobeto joango zaigulakoan nago, eta horrexegatik bakarrik izango balitz ere, esperientziako talaiak eskainitako «mas ta bom» azpimarratuko nuke ostera. Eztabaida guneak sortu behar ditugu, etengabe. Horien bitartez etorriko da gure gizartearen dinamizazioa. Eta ez naiz, noski, ezinezkoek hitz egingen. Ez. Euskal nanogizarteak ez du miraririk behar, errealismoa baizik. Ezen, arras aldagarri zaigun mundu honetan euskal kulturaren definizioari mugak jartzeari ez deritzot ongi. Gure giza testuingurua ere zein den garbi ez dugunean, sinplismo handikotzat jotzen dut mugaketa hertsia.

Ezin da mundua —are gutxiago gure komunitatea— garaile jantzien eta galtzaile eztebeen artean banatu. Gure kulturaren alde lan egiten bada handiago eta boteretsuago den beste edozeinen aurka, gureak egin du. Eta eus-

kal kulturak autokritika zehatza behar du, norantz baina baita ere nola eta zein preziotan jo nahi dugun argi uzteko. Irekiak izan behar dugu, bekoki zabalekoak. Mila urteko gure begirakuneak herri jipoitu baten irudia ekartzen digu, baina baita ezaxolagabearena ere. Ez ahantzi hori!

Europa osoa ari da pil-pilean, zein-nolako modelo politikoa ezarriko ote den irrikan. Herrien nahiak islatuko ote diren galdegai, ahaztu ezin daitekeen beste gauza bat honoko hauxe da: Europa kulturen kontinente bat da, kultura desberdin askoren errealitatea. Eta horren erdian gureak iraungo du, sortzen ari den bilakaera sakonaren zurrunbiloari behar bezala eusteko gai bagara. Kultura ahul bat beste indartsuago batekin tril egitean, modu aurrerakoian edo modu atzerakoian erantzun daiteke. Azken horrek, bat ere zalantzarik gabe, galbidera eramango du ahula. «Nik neureari» hertsu batek azkena ekar dezake ikusi nahi ez duenarentzat. Pasibotasunak —hau da, datorrenari aurre egin gabe jarioan eroso labantzeak— heriotza adieraziko du, uholdean itota.

Aldaketaren aurrean, horren eskemaren barruan aktibo izatea iraupenerako bermerik gehien dakarren jarra da. Proaktiboa modu aurrerakoian ari da beti, eta euskaldunok horren alde jokatu beharko dugu, europar treneren bagoiren batean. Eta hori lortzea berrikuntzarako gure gaitasunean datza, neurri handian. Berrikuntza metodoetan, berrikuntza buru-eskeman, berrikuntza lanabesetan. Egitura zaharrak, materialak zein espiritualak, errebisatu behar dira, gordintasun osoz. Eta aldaketarako jarrera positiboak sortarazi beharko dira, esperimentazio eta arriskuari beldur gabe.

Kulturari buruz normalean ulertu diren zentzuetan bada bat niretzat oso interesgarria, kultura aberriaren osagai bat dela dioena. Mugaketa hori nire aldetik eszeptizismoz hartzen dudan arren —ez baititut garbi aberriaren parametroak—, euskal laginari aplikagarria deritzot. Horrezaz gain, kulturaren gaineko teoria horrek beste ideia hau ere defendatzen du, kultura, berez, ez dela beste kulturetatik aparte existitzen. Horrela izan daitekeela pent-

satze hutsak, euskaldunok modu aurrerakoian arituko ga-relakoan nago.

Eguneko globalizazioak —atera da azkenik zorioneko hitza!— atzoko kolonialismoaren xede berdinak dituela diote aditu askok. Kolonizatzaileek autoktonoen prakti-kak ezabatu zituzten, gupidarik gabe, euren ekoizpen sis-temak, merkatu arauak, elementu kultural, politiko eta sozialak ezarriz. Geldi egonez gero zer espero dezakegun asmatzea ez da zaila. Gaurko ordena ekonomikoak hutse-tik inposatu nahi duen ordena kulturala dakar. Ardatz ho-rrren inguruan dabil mundua —euskal gizarte ikusezina barne. Horrexegatik zaigu interesatzen proaktibismoa, da-torrena gerarazteko gai ez garenez gero jarioa gure alde nola jar genezakeen asmatzeko asmoarekin.

Garapena —iraunkorra izango bada garapena izan b ehar; eta garapena izateko, derrigorrez ekonomikoa izan behar— eta kultura elkarren ondo-ondoan doazen kont-zeptuak ditugu. Zibilizazioak muturreko bidean jarri du gizadia —gauza desberdinak balira bezala!— eta zibiliza-zioari dagokio oreka bilatzea. Gure mikromunduan ere, euskal kultura ez doa euskal gizartearen bidetik, ezta hu-rrik eman ere. Batzuetan ezta paraleloan ere, gero eta za-balagoak baitira lotzen gaituzten diferentziak. Protagonis-ta desberdinen nolakotasunak direla eta, diferentzien jar-dun iraunkorra onar liteke, elkarri begirunea azalduz. Di-bergentzia jarraikiak, ostera, euskal kulturaren desitxura-keta etengabea ekarriko du.

Euskal kulturak esperantzaren paradigman bizi behar du. Zer dela eta? Beste irtenbiderik ez duelako! Industria-iraultzak euskal gizartea ongizatearen bidean jarri zuen, eta horrek hiritar askoren autoatsegina piztu zuen. Oraingo belaunaldi berrien indarrak baliatuz, kontzientzien astin-dua etor liteke, eta —zergatik ez?— orain arteko planteamendu ez zuzenak alda litezke. Niri behintzat itxaropen iz-piren bat ekarriko lidake erronka berrien sorkuntzak, euro-par testuinguruan espazio berriak irabazteko balioko bailu-ke. Niretzat, gero eta ziurrago, Euskal Herria espazio kultu-ral bat da, eremu galdu edo irabazi egin dezakeena.

Horren adibide gisa, azaroan Araban egunkari berr i baten jaiotza ageri da. Orain artekoek ez bezala, ekimen berri honek garapen iraunkorreko oinarritzko baldintza betetzen zuen: itxaropengarri izateaz gain posiblea ere bada. Gainera, gutxi bailitzan, Nafarroatik etorria! Informazioaren diktadura bere azalean pairatzen ari den arabar herrialdeak badu, beraz, hautaketa gehiagorako aukera. Argitaldariaren asmoa, antza denez, laster oinak Gipuzkoan jartzea da. Eskertuko genuke, bai jauna!

Jami ditut, beraz, nire balioak aurtengo balantzean, baina ez dut numeroz kalifikatu. Badakit jakin argazki bakar batek ez duela pelikula egiten, eta aurtengoak soilik ez luke iritzi egokirik eskainiko. Hala ere, ez dut nire burutik oker gabiltzalako ideia ezabatu nahi, alderantzizko jarrerak min egingo bailioke urteotako nire konpromisoari. Bestalde, inoiz ameslari bati entzun nion «ez genukeen burutuko, ez bagenu ezina zela pentsatu» pentsamendua oroitu nahi dut, bidean pizgarri gerta dakidan. Edota «orain arte zailena egin dugu; aurrerantzean ezinari ekingo diogu» beste hura. Azken finean, ez bainago ziur garapen iraunkorrrak ameslari izaerazko espirituak ez ote dituen behar.

Datorren urtean berriz galdetzen bazait, ez dakit nola erantzungo dudan euskal kulturaren gaineko perspektibari buruz. Hasieran nioen moduan, talaia altu samarra daukat eta, beraz, begirada arin batez itsasoaren egoera eremu zabalean ikusteko parada ematen dit. Alde guztietatik hodei ilunak nabaritzen ditut. Hemen edo han deskargatuko dute, haizeak ezin baititu denak batera urrundu. Ekaitzerako gertu egon beharko dugu. Balio al du, dena den, ezertarako euskal talaiarien lanak?¶



## Iñaki Zabaleta Urkiola

### **Euskal herritar kultura kontserbadoreagoa**

**B**i mila eta laugarren urteak, kulturaren alorrean, albiste on, erdi on, eta txar batzuk ekarri dizkigu eta, halaber, aurreko urteetatik zetozen berezitasun batzuk nabarmenduagotu ditu. Horrela esanda, deus berririk ez.

Berezitasun areagotu horien artean ikusten dut *euskal herritar* kultura gero eta kontserbadoreagoa dela, gero eta instituzionalizatuagoa. Horren azpian dauden kausak hainbat dira, seguru, baina nik nahiko aurrean jarriko nituzke bakan batzuk. Bide batez, nola eta «euskal kultura» deiturak bere barnean zeraman «euskalduntasun» esanahia galduz doanez (eztabaida dugu oraindik egiteko honetaz), «euskal herritar» formula erabiliko dut hemen, behin-behingo, alderdi espaziala markatuz. Izan ere, nire lerro hauek ez baitira euskaldun kulturara soilik zuzenduko, baizik baita erdaldun kulturetara ere.

Azken urte hauetan, lehiakortasuna eta merkatu-borroka handitzean, kulturaren produkzio eta zabalkundeak diruaren behar handiagoa izan du eta horrek egile eta eragileen sorkuntza, ausardia, berritasuna eta interpelazioa moteldu ditu, «segurolatarrak» bihurtu dira. Gainera, EAE, Nafarroa eta Iparralde gobernatzeko dituzten alderdi nagusiak kontserbadoreak dira, populuzale itxurakoak izan arren, eta kasu batzuetan nahiko eskuindarrak (partehartzaile diren beste alderdi politiko txikiagoen eragina ez da oso handia *euskal herritar* kulturaren bizitzan, apika). Nazioartetik etorri den olatu eskuindarrak ere hemen ondorioa izan du. Beraz, 2004ko urte honetan *euskal herritar* kultura kontserbadoretu egin da, eta instituzioen laguntza onarpen eta aitortza ofizialaren zaletuagoa bihurtu da. Horixe da aipatu berezitasunaren beste arrazoi bat: kultur

jarduera guztietan sariak eta omenak daude, barra-barra, zernahi motatakoak, erakundeek eta agintariek emanak, eta badirudi autore, egile eta eragileak horien irrikan dardela, gutziatsu, agian sinetsirik kultur-gile hobeak direla, edo hobetzat hartuko dituztela kulturaren merkatuan, sariak, diplomak eta txapelak (ez zapelak, gure herrian esan bezala, txikiak baitira) eskuetan izanik. Ondorioz, kultur-egileek oso otsein, miazkatzaile, jokutzen dute gobernu-koekin, edozein dela hau. Ez da harritzekoa, kulturaren alorreko enpleguak baldintza eskasak izaten baititu eta, orokorrean, kontratuak behin-behinekoak, autonomoak eta lanaldi erdikoak izaten baitira, Eurostat-ek berriki argitaratutako txosten batean dioen modura. Beraz, lausengugile izatea komeni zaie kultur-gileei eta idazleei, subentzio eta sarien merkatua txikia izan eta txikiagotu baitaiteke. Banitateak ere bere tokia du.

Ez da deus berririk, egia esan. 1975. urteko otsailean *Anaitasuna* aldizkarian argitaratutako «Panpina ustela manifestua»-n K. Izagirre eta B. Atxagak zioten eta zeuden «sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriak idazleak zapuztu ta ito egiten dituztelakotz». Letra txikian eta parentesi artean esanda, ez dakit, bada, Atxagak zer pentsatuko duen orain orduan esandakoaz. Nik ere jaso ditut subentzio eta sariak, pozik jasoak gainera, beraz, ez nadin gehiegi lekutu, alboratu, neure pardela jaso gabe.

Zeharbidez esanda, bitxia da, gainera, ikustea, urte asko ez dela beren buruak muturreko ezkertiar bataiatu zituzten hainbat eta hainbat direla gaur egun kulturaren instituzionalizatzearen ideologoak eta teknikariak (erraus-tegiekin bezala). Beren ultraezkertiar itxuretako garaietan egokitasun ideologikoaren labelak banatzen zituzten horietako asko dira gaur egun agintari kontserbadoreen adi-tuak. Orduan bezala orain, «ongi kokatuak». Nire ustez, gobernu alderantz eman duten jauzia ikusirik, ez dakigu non zegoen beren egia, aspaldiko ezkertiar-tasun hartan edo oraingo erakundetasunean. Deus berririk ez, edonola ere, gizakiaren historian. Nire aldetik, lehengoaren antzekoan gaude, ultraezkertiar haiek ezten modura eta guk, ber-ritz, poztasunez hartzen genuen «sozialista-humanista-kul-turalista» deitura arrunt harekin jarraitzen dugu.

*Euskal herritar* kulturaren kontserbadoretze honen adibide argi bat dugu herrietako jaien eredian sartu edo bultzatu nahi dituzten aldaketak. Lehendik dakigu Donostiako Semana Grandea oso instituzionalizatu eta kontserbadorea dela, eta Odon Elortzak eta bere zinegotziek, sozialista deitura izan arren, nahiko jai-eredu eskuindarra ezartzen dutela, hiritarra ikusle geldoaren paperean ezarri. Baina aurten Bilbon egon da auzia, aurreko urteetan ere saiaturia. Iñaki Azkuna alkateak eta bere kultur zinegotziak, zentsura praktikan jarri dutenak, presioa egin dute Aste Nagusiaren eredia aldatzeko eta instituzionalizatzeko. Aitzakiak, itxurazkoak gainera, franko eman dituzte, baina azpi-azpian helburua garbia zen: jai-eredu herritarra aldatzea, kontrolatzea. Zorionez, konpartsek eta hainbat kultur eragilek aurre egin diote erasoari eta, beharrezko egokitzapenak sartuz, lortu dute bilbotar jai-eredu jator, herrikoi, zabal eta guztientzakoa mantentzea. Adi egon beharko da, hala ere, zeren Azkuna alkateak, Osakidetza-ko buru izan zen urte luzeetan euskara baztertuta mantendu zuen pertsona berak, ez du amore emanen.

Gogoeta eta kritikarako ahapaldi eta adibide horiek idatzita, albiste positiboen garaia ere bada. Horien artean jartzen dut Kulturaren Euskal Plana. Miren Azkaratek irailaren 29an aurkeztu zuen Bilbon jendaurrean eta azaroaren 4an Eusko Legebiltzarrean. Beraz, oraindik onartu gabe dago. Gaztelaniazko eta euskarazko dokumentuak, txosten sektorialekin batera, jaitsi ditut internetetik eta irakurketa luze samarra eman diet. Nire ustean, kulturaren inguruko edozein plan izatea hobe da gabe egotea baino. Alde horretatik dator ikusten diodan lehen positibotasuna. Baina esperantzari «lehakumea» (Leitzako berba) soilik ireki diot, planak egitea beharrezkoa den neurri berean baita erraza (Juan Inazio Perez UPV-EHUko errektoreak, EIRE elkartearen *Eireka* aldizkarian dio plan estrategiko bat ordu batean egin daitekeela; hori gehiegitxo da, agian). Gainera, aurrekariak ez digute fruitu onik utzi: Euskara Biziberritzeko Plana, Kultura Sail berak atondua, erdizka eta gaizki bete da; Osakidetza eta Ertzaintza euskara, kultura plan berri honetako ardaztat aitortua,



*missing* dago, 25 urteko autonomia-aroan abertzaleak omen direnak sail bi horietan arduradun egon ondoren. Esperantza konfiantzaren etsai baita gehienetan, eta abertzale izateak deus gutxi bermatzen baitu euskarazko kulturean, diskurtso politiko boto-biltzailea zabaltzea ez bada.

Beste alde on batetik, iruditzen zait kultur plan honetan ahalegin berezia egin dutela euskarazko kulturaren garapenari bidea zabaltzen. Horretarako dago zazpigarren ardatz estrategikoa, «Kulturgintzan euskararen erabilera indartzea», zazpi lehentasunezko jarduera-ildorekin eta hamasei jarduerarekin. Alabaina, ez da aski, erro-eroko oker bat baitauka, nire ustez: euskarazko kultura kategoria bat, zati bat soilik da plan honetan, ez osotasun bat, unibertso bat. Akats hori lehen aurkezten eta ezartzen da, «Kulturaren eta kontzeptuen esparrua», non oinarri teoriakoak isurtzen diren. Jatorrizko idazkuntza gaztelaniaz egin denez, «vasquidad», «vasquismo», «vasco» eta antzeko beste kontzeptu batzuk karga eta ondorio handiak dituzte euskarazko kulturarentzat eta bertsioarentzat; eta erronkatu beharko genituzkeela uste dut.

Beraz, garbi esaten ez bada ere, erraz igartzen da Kulturaren Euskal Plana «Gaztelaniazko Kulturaren Euskal Plana» dela, non «vasco/euskal» adjektiboak *euskal herri-tar* eta/edo *EAEtar* esan nahi duen, kasuan kasu. Guk behar duguna da «Euskarazko Kulturaren [Euskal] Plana»; eta gaztelaniazko planarekin partaidetza egin «ez berbazko kultur sektoreetan». Bestela, euskarazko kulturak ez du garapen iraunkorrik izango. Horretan ari da gizartetik sortzen den euskalgintza, eta baita Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, «Euskararen Unibertsoa» izeneko Jardunaldietan oin hartu zuena. Gainera, Miren Azkaratearen Planean lagundu eta parte hartu dutenen zerrenda ikustean, iruditzen zait Kontseilua eta euskalgintzako hainbat sektore garrantzitsu ez direla agertzen. Ez al da ideologiarengatik bazterketa izango...

Goazen aurrera. Jarraian aipatuko dudan albistea ez da ona, ezta txarra ere, kontserbadoretzearen ildo berri-kusteko aitzakia baizik. Guggenheim Museoa, 2004an

ezagutzera emandako informazioan, 874.807 bisitari izan zituen 2003an, aurrekoan baino %3 gehiago; eta autofinantzaketa %70era iritsi zen. Azken kontzeptua nola xehatzen duten jakin nahi nukeen arren, datuek positiboak dirudite eta informazioak ez du interes berezirik sortu. Ez da beharrik ere, baina gogoratzen naiz, bai, Guggenheim «euskal euskaldun» eta «euskal erdaldun» kultur egile eta eragileen kritika-zakua izan zela hasieran. Hori zen kulturalki eta politikoki «egoki» garai hartan (onkeriarik izan gabe) eta idazle —ia denok gara idazle, merkea baita ofizioa— eta kulturgile —are arruntagoa— bakan batzuk soilik idatzi genuen hedabideetan haren alde, Bilboren berrikuntza integralak behar zuen indarguneetako bat bihur zitekeelako. Gero, betiko legez, orduko kritikatzailak, korrektotasun politikoak esaten duen legez, miresle eta aldeko bihurtu ziren, Euskal Herrian askotan gertatu dena. Bejondaiela, bejondaigula.


Otsailaren 23-29 bitartean *Periferia* izeneko Topaketak egin ziren Bilbon; idazleak, pentsalariak —nor dira horiek—, artistak eta musikagileak bildu ziren. Zeren periferia? Nondik begiratuta? Euskal kulturaren ere badago zentro bat, erdaraz egindakoa (gaztelaniaz nahiz frantsesez). Alde horretatik begiratuta, euskarazko kultura periferia da. Baina nago, euskarazko kulturaren barrenean ere badagoela beste zentro eta, jakina, beste periferia bat ere. Euskarazko kulturaren periferian kokatzen dira/dituzte «ezker abertzaleko eta inguruko idazle eta kulturgileak» eta erdian erakundeek beren altzo amultsuan hartutakoak. Bilbon, euskarazko zentrokoak zeudela uste dut, ez periferiakoak. Noizbait aztertu beharko dugu Euskal Herrian, ideologia politikoaren aitzakian, euskal kulturaren alorrean egin den diskriminazioa, jada usaintsua.

Albiste txarrak ere izan ditugu. Nola ahaztu joandako Martin Ugalde, Andolin Eguzkitza, Iñaki Uriarte, Manex Goihenetxe eta Agustín Zubikarai, beste batzuen artean. Halaber, nola gogotik kendu hainbat errepresio-ekintza, Alfonso Martínez Lizarduikoaren atxilotetaren modukoak, eta hainbat epaiketa-prozesu eta prozesatu injustu (izenik ez dut jartzen, ezjakintasunagatik inor kanpoan uzteko

beldurrez, baina denak sartzen ditut hemen). Hedabideen alorrean, azken urteetako aroari so eginez, *Ardi Beltza* izan zen lehenik, *Egin* egunkari eta irratiaarena geroago eta *Euskaldunon Egunkaria*-rena azkenaldera. Elkartasuna ere zabaldu da, indartu da; hala ere, penagarria da ikustea, kultur errepresio horren aurrean, EAEko erakunde, eragile eta agintari frankok «on eta gaiztoen» arteko bereizketa egiten dutela eta ideologia politikoa sartuta dagoela kulturaren solidaritatean, *Ardi Beltza* eta *Egin* egunkari eta irratikoak bazterrean utziz, adibidez.

Dena den, itxaropenaren haizea berriz goratu omen da, eta bakea ez omen dute ehiztariak oraindik hil. Usoak ere zikinak dira, ez dezagun ahaztu.¶

*Gaiak*



IBON URIBARRI

Immanuel Kant, gaur (1724-1804/2004)

87

---

# Immanuel Kant, gaur (1724~1804/2004)

•  
I B O N U R I B A R R I  
•

**K**anten heriotzatik 200 urte igaro direnean filosofoaren gaurkotasuna ez da gauza nabarmena, begi-bistakoa; alderantziz, Kant hilda eta ongi hilda dagoela esango nuke lehen begiratu batean. Alemaniako egunkarietan asko idatzi da Kanti buruz urte osoan zehar, eta behin irakurri nuen lautik hiru alemanek Kant izena *Kant* kalearekin lotzen dutela, baina beste ezerekin ez. Guk *Immanuel Kant* kalerik ere ez dugulakoan nago.

Eskolan oraindik ere filosofia ikasten da eta Kant agertzen da filosofo nagusien zerrenda labur horretan. Kantek Ilustrazioari buruz idatzitako testua irakurtzen dute ikasleek. Baina kontua ez da Kantek Ilustrazioari buruz esan zituenek interes historikoa ote duten, inolaz ere ez baitago zalantzan Kanten filosofiak izugarritzko eragina izan duela, baizik eta kontua da ea Kanten filosofia egun oraindik esanguratsua ote den, hori baita egun Richard Rorty eta beste askok, postmodernoek oro har, zalantzan jartzen dutena.

Beharbada gaurkotasun eza horren sinbolo ere bada Kanten jaioterria desagertu izana, Königsberg zena orain Kaliningrad baita (Michail Ivanovitch Kalinin, 1875-1946, Sobiet Gorenaren Batzarraren buru), eta Königsberg zaharretik oso aztarna gutxi geratzen baita. Ekialdeko Prusia-

---

► **Ibon Urbarri** Filosofian doktorea eta EHUko Ingeles eta Aleman Filologia Saileko irakaslea da.

ren hiriburu izatetik Errusiako lurralde baztertua izatera igaro da; alemana hitz egitetik errusiera hitz egitera. Hala ere, Kantek iraun egin du filosofo «aleman» bezala, eta, beraz, Kultura itxuraz gai izan da Geografiaren eta Politikaren arteko banaketa hori gainditzeko. Eta horrek egun ere ondorioak ditu: Kanten heriotzaren bigarren mendeurrena betetzen zen egun berean Joschka Fischer Alemaniako Atzerri ministroak Alemaniako kontsulatu berria ireki zuen Kaliningraden.

## Kant gizona

Orain ez naiz hasiko Kanten bizitza zehazki jorratzen (ikus horretarako nire liburua, *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*, Donostia, Jakin, Jakin Irakurgaiak 1, 1997), kontu batzuk baino ez ditut aipatuko zenbait topiko baztertzearren. Horien arrazoia neurri batean Kant gazteari buruzko informazio falta da. Eta hutsune hori betetzeko zenbait anekdota asmatu errepikatzen dira. Egia esan, Kantek inoiz ez zuen gehiegi idatzi berari buruz; *Arrazoi - men hutsaren kritika*-ren bigarren argitaraldian *de nobis ipsis silemus* jartzen du motto gisa, gutaz ez diogu ezer. Heinrich Heinek *Erljiioaren eta Filosofiaren historia Alemanian* liburuan esaten du ez dela erraza haren bizitza deskribatzea, ez baitzuen «ez bizitzarik ez historiarik izan». Iparraldeko bazter batean mekanikoki antolatutako bizitza egiten omen zuen. Bertako eliza nagusiko erlojua ez omen zen era erregularragoan eta pasiogabekoan bizi. Haren ibilaldiak hain erregularrak omen ziren, non jendeak erlojua doitzen baitzuen hura igarotzen zenean.

Erlojuarena ez da egia noski. Garai hartan sakelako erlojuak ugaritu ziren, antzerki-lanek ere gaia jorratzen zuten, eta norbaitek fenomeno hori Kantekin lotu zuen. Dena den, bi aldiz utzi omen zion Kantek bazkalosteko ibilalditxoak egiteari, Rousseau-ren *Emile* liburua ekarri ziotenean (Rousseauren erretratu bat zen etxean zeukan edergarri bakarra) eta Frantziako Iraultzaren berri izan zuenean (haren helburuak, Askatasuna, Berdintasuna eta Senideta-

sunak, bere filosofiaren oinarrian daude). Horregatik, giza-kiari garrantzitsuak zaizkion gauzez ziharduelako, Heinek «kanpoko bizitzaren eta dena deuseztatzen zuen pentsamendu suntsitzailearen arteko alde harrigarriaz» hitz egin du.

Heinek arimaren bila dabilen automata baten istorioa kontatzen du eta gero istorioari buelta ematen dio, soin baten bila dabilen arima aipatuz. Horrela, Rousseuren ideiek Robespierre-n aurkitu omen zuten soina. Eta hori izan zen iraultza egiteko baldintza eta abiapuntua. Baina frantsesak oso neurritsuak omen dira alemanen aldean: erregea hil dute, bai, baina Kantek Jainkoa hil du; *Arrazoimen hutsaren kritika* Jainkoari lepoa moztu dion zepata da eta, beraz, ideien suntsitzaile hori «Robespierriari aise gailentzen zaio terrorismo kontuetan».

Unibertitate ikasketak egin ondoren 22 urterekin *In -dar biziaren egiazko balioespenari buruzko gogoetak* lana idatzi zuen. Cartesiarren eta leibniztarren artean zegoen eztabaidan hartzen du esku Kantek lotsagabe garaiko fisikako arazo nagusien konponbidea aurkitu nahian. «Jarraitu nahi dudana bidea aurretik marraztu dut. Nire ibilbidea egitera noa eta ezerk ez dit eragotziko bertan aurrera egitea». Liburuak apenas izan zuen oihartzunik. Lessing-ek olerkitxo bat idatzi zuen Kant gaztearen atrebentziari buruz: «Kantek zeregin zaila hartu du/ Munduari irakastea,/ In -dar biziak balioesten ditu/ Ez du neurtu ordea berea». Gerrogo, beti ere natur zientziei lotuta *Naturaren historia orokorra eta zeruaren teoria* liburu zabala argitaratu zuen Newtonen ideien araberrako kosmologia bat eraikiz.

Kanten ekimenaren beste atal nagusia irakaskuntza izan zen. Ez zitzaion eskola gustatu, azkarra zen arren, eta agian horregatik irakasle ona izaten saiatu zen, eta leku-kotza gehien arabera lortu ere egin zuen. Haren eskolak, jendez gainezka egoten zirenak, edukiz beteak baina askeak eta atseginak omen ziren.

1756-63 bitartean errusiarrek hiria okupatu zuten borrokarik gabe. Errusiarrek administrazioaren kargu egin ziren, baina bizitzak aurrera jarraitu zuen eta gainera bizitza publikoa irekiagoa eta askeagoa bihurtu zen. Kantek garai

horretan egiten zuen bizimoduak ez zeukan zerikusi handirik bere lanean murgilduta bizi den jakintsu bakartuaren irudiarekin, bizitza publiko bizia izan baitzuen. Askoz geroago, hori bere bizitzako garai atseginena izan zela aipatu zuen. Aldarte horren lekuko, *Eder eta bikainaren sentipenari buruzko oharak, best seller* handia izan zena. Jakintsuen geletan egoteaz gain liburua damen bainuetan ere ez omen zen falta. Garai hartan pare bat aldiz ezkontzekotan egon zen arren, azkenean mutilzahar geratu zen: «Emakumea behar nuenean ezin nuen mantendu eta mantendu ahal izan nuenean ez nuen halakorik behar».

Baina bizimoduz aldatu zuen heldutasunean Rousseau-ren ideiak ezagutu eta ikertu zituenean.

Dena ezagutzeko egarria sentitzen dut nigan eta ezagutza zabaltzeko ardura lehiatsua edo oraindik hobeto aurrerapen bete ororen gozaldia. Garai batean gizatasunaren ohorea hori zela uste izan nuen eta jendaila ezjakina mespretxatzen nuen. Rousseauk zuzendu ninduen. Gailentasun ilusio hori desagertu zen; gizakiak ohoratzen ikasi dut eta langile arruntak baino baliogabeago sentituko nintzatekeen, ikuspegi honek denontzat balio duela uste izango ez banu, hau da, gizatasunaren eskubideak egikaritzea.

Horren ondorioz Kant filosofia lan garrantzitsuak idazten hasi zen. Horrela, 1763an *Jainkoaren izatearen frogapenerako froga-oinarri ahalgarri bakarra* agertu zen. «Izatea ez da predikatu bat», horixe izan daiteke liburuaren laburpena eta, ondorioz, Jainkoaren izateari buruzko ohiko frogen eznahikotasuna azaldu zuen. Ez da harritzekoa Vienan liburuaren salmenta debekatua izatea eta liburu debekatuen zerrendan sartzea. 1766an *Espiritu-ikusle baten ametsak, metafisikaren ametsen bitartez azalduak* idazten du eta bere bide berria zehazten hasten da: «Honenbestez, metafisika giza arrazoimenaren mugen zientzia da».

Gero ez zuen apenas lanik argitaratu 10 urte luzetan. Bere filosofia berria, filosofia kritikoa prestatzen ari zen. Azken emaitza 1781ean agertu zen, 57 urte zituela, lauzpabost hilabetetan 10 urteko lana laburbilduz idatzi zuen 800 orritik gorako liburukotea, *Arrazoimen hutsaren kritika*. Ahalegin hori guztia, ordea, hasieran erantzunik gabe



geratu zen. Heinek zabalpen arazo horien errua Kanti berari egozten dio hein batean. Ongi idazten zekiela erakutsi zuen arren, lan nagusia prestatzerakoan oso idazkera traketsa erabiltzen du. Heinek, dena den, onartzen du ikuspuntuaren berritasunak idazkera berri bat eskatzen zuela. Lehen iruzkinak agertu zirenean erabat kontrakoak izan ziren. Zenbait unibertsitatetan liburua debekatu egin zen, Stattler jesus-lagunak *Anti-Kant* liburua argitaratu zuen eta komentu batean txakurrari «Kant» deitzen omen zioten. Heineren arabera filosofiaren metodo berria garatzen duen eta bereziki ezagutzaren teoria jorratzen duen liburu hau da Kanten lan nagusia, besteak ez ditu ia aipatu ere egiten, baina lan horrek gizartean izan duen eragina azpimarratu nahi du. Horregatik, ideia garrantzitsuen agerpenen eta berbaitango gauzen arteko bereizketa da, eta bereziki horrek Jainkoaren ideian duen eragina. Hor Danteren hitz haiek idatzi beharko lirakeke, «Adio itxaropenari», dio Heinek. Geroago, Marx lagunak hitz horiek berak ezarri zituen *Kapitala*-ren atarian.

Hala ere, Kanten filosofia praktikoaren garrantzia aipatu behar da, eta hori azaltzeko begira Jean Paul poetak lagun bati idatzitakoa:

Eros itzazu Jainkoaren izenean bi liburu: Kanten *Ohituraren metafisikaren oinarrizapena* eta Kanten *Arrazoimen praktikoaren kritika*. Kant ez da munduaren argia, baizik eguzki sistema distiratsu oso bat.

Eta hiruganen kritika gisa ezagutzen den lanak, *Juzgame-naren kritika*-k ere eragin handia izan zuen. Bertan aurreko lanen hutsuneak gainditzen eta ezagutzaren eta etikaren arteko zubia eraikitzen saiatu zen. Liburuak Schiller-engan eragin handia izan zuen, Heinek ere aipatzen du hori, eta erabakigarria izan zen ondorengo idealismoaren sorreran.

Kant ez zen garaiko gertaera nagusiei bizkarra emanda bizi. 1786an arlo politikoan eragin handia izan zuen aldaketa gertatu zen, 1740tik errege zen Friedrich Handia hil baitzen. Une hartan Kant lehenengo aldiz urte erdirako Unibertsitateko errektorea zen, eta Friedrich Wilhelm II.a errege berria Königsbergera omenaldia jasotzera etorri

zenezan berak eman behar izan zion ongietorria. Kantek gazteluan egin zen ekitaldian parte hartu zuen, baina hurrengo egunean katedralean egin zen beste ekitaldira ez zen agertu (ez zen inoiz elizkizunetara joaten), gaixo zegoela eta. Errege berriak aurrekoaren jarrera aldatu zuen eta jakintsu alemaniar nagusiak Zientzien Akademian bildu nahi izan zituen berehala. Kant noski lehenengoetakoa zen zerrendan, baina errege berriaren aurkakotza topatu zuen, arriskutsua omen zelako. Kant ez zen inoiz Akademiako kide arrunta izan, ezohiko kide baizik. Gainera, laster errege berriak Frantziako egoera iraultzaileari aurre egiteko Hezkuntza ministroa aldatu zuen. Sei egun beranduago ministro berriak erlijioari buruzko ebazpena sinatu zuen eta hilabete batzuk beranduago zentsurari buruzkoa. Frantzian berehala iraultza hasi zen eta horrek, noski, ez zuen egoera hobetu Prusian.

1792an Kantek artikulua sorta bat hasi zuen *Berlinische Monatschrift* aldizkarian «Giza naturaren gaizki eradikalaz» lanarekin. Berlingo zentsurari aurkeztu zion idazki laburra, benetan beharrezkoa ez zena, Jenan argitaratu behar baitzen (Prusiatik at beraz). Dena den, komisioak argitalpena arazorik gabe onartu zuen. Bitartean, gainera, Fichte-ren *Agerkunde oren kritika* kaleratu zen Kanten laguntzaz. Egilearen izenik gabe agertu zenez jendeak Kantek berak erlijioaz idatzitako Kritika berria zela uste izan zuen. Artikulu sortako bigarren lana argitaratzen saiatu zenezan, debekatu egin zioten. Kant ez zen lasai geratu hori ikusita eta lau artikulua liburu batean bilduta argitaratzea erabaki zuen. Königsbergeta Jenako fakultateetan eskatu zuen argitalpenarako baimena, lortu zuen, eta horren emaitza 1793ko *Erljioa arrazoimen soilaren mugen bame* lana izan zen. Lotsagabekeria horregatik postua galdu eta erbesteratua izan zitekeela iritsi zen Kanten belarrietara, baina ez zuen atzera egin. 1793an «Hau teoriarik zuzena bai baina praktikan bali ez duela dioen topikoari buruz» artikulua polemiko luzean iraultzari buruzko jarrera zuhurra baina azken buruan baikorra hartu zuen. 1794an *Erljioa* liburuaren bigarren argitalpena agertu zen, eta beste artikulua bat argitaratu zuen, «Gauza guztien amaiera». Hor zuzen-zuzen kritikatzeko du

zentsuraren erabilpena erlijioaren defentsa dogmatikoa egiteko. Horrek erregearen erreakzioa ekarri zuen eta 1794ko uriaren batean erlijio gaiez irakatsi edo idazteko debekua iritsi zitzaion, inoiz baino ezagunagoa zenean.

Erljioaz idatzi ezin zuenez politikaz idazteari ekin zion. 1795ean *Betirako bakea* liburua izugarritzko arrakasta izan zen. Basileako bakea orduantxe sinatu zen, eta egoera berriari erantzuten zion lanak. Liburua berehala frantsesera itzuli zen eta Frantzian interesa azkar zabaldu zen. Kanten iraultza kopernikarra iraultza frantsesarekin aldeztatzen zen. 1798an erregea hil zen eta berehala *Fakultateen arteko gatazka* argitaratu zuen Kantek, bertan berriro erlijio gaiak ukituz. Erljioari buruz idazteko debekua erregearen eskutik iritsi zitzaionez, erregea hiltzean debekua amaitzen omen zen.

Arazo horiek izanik eta bere filosofia garatzeko zailtasunak ikusita, 1797an, etsita, uste zuen 100 urte beharko zirela bere lana azkenik egokiro ulertzeko. Azken urteak ez ziren samurrak izan. 1804ko otsailaren 12an, igande bateko goizeko hamaiketan hil zen eta jendetza handia bildu zen lurperatu zutenean. Berehala haren etxea saldu zen eta gauza gehienak enkantean saldu ziren; azken hogeitertan eraman zuen eta bere pertsonaren ezaugarria bihurtu zen kapelaren erosleak asko ordaindu omen zuen.

## Et, hala ere, Kant bizirik

Kanten ideien gaurkotasuna aztertzerakoan asmoa ezin da izan haren apologia egitea, ez eta gaurko ikuspegi-tik denbora aldea batere kontuan hartzen ez duen azaleko kritika egitea ere. Hillary Putnam litzateke nire ustez jarrera egokia duena: filosofiaren arazo gehienak Kantekin bihurtzen omen dira interesgari guretzat, eta ondorioz aurreko edozein filosofoen jarraitzaile izatea anakronikoa litzatekeen arren, Kant gure garaikidea da, zentzu horretan.

Kanten gaurkotasuna ez datza hainbeste bere filosofiaren eduki konkretuetan, baizik eta garatu zuen filosofiaren metodo berrian. Metodo horrek enpirismoa eta ra-

zionalismoa bildu nahi zituen, esperientzia eta logika elkartzeko ahalegin izugarria egiten du; izan ere, «pentsamenduak edukirik gabe hutsak dira, begiespenak adigairik gabeitsuak dira». Esperientziatik hasten gara, baina gure esperientzia ez da orain eta hemen egiten dugun esperientzien batuketa soila. Bestalde, adimena beharrezkoa da, baina adimenak bere kabuz ekiten duenean airerik gabe hegan hobeto egingo lukeela uste duen usoaren antzera ari da (ondorioz, lehengo Psikologia, Kosmologia eta Teologia razionalak ez dute inolako bermerik).

Eta zertan datza metodo berria? Objektuez galdetu beharrean guk haietaz dugun ezagutzaz galdetzean. «Asko pentsatu duzue orain arte, baina ziurrenik zuen pentsatze horietaz ez duzue gogoetarik egin». Kanten metodoa transzendentala da, hau da, esperientziaren baldintzez galdetzen duena. Aurrerantzean arazoa ez da izango gauzak nolakoak diren, baizik guk nola ezagutu ahal ditugun; izan ere, ez dago subjektua gauzen mende, baizik eta haiek daude subjektuaren ekimenaren baldintzen mende. Horregatik, «oro har esperientziaren ahalgarritasunaren baldintzak aldi berean objektuen ahalgarritasun baldintzak dira».

Metodo berri hori *iraultza kopernikarra*ren analogia erabiliz argitzen du.

Hemen Kopernikoren lehen pentsamenduekin bezala gertatzen da: izarren armada osoa ikuslearen inguruan jiraka zebilela suposatuz zeruko higiduren azalpenean aurrera egin ezin zuenez gero, orduan saiatu zuen ea ez litzatekeen hobe izango ikuslea jirarazi eta izarrek geldirik utziko balitu.

Eta ikuspuntu aldaketa horren bidez substantzien filosofia batetik subjektuaren ekimen ezberdinen filosofia batera igarotzen gara. Kanten hilobian haren hitz hauek irakurtzen dira: «Zeru izartuan *nire* gain eta lege moralan *nigan*». Beraz, ez dago egitate hutsik, gauza gordinik, beti teoria edo ikusmolde baten arabera egituratzen ditugun objektuak baizik. Eta ondorioz, «Natura izendatzen dugun agerpenen ordena eta erregularitasuna guk geuk ezartzen dugu». Subjektu ekile eta higigarriak egituratzen du errealitate gero eta era osatuagoan, ikuspuntu aldebakar eta aldaezinari lo-

tuta egon beharrean hainbat ikuspuntu hartzeko gaitasuna duelako.

Lurretik begiratuta, badirudi planetek batzuetan atzeraka egiten dutela, bestetan gelditu, bestetan aurrera egiten dutela. Baina ikuspuntua eguzkira eramaten badugu, arrazoi-menak bakarrik egin dezakeena, hipotesi kopernikarraren arabera euren bide erregularra egiten dutela ikusten dugu.

Honegatik, objektibitatea lortzeko ez da subjektua alde batera utzi behar, baizik eta subjektuaren ikuspuntua aldebakarretik aldeanitzera, beteagora igaro behar da. «Baliozkotasun objektiboa eta beharrezko baliozkotasun orokorra (guztientzakoa) balioideak dira».

Kantek askotan azpimarratu du subjektuaren malgutasun horrek ikuspuntuaren zabalpena adierazten duela. Nire arrazoiaren aurka egiten duen judizioa nire judizio bihurtzen da nire berekoikeria baztertu eta hartan ekarpen bat ikusten dudan bezain pronto. Bestela giza adimena nire ikuspuntu bakar horretatik ikusiko nuke; eta bestela ordea askoren ikuspuntuak ere jasotzen ditut. Judizioetan ikuspuntu ezberdinen artean sortzen diren talkek ezartzen dituzte adigaiak eurei dagozkien lekuetan. Markus Herz lagunari bidalitako eskutitzean dio gogamenak beti irekita eta malgu iraun behar duela, objektua ikuspuntu ezberdinetatik ikusteko, ikuskera behaketa mikroskopikotik orokorrago igarotzeko, irudika daitezkeen ikuspuntu guztiak probatzeko, batak bestearen judizioa egiazta dezan. *Logika*-n subjektuaren ikusmira orokor edo absolutu eta berezi eta baldintzatuaz, hots, pribatuaz, hitz egiten du. Kontua ez da ikusmira absolutua lortzea, bakartua esan nahi badu, baizik eta orokorra lortzea, osatuagoa, beteagoa. *Juzgamenaren kritika*-n norberak bere kabuz pentsatu behar duela esan ondoren pentsaera horrek zabala izan behar duela gaineratzen du, besteen ikuspuntua hartu ahal eta behar duela, horrela bere judizioaren baldintza pribatuak gainditzeko eta norberaren judizioei buruz hausnartzeko ikuspuntu orokorrago batetik. Hori sen on edo sen komunaren gaiari lotzen zaio (*Gemeinsinn*), subjektu guztiek komunean duten oinarritzko egitura. Ez dago ikuspuntu absoluturik, Jainkoarena, baizik eta ikuspuntua orokortzeko

p rozesu jarraitua besterik ez. Eta horren aurkakoa erokeria da, sen ona galtzea, berekoi logiko, etiko eta estetikoak egiten duen norberarenganako bihurketa (*Verrückung*) gauzetatik eta besteengandik urrunduz. Honakoa dio horregatik behin, lan handiaren esanahia laburbiduz:

*Arrazoimen hutsaren kritika* gure naturaren muinean sartuta dagoen gaixotasun baterako sendagaia da, alegia, gure aberrira kateatzen gaituen joeraren (herriminen) aurkakoa da. Gure txokotik irten eta mundu berriak ezagutzeko irrika da.

Subjektuak, beraz, askea izan behar du ezagutu ahal izateko, ez du kokapen finko batetik inguruan zer gertatzen den behatzen, baizik eta ekiten du, esperimenduak egiten ditu, eta horrela zehazten du ekimen horietan agertzen zaionaren ezagutza. Gauzak euren baitan direna ezin da ezagutu, edo hobe esanda, hori ezin daiteke gure objektua izan, gehienez ere Jainko batena; guk gure ezagumenaren bidez ezagutzen dugu gure ezagumenak biltzen dituen baldintzen arabera agertzen zaiguna. Gauzak euren baitan zer ote diren galdetzea zozokeria da, ispiluaurrean begiak itxita jarri eta ispiluan zer itxura daukadan asmatu nahian ibili izatea.

\* \* \*

Natur zientziaren inguruan pentsatzen hasi zen Kant filosofiako kontu nagusiak landu aurretik, eta beti saiatu zen filosofia eta zientziaren arteko lotura mantentzen. Ezaguna da Newtonek egindako lanei eman zien garrantzia, haren zientziaren oinarri filosofikoak ezartzeko saioa ere egin zuen. Hala ere, esan behar da zientziaren aurrean jarrera irekia eta kritikoa izan zuela. Horrela, hasieran ez zuen uste izan Kimika natur zientzia bat zenik, Matematikaren hizkuntzan ezin zelako aurkeztu. Baina gero Lavoisier-en lanak ezagutu zituen eta Matematika Kimikan aplikatzeko aukera bazegoela ikusi zuen eta hura onartu zuen zientzia gisa. Horrela, azken urteotan Kimika eta Magnetismoaren inguruan lortutako aurkikuntza berrie-

nei buruz irakurtzen jarraitu zuen. Geroago Biologia bera fisika berezi-berezi bihurtzeko modua ere aurreikusitako zuen, Brown-en *Elementa medicinae* lanean oin hartuta.

Eta bestalde, Newtonek zuen ospe handia ez zen oztopo izan Kantek hark grabitateari buruz esandakoak zailtzan jartzeko. Nola liteke erakarpena egotea urrundu dauden bi gorputzen artean (*actio in distans*)? Zalantza handiak zeuden horri buruz eta horrek aurrera begiratze-ko aukera ematen dio Kanti. Newtonek berak ezin zuen argitu (*hypotheses non fingo*), nahiz eta batzuetan Jainkoa bera aipatzen duen argibide gisara. Kantek nahiago du erantzuna zientzian bertan aurkitzea, Boscovitsch-en fisika dinamista jarraituz. Magnetismoan eta elektrizitatean urrutiko erakarpena dagoela ikusten du, nahiz eta tarteko materia baten oinarriekin; eta hor ikusten du denbora behar dela distantziaz hitz egiteko (argiaren abiadura mugatua dela eta), Newtonen legeetan inon argitzen ez dena. Horrela eterraz hitz egiten du, elkarreragin ororen eustazpi gisa, eta hori «energia» gisa ulertzen du. Eta horrela indarren Fisika batetik eremuen Fisika batera zihoan bide berritik abiatu zen eta bere ideiak etorkizuneko fisika batekin hobeto bateratuko zirela ere adierazi zuen.

Esperimentazioari eta teknikari garrantzi handia ematen dio, ez teoria soilari. Teknika zientziaren funtsezko zatia da eta ez haren ondorio soilia. Tresnen erabilerak ahalbidetzen du zientzia eta ez alderantziz. Esperientzia *egin* beharrek esperientzia-ekimen hori teknikarekin lotzen du halabeharrez. Esperientzian hautemapenak ez dira besterik gabe jasotzen, baizik eta elkarlotzen dira tresneria bat erabiliz. Gizakiaren natura, beraz, kultura garatzea da.

Behaketan objektuak subjektua higitzen du, esperimentuan subjektuak higitzen du objektua, eta horrela zerbait berria ezagut dezake hartaz. Horregatik, azken urteetan naturaren printzipioak baino gehiago naturaren ikerketaren printzipioak lortu nahi ditu: esperientzia egin ahal izateko baldintzak. Eta hor gizakiaren soinak duen garrantzia azpimarratzen du. Subjektu ezagutzailearen soina ezagutze ekimenaren baldintza ezinbestekoa da. Konkretuki, arrazoimena eta eskuaren malgutasuna lotzen ditu.

Soina gure bizitzaren baldintza osoa da, ez dugu gure bizitzaren adigairik soinaren bidez ez bada, eta gure askatasunaren erabilera soinaren bidez soilik gauza daitekeenez, ikusten dugu soina norberaren zatia dela.

Esan behar da, hala ere, Kantek bere pentsaera berriaren oinarri nagusiak filosofia teorikoan ezarri bazituen ere, filosofia praktikoari eman ziola zalantzarik gabe lehenetasuna, etikari eta politikari, hor gizakiaren askatasuna baitago jokoan. «Interes oro azken finean praktikoa da eta arrazoimen espekulatiboaren beraren interesa baldintzatu da eta erabilera praktikoan bakarrik osatzen da».

Kantek dio bere filosofiak ezagutzarekin egin nahi duena gramatikak hizkuntzarekin egiten duena dela. Gramatika aztertuz hizkuntzak esan ahal duena zehazten eta mugatzen dugu. Baina hizkuntzak azken finean pentsamenduak komunikatzen ditu, eta pentsatzea norbere buruarekin hitz egitea da, eta norbere buruari entzutea ere bai. Objektuen ezagutzaren baldintzak eta mugak zehazten ditu ondoren subjektuen arteko komunikazioa, gai nagusia, aztertu ahal izateko.

Subjektuaren alde etiko-praktikoaren lehenetasun horrek esan nahi du, alde batetik, gizakien arteko harremanak ezin direla teknikaren arabera antolatu, baizik eta gizakien arteko egiazko komunikazioa aintzat hartuz; eta beste aldetik, zientziak eta teknikak gizarte antolamenduaren esanetara egon beharko luketela. Ezagutzeko ekimenean askatasuna agertzen bada baldintza gisa, orduan ezin da Kanten arabera erabateko bereizketa ezarri zientzia-teknikaren eta kulturaren artean. Zientzia eta teknika, beraz, ez dira eremu autonomoak, erantzukizun orotatik aske daudenak; eta kultura estetikoak ere ez da komunikazioaren eremu bakarra, komunikazioaren eremua txoko horretatik atera eta zabaldu beharko litzateke.

Idealismo estetikoak ez da egiazko mundua baino ederra goa den mundu bat marrazten duena, baizik eta gogamena mundua edertzeko egokitzen duena.

\* \* \*



Kanten etikaren formalismoa oso kritikatu izan da hasiera-hasieratik. Bihotzik gabeko etika abstraktu eta tris-tea omen da, objektu edo helburu konkreturik gabekoa eta joerak eta sentimenduak kontuan hartzen ez dituen; errealitatea erabat gaitzetsiz betebeharra betetzea eskatzen omen duen etika. Hau gaur egun oraindik ere estatu prusiarraren alde ilunenekin harremanean jartzen da, Kantek haren bermea eman nahi izan balu bezala. Bestela da, ordea: «Gizakien egungo egoeran estatuen zoriona eta gizakien miseria aldi berean hazten dira»; «Egin behar denari buruzko legeak egiten den horretatik hartu edo horren bitartez mugatzea gaitzesgarria da».

Agindu kategorikoa da Kanten irakaspen ezagunenetakoa. «Nire maxima lege orokor bihurtzea nahi izan ahal banu bezala bakarrik joka dezaket». Urrezko arauaren oso antzekoa da (Ez ezarri beste inori jasan nahi ez duzun hori), baina zentzu zabalagoa du. Aginduaren ondorio batzuetan ikus daiteke hori:

Gizakia ez da gauza bat; ez da, beraz, bitarteko soil modura erabil daitekeen zerbait; ekintza guztietan berbitango xede gisa ulertu behar da.

Ekin ezazu gizatasuna zure pertsonan edo besteengan orain eta beti helburu modura erabiliz eta inoiz ez bitarteko soil modura.

Gizakia pertsona den heinean, hau da, arrazoimen praktikomoralaren subjektu gisa, prezio guztien gainetik dago.

Kanten etikaren ekarpen nagusia aipatzekotan, etika ezagutzaren eta sentimenduen mendekotasunetik askatu eta etikari autonomiaren ideiarekin bitartez bere izate propioa ematea izango litzateke aukeratuko nukeena. Horrekin, etikan edozein intelektualismo edo sentimentalismo elitista gainditu zuen: onaren kontzientzia izateko ez da behar jakintsua izatea edo sentimendua era berezian garatzea; aitzitik, ekimenaren oinarriak edonork aurkitzen ditu bere baitan eta inork ez du egon behar zenbait pertsona aukeratu erabakiaren zain ongia eta gaizkia zer den jakiteko.

Agindu kategorikoak askatasunaren ideia bat biltzen du. Ez da askatasun negatibo soil, zerbaitetik aske izatea,

baizik eta gizartean garatzen den askatasun positiboa. Askatasuna, beraz, norbanakoaren aukera-ahalmen soil gisa ulertuta (Robinson baten antzera) hutsa eta antzua da, abstraktua. «Ezin da bakoitza legerik gabe aske izatea baino gauza nazkagarriagorik irudikatu». Askatasunak bere gauzapena bilatu behar du, abstraktua izateari utzi behar badio, eta horregatik elkarbizitarako arau batzuetan egikaritzean bihurtzen da benetan erreala. Ondorioz, agindua norberaren arau gisa ezarri beharrak, hots, autonomiak, ez du zerikusirik subjektu autarkikoarekin, Bestearen beharrik ez duenarekin; eta, beraz, ez da subjektuen arteko komunikazioa apurtzen duen printzipiorik, hura gauzatzen duena baizik. Bakoitzak bere interes alderdikoiari helduz gero, norbere zoriona bilatuz gero, adibidez, ez dago subjektuen arteko harremanak objektiboki antolatzerik, inolako adostasunik lortzerik; aitzitik, guztien elkarren aurkako gerra besterik ez litzateke emaitza, eta hor azkenean botere gehien duenak erabakitzen du. Berehala nabarmentzen da elkarbizitzan alderdikeria eta ikuspuntu berezien gaindipena beharrezkoa dela. «Dena ikuspuntu pribatu soiletik juzgatzen duena, dela jakintsua, negozio-gizona, apaiza edo erregea, gizon gaiztoa da». Horregatik, norberak eman behar dio bere buruari legea gizarteko kide gisa, eta horrela lortuko du bere egiazko askatasuna garatzea borondate aldebakarra utzi eta nahimen orokorragoa osatuz, gizatasunaren ideiarda hurbilduz. Horretarako helburu onak zehaztu behar dira, hau da, halabeharrez beste edonork onartuko litzuzkeenak, beste edonoren helburuak izan litezkeenak.

Horregatik azpimarratzen du Kantek hainbeste legearen garrantzia, legeak ahalbidetzen duelako benetako askatasuna. «Gizakiak inoiz lortu ezingo duen sorkari mugatuen perfekzio moralaren helmuga gorena legeari maitasuna da». Gizartean bizi den gizakiarentzat legearen hertsapena ezinbestekoa da askatasuna garatzeko. Arazo bera sortzen da hezkuntzan. Gizakia hezkuntzaren bidez bihurtzen da gizaki, eta horrek hertsapena eskatzen du, nahiz eta azken helburua gizakiaren pentsatzeko eta ekiteko askatasuna izan. Kanten arabera haurrari irakatsi behar zaio ezen bere helburuak lortu ahal izango dituela bestee

eurenak lor ditzaketen heinean (eta, beraz, gizartean dau- den ezberdinketen oinarrian berdintasuna dagoela).

Adibide bat erabiliko dut gaia argitzeko. Gizabanako batek futbolera jokatu nahi badu baloi bat har dezake ari- ketak egiteko edo baloiari ostikoka jarduteko paretaren aurka, baina laster aspertuko da, eta talde batean jokatu nahiko du, taldearen barne soilik bihur daiteke benetan futbolari. Talde batek, ordea, bere kabuz ezin du inolaz ere futbolean egin, beste talde bat behar du. Bestearekin au- rrez aurre izatean soilik bihur daiteke taldea benetako fut- bol-taldea eta lagun bakoitza benetako futbol-jokalaria. Hala ere, bi taldeak jokatzen hasten badira, berehala ikus- ten dute ezinezkoa dela besterik gabe jokatzea. Edozein jo- kaldik eztabaida sor dezake, falta dela edo ez dela, penalti dela edo ez dela. Beraz, oraindik zerbait gehiago behar da, jokia egituratu eta ahalbidetzen duena, legea, hain zuzen.

Egia da tranpak ugari direla futbolean, baina ezin da esan, hori ikusita, tranpa egitea libre denik, horrek jokia bera deuseztatuko bailuke. Constante-k zioen gezurra be- harrezkoa dela gizarte bizitzarako, egia osoarekin ezin de- la elkarrekin bizi. Eta Kantek 1797ko liburuxka batean erantzun zion horri: nahi izan ahal nezake gezurra esatea lege orokor bihurtzea? Eta erantzuna «ez» da. Gezurra esa- teko aukerari zilegitasuna eta balio orokorra ematen ba- diot, egia ezinezkoa gertatzen da, egia-gezurra ezberdinta- suna desagertzen baita, eta horrek edozein giza harreman ezinezkoa egiten baitu. Gezurra esaterakoan hizkuntzaren funtsezko helburuari bizkarra ematen zaio eta besteak hitz-makinak bezala erabiltzen dira, ez komunikatzeko gai diren pertsonak bezala. Lapur talde bateko kideek ere egiaz jokatu behar dute euren helburua lortu bitartean. Eta zergak ordaintzen ez dituenak beste denek ordaindu ditzatela nahi du noski, berak lortzen duen abantaila hori sistema guztiak funtzionatzen duen neurrian soilik lor baitezake. Horrelako jarrera orokortuko balitz, ezingo lu- ke abantailarik lortu.

Eta aurrera eginez, ez dago komunikaziorik Jainkoa- rekin. Goiko ahots batek hitz egingo baligu, ezingo genu- ke jakin Jainko baten ahotsa denik, gure arazoimenak

ezin baitu sentsuen bermerik ez duen ezer onartu. Baina bai ezagut dezakegula Jainkoaren ahotsa ez dela, alegia, agindu moralaren aurkakoak esaten baditu. Horregatik azpimarratzen du Heinek alderdi hau. Moses Mendelssohn-ek 1785ean Jainkoari buruz idatzitako liburuan kritikatzan zuen «Kant orosuntsitzaila», bereziki «frogatzen» zuelako Jainkoaren ezagutza ezinezkoa dela. «Jainkoa ez da Nitaz at dagoen izakia, Nigan dagoen pentsamendu soila baizik. Jainkoa arrazoimen etiko-praktiko legegilea da». Jainkoa «nigan dagoen printzipio moral gorena» bada, orduan erlijioaren arrazoizko edukia etika baino ez da, erlijioa ez da beste izaki baten kultura, hori fetitismoa eta sineskeria litzateke (Tungusiako txaman bat eta Connecticut-eko puritanoa itxuraz ezberdintzen badira ere, funtsean erru berberean bizi dira, hau da, gizakia- ren hobekuntzarako lana egin beharrean otoitz eta eskakizunen bitartez Jainkoaren grazia lortzen saiatzen dira). Betebeharrari jarraituz pertsona hobeago bihurtzea eta etorkizunean gizarte hobeago batean bizitzea, «Horixe da hain zuzen arrazoizko erlijioaren egiazko helburua, alegia, gizakien hobekuntza morala». Norberari legea ezartzean badirudi beste baten nahimena betetzen ari garela, baina legea ezartzen duen nahimen hori ez beste izaki baten nahimena, baizik eta geurea orokorra egiten dugun heinean eta arau orokortzat hartzen dugun heinean. Halakoa nahimen orokorra da, ez pribatua.

Eta hala ere Kantek hilezkortasuna eta Jainkoa berreskuratzen ditu atzeko atetik, postulatu gisa, *Arrazoimen praktikoaren kritika*-n. Heinrich Heineren arabera tragedia- ren ondoren fartsa dator eta beraz Jainkoarekin akabatu ondoren Kanten zerbitzaria, Lampe, negarrez hasi zen eta Kant errukitu zen: Lampe gaixoak Jainkoa behar du, Jainkorik gabe ezin du zoriontsu izan. Horrela, arrazoimen teorikoak apurtu duena, praktikoak berrezartzen du. Gero hori berehala erabili zuten jainkozaleek Kanten ideiak bihurtuz: Kantek Jainkoaren ezagutza apurtu du agerkunde beharrezkoa dela azpimarratzeko. Antzera, jainkozaleak izan omen ziren terroreak gutxien beldurtu zituenak, horrela kontrairaultza indartzen zelako. Baina hori Heineren

arabera etxetik hirira doan bideko argi guztiak apurtu ondoren ilunpetan argiaren beharrari buruzko hitzaldi sutua egitea bezala litzateke. Baina egiatan Kantek berak bere azken lanetan garbi uzten du hilezkortasuna eta Jainkoa postulatuak ere ez direla. Eta horrela ulertzen da Heinek aipatzen duen bigarren arrazoia postulatuaren alde, ez Lamperen pena, baizik eta polizia. Jendea ez dago prest agindu kategorikoak eskatzen duen autonomiaren arabera jokatzeko eta oraindik erlijioa behar du, hau da, agindua- ren jatorria gizakiaren gaintik dagoen botere batean ezarri behar da horrek benetako indarra izan dezan.

Kanten baitan, ordea, kontua argi dago. Postulatuaren oinarrian dagoen ideia da betebeharrak zoriona eskatzen duela, eta mundu honetan horren bermerik ez dugunez hilezkortasuna eta Jainko bat onartu behar ditugula. Baina hori une batez pentsatzen badugu, ez dira hilezkortasuna eta Jainkoa horren bermea eman dezaketinak, baizik eta historia. Kontua da ea mundu honetan hobe gaitzkeen, ea Jainkoaren erresuma lurrera ekartzeko gai garen eta ongi goren komuna eraiki dezakegun, eta horregatik Kanten interesa gizateriak historian duen garapenera zuzendu zen. Eta, beraz, itxaropenaren galderak historian jasotzen du bere esanahi konkretua, eta hau da: ea gizadiaren hoheranzko aurrerapena itxaron ahal daitekeen.

\* \* \*

Kantek zuzenbidea aztertzen duenean, alde batetik, horiek etikan oinarria duela argi uzten du, baina, bestalde, nahasketak erabat ekiditeko bi eremuak erabat bereizten ditu. Kanpoko askatasuna gizakien elkarbizitzan gauzatze- ko baldintzak zehazten dira zuzenbidean. Orain askatasu- naren lege orokorrak gizartean gauzatu behar dira.

Kantek zuzenbide pribatua aztertzen du publikoaren aurretik, eta gainera lehenari nolabaiteko autonomia ematen dio, bere baitan zentzua duen eremu bihurtzen du. Horren bidez egitura sozio-politikoak erabat estatua- ren mende geratzeko arriskua saihesten du. Zuzenbide pribatuan gauzen jabetza, kontratuak (ezkontza, adibi-

dez), familia eta umeen arazoak lantzen dira. Atal honen erdigunea zalantzarik gabe jabegoaren teoria da.

Jabetzaren argipenean, hau da, nire eta zurearen arteko bereizketaren oinarrian, alde batetik subjektu bizidun eta gorpuzdunen baldintza dago eta, bestetik, printzipio nagusi bat: jatorriz komuna den lurraren jabetza (*res omnium*). Horregatik, egitatezko jabetza legezko jabetza bihurtzea nahimen orokor baten onarpenean gertatzen da, batak bestearen eskubideen aintzatespenarekin batera. Ondorioz, jabetzaren teoriak zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko igarobidea dakar berarekin. Jabetzaren gai pribatua azken finean gizartearen legezko eraiketarekin batera konpontzen da.

Kantek Rousseau jarraituz jatorrizko hitzamenearan jartzen du estatuaren oinarria, baina zentzu ezberdina ematen dio oinarritze horri. Rousseauentzat hori natur egoera idilikotik erorketa baten ondorio besterik ez denean, Kantentzat berriz norabide egokian doan erabat beharrezko urratsa da. Kantentzat natur egoerak ez du ezer idilikorik, denak denen aurkako borroka egoera jasanezina besterik ez da. Horregatik, bakoitzak bere askatasunaren murriztapena onartzen du legezko egoera batera igarotzeko. Eta beraz, gizakia hiritar bihurtzean bakarrik da azkenean egiazko gizakia. Eta ondorioz, estatuaren forma bikainena nahimen orokorraren adierazgarri den ordezkaritza sistemaren eta botere banaketaren arabera antolatuta dagoen Errepublikak da.

Errepublikaren subjektu politikoak askatasun eta berdintasunaren ezaugarriak dituzten hiritarrak dira. Errepublika perfektua askatasuna berdintasunarekin lotzen duena da. Horrela, pentsamendu eta iritzi askatasunak defendatu zituen indartsuki, norbere burua ilustratzeko tresna ezinbestekoak baitira horiek. Gainera, esklabotza kritikatzeko du eta nobleziaren abantailak ezabatu nahi zituen.

Estatu honen helburua eskubideak segurtatzea da eta ez gizakiak zoriontsu egitea. Zoriona eremu pribatuko auzia da eta estatua hor sartzeak bere kideak ume gisa tratatzea eragingo luke. Horrek despotismoa ekartzen du berekin, autonomiaren printzipioa apurtzen baitu. «Herriak

berez erabaki ezin duena, oraindik gutxiago erabaki deza-ke monarkak herriagatik». Estatuak egin behar duen bakarra bere kide orenen eskubideak zorrotzasun handienarekin defendatzea da.

Baina Kant ez zen estatuaren eraketa soilean geratu. Estatuak elkarren ondoan bizi dira gizabanakoak bizi diren modura eta ondorioz nazioarteko zuzenbidez zerbait esan behar zuen. Futbolaren adibidera itzuliz, futboleak hasiz gero munduko txapelketa antolatzeke beharra sortzen da. Nazioarte mailan ere herri guztien elkarrekiko gerraren natur egoeratik legezke egoerara igarotzeko urratsa beharrezkoa gertatzen da. Eta horretarako errepublikaren elkarrekin federal kosmopolita baten eraikuntza aurreratu behar du, gaurko Nazio Batuen hazia. Hor arazoak ez dira gerren bidez erabakitzen, auzitegien bidez baizik. Egun Kant zuzenbide kosmopolita asko aipatzen da globalizazioari buruzko eztabaidetan, zuzenbide kosmopolita hori nazioarteko zuzenbidea baino gehiago baita; estatuen arteko harremanak arautuz gain gizakiek nazioarte mailan dituzten eskubideak zehazten ditu.

Ildo horretatik kolonialismoa kritikatu zuen eta oro har gerrak eta militarismoa. Gerrek gizon gaizto gehiago sortzen omen dituzte hiltzen dituztenak baino. Armada iraunkorak giza eskubideen aurka doaz eta «denborarekin erabat desagertu behar dute».

Armada egonkorra etengabeko gerra mehatxu bat dira beste estatuentzat, beti prest eta egokituta baitaude gerra egiteko. (...) Eta, azkenean, armada egonkorra sortutako gastuak bakea gerra motz bat baino jasanezinagoa egiten duenez, hori da erasoaren zioa (...). Horri zera gehitu behar zaio ezen jendea soldatapean edukitzeak, hil daitezkeen edo hil dezaten, esan nahi duela gizakia beste batek erabiltzen duela makina gisa —Estatuak—; ez datorrena bat gure baitan ditugun gizatasunaren eskubideekin.

Egoera hori konpontzea bideratuko lukeen oharra ere egiten du: gerra hastearen erabakia ezin da erregearen eskutik utzi, baizik eta herriak berak hartu behar du erabakia, hau baita gerra egin eta bere ondorio latz guztiak jasaten dituen.

Hala ere, errealtateari begiratzen badiogu gatazkak eta gerrak nagusi direla dakusagu. Kant ez da asmo onak besterik ez dituen idealista baikorra, idealista kritikoa baikik. Gizakia izatez gaiztoa dela dio, horretan ere ez dugu Ilustrazioaren baikotasunaren arrastorik aurkitzen, eta gizakia egiteko erabili den egurra oker-okerra zenez, hori erabiliz ezin da inoiz erabat zuzena den ezer lortu. Dena den, gatazka horiek ez ditu gaitzesten besterik gabe; aitzitik, gatazka horiek beharrezkoak direla dio, gizakiaren gaitasunak garatzeko eta kulturaren lorpen nagusiak sortzeko. Gatazka kulturaren aurrera egiteko akuilua da. Eta akuilu honen osagai nagusiak erlijio eta hizkuntz aniztasuna dira, hainbat liskarren jatorriak. Hizkuntz eta erlijio aniztasunak gizarteak batasun desitxuratu batean elkartzeko ekiditen du. Babel gizateriaren historian beharrezko urratsa izan zen. Txina jartzen du aurkako adibide gisa. Mendetan zehar Erdiko Erresuma, etsirik gabe bere baitan itxita, eta despotismoan erorita askatasun arrastorik gabe. Hor sumatzen den bakea hilerrietako bakea litzateke. Baina Kantek bake dinamikoa nahi du, ez indarrak agortzen direnean sortzen dena, baizik eta lehia biziak oreka lortzen duenean; hemen ere aniztasunaren sintesia aldarrikatzen du, e p i s -temologian egiten duen bezala, sintesi bizia. Eta, beraz, Kantek aniztasuna onartzen eta onesten du, Ilustrazio bateratzaile baten irudiari aurkakotuz. Christian Gottlieb Mielcke-k egindako lituaniera-alemana-lituaniera hiztegi-rako hitz batzuk idatzi zituen Kantek: lituaniarrek eskubidea dute, noski, euren izaerari eusteko, eta hizkuntza izanik horretarako tresna nagusia, horren erabilera bultzatu behar da hezkuntzan eta oro har. Gainera, hizkuntzaren erabilera zabaldu eta herriaren izaerari estuago lotze horrek herriari ideiak argiago adierazteko ahalbidea eskainiko dio. Horregatik, Nazio Batuen aurrekariak hitz egiten duenean, estatu federalen batasunaz hitz egiten du, baina estatu bakar bat eratzea guztiz gaitzesten du.

Hala ere, gatazka eta gerrez betetako egoera hori ez du besterik gabe onartzen. Gatazkak sortzen dituen egoera tamalgarriak gaizkia hobeto ulertzen laguntzen dute,



eta gero eta gehiago ezagutzen dira munduan edonon egindako bidegabekeriak. Aniztasunak gatazkak sortzen ditu, baina harreman berriak sortzeko aukera ere bai; ez asmo onen bidez soilik, baizik eta elkarbizitza arautzen duten erakunde berriak, borondate orokorago bat bideratzeko gai izango diren lege berriak sortuz. Eta horregatik estatuak legeak behar ditu, deabruak izango bagina ere gizarte-bizitza bermatuko luketenak. Eta gizakiak, horrela, pixkanaka gizatasunaren idealari hurbiltzen zaion lege sistema baten kide izan behar du. Ideal hori ez dago aurretik emana gure izaeran, baizik eta eraiki egiten da, ba-kea eraiki behar den bezala.

Eta horregatik, ez dago historiaren amaierarik. Hoberako bidean al dago, beraz, gizakia? Ez dakigu zehazki, Kantek hobetzearen hobetzeaz azkenean hiltzorian dagoen gaixoaz hitz egiten du, baina historiak zentzu bat izango badu, hobera egin beharko balu bezala jokatzea da aukera onena. Hobekuntzarako baldintzak ezartzeko ahalegin jarraitua besterik ez zaigu geratzen. «Hobekuntza orokor baten baldintzak hezkuntza askatasuna, askatasun hiritarra eta erlijio askatasuna dira». Horregatik, senideek haurrak ez dituzte hezi behar egungo egoerari egokitzeke, bertan ongi molda daitezen, baizik eta gizateriaren etorkizuneko egoera hobeko bati begira hezi beharko lituzkete, horrela etorkizuneko bide berri horiek urratu ahal izateko. Eta ondorioz, haurrek gaiztakeriaren bat egiten dutenean ez dira zigortu behar besterik gabe, baizik eta zigorrak haur-rraren hobekuntzaren suspertzaile izan behar du.

Hoberanzko bidea erreformen bidea da Kanten arabera, ez iraultzarena. Iraultza legearen aurka doa, eta beraz ez da zilegizkoa (indarrean dagoen nahimen orokorra bortxaz aldatzen duelako). Baina pellokeria hori baino interesgarriagoa da iraultza frantsesari buruz esaten duena, alegia, zilegizkoa iruditzen zaiola aurreko lege-egitura hobetzen duelako, eta beraz, nahimen orokorrako bat islatzen duelako.

Horregatik, beraz,

orain galdetzen bada ea jadanik gizaldi ilustratu batean bizi garen, hauxe da erantzuna: ez, baina bai Ilustrazioa-

ren gizaldi batean. Oraindik asko geratzen da (...)

Eta Ilustrazioaren bide hori urratzeko beharrezkoa da barne iraultza, iraultza kopemikarrak iragartzen zuena, eta Kanten asmoak hobekien jasotzen dituen: «Gizakien barneko iraultza garrantzitsuena zera da: euren erruz duten adingabetasunetik irtetea». Eta horren ondorioz, hona Ilustrazioaren lema: «*Sapere aude!* Eduki ezazu adorea zeure adimenaz baliatzeko!». Horregatik, ez zuen filosofia bat irakatsi nahi, baizik eta giza arazoimen komuna erabiliz filosofatzen irakatsi nahi zuen, ez baitago filosofiako autore klasikorik edukiei dagokienez. ¶

---

### Bibliografia euskaraz

*Prolegomenoak*, Bilbo, Klasikoak, 1995.


*Kant eta Hegel. Gerra eta bakeaz gogoetak*, Donostia, Jakin, Jakin irakurgaiak 3, 1997.

*Arrazoimen hutsaren kritika*, Bilbo, Klasikoak, 1999.

*Arrazoimen praktikoaren kritika*, Bilbo, Klasikoak, 2005.

Uribarri, Ibon, *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*, Donostia, Jakin, Jakin irakurgaiak 1, 1997.

Uribarri, Ibon, *Kanten ezagutzaren teoria*, Donostia, Jakin, Jakin irakurgaiak 17, 2002.



# JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943.21.80.92  
Fax. 943.21.82.07  
[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)